

Andoain  
2010/III/18

[a]  
aztiker  
Jendarte-ikerketa aplikatuak



## MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN ERAGINKORTASUNA NEURTZEN, 2010 EMAITZEN TXOSTEN NAGUSIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejero de Política Lingüística

Bezeroa: Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Saila



# AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b>	<b>5</b>
<b>0 METODOLOGIA OHARRAK</b>	<b>6</b>
0.1 IKERKETAREN HELBURUAK	6
0.2 IKERKETAREN DISEINU OROKORRA	7
0.3 [KUANTI-I]: 2004/2005-2008/2009 IKASTURTEEI BURUZKO ZEHARKAKO ITURRIEN LANKETA ESTADISTIKOA (PARTE HARTZAILEAK ETA UDALERRIEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK AINTZAT HARTUTA)	9
0.3.1 ITURRIAK	9
0.3.2 LURRALDE EREMUAK	9
0.3.3 SAILKAPENAK	10
0.3.4 BIDELARI ETA BIDELAGUNEN KOPURUEN ESTIMAZIOA	11
0.3.5 SARBIDEA	11
0.4 [KUALI-I]: ELKARRIZKETA SAKONAK ADITUEI (5 ELKARRIZKETA)	12
0.5 [KUALI-II]: TALDE-ELKARRIZKETAK MINTZAPRAKTIKA TALDE NATURALETAN (3 TALDE)	13
0.6 [KUALI-III]: BEHAKETA PARTEHARTZAILEA MINTZA EGUNEAN	14
0.7 [KUANTI-II ETA KUANTI-III]: 2009/2010 EGITASMOKO PARTE HARTZAILEEI INKESTA AUTOAPLIKATUA ETA BIDELARI OHIEI TELEFONO BIDEZKO INKESTA	15
0.7.1 BAT, BI, HIRU: DISEINU AMANKOMUN BAT, BI LANDA LAN, HIRU INKESTA BATERAGARRI	15
0.7.2 2009/2010 IKASTURTEKO BIDELAGUNEI INKESTA AUTOAPLIKATUA	16
0.7.3 2009/2010 IKASTURTEKO BIDELARIEI INKESTA AUTOAPLIKATUA	16
0.7.4 BIDELARI OHIEI INKESTA TELEFONO BIDEZ	17
0.7.5 SAILKAPENAK ETA BIRKODETZEAK ALDAGAI INDEPENDENTEETARAKO (B, C, D ETA E ATALETAKO TAULETARAKO)	18
0.8 [KUALI-IV]: EZTABAIDA TALDEAK (4 TALDE)	21
<b>1 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA: LEHEN HURBILPENA ZENBAKIEN BIDEZ</b>	<b>23</b>
1.1 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN DIMENTSIO NAGUSIAK	23
1.1.1 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA ZENBAKITAN (2008/2009)	23
1.1.2 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA LURRALDEAN	24
1.1.3 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN BILAKAERA	25
1.2 PARTE HARTZAILEEN PROFILA ETA EZAUGARRI BEREIZGARRIAK	27
1.2.1 EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK	27
1.2.2 EZAUGARRI SOZIOLINGUISTIKOAK	30
1.3 KIDE BERRIAK ETA BAJAK (SARTU-IRTENAK, JOAN-ETORRIAK KUANTIFIKATUZ)	34
<b>2 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN DESKRIBAPENERAKO HAINBAT DATU OSAGARRI</b>	<b>35</b>
2.1 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN BERRI NOLA JAKIN DUTEN	35
2.2 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA ETA INTERNET	39

2.3	MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA ETA JARDUERA OSAGARRIAK -----	41
2.3.1	JARDUERA OSAGARRIETAN PARTE HARTZEA -----	41
2.3.2	MINTZAPRAKTIKA EGITASMOTIK APARTEKO EUSKARAZKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA -----	42
2.3.3	JARDUERA OSAGARRIEN EKARPENA -----	43
<b>3</b>	<b>MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA, ZERTARAKO? MOTIBAZIOEN AZTERKETA -----</b>	<b>44</b>
3.1	BIDELAGUNEN MOTIBAZIOAK -----	44
3.1.1	BIDELAGUNAK MINTZAPRAKTIKA EGITASMORA LEHEN ALDIZ HURBILTZEKO MOTIBAZIOAK -----	44
3.1.2	BIDELAGUNAK MINTZAPRAKTIKA EGITASMOETAN JARRAITZEKO MOTIBAZIOAK (BETERANOAK) -----	45
3.1.3	BIDELAGUNEN MOTIBAZIOEN BILAKAERA -----	46
3.1.4	BIDELAGUNEN MOTIBAZIOETAN SAKONTZEN -----	46
3.2	BIDELARIEN MOTIBAZIOAK -----	48
3.2.1	BIDELARIAK MINTZAPRAKTIKA EGITASMORA LEHEN ALDIZ HURBILTZEKO MOTIBAZIOAK -----	48
3.2.2	BIDELARIAK MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAN JARRAITZEKO MOTIBAZIOAK (BETERANOAK) -----	49
3.2.3	BIDELARIEN MOTIBAZIOEN BILAKAERA -----	50
3.2.4	BIDELARIEN MOTIBAZIOETAN SAKONTZEN -----	50
<b>4</b>	<b>MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN BIZIPENA ETA BALORAZIOA ----</b>	<b>52</b>
4.1	BIZIPENAK -----	52
4.2	HELBURUEN ARABERAKO BALORAZIOA -----	54
4.2.1	BIDELAGUNEN BALORAZIOAK -----	54
4.2.2	BIDELARIEN BALORAZIOAK -----	55
4.2.3	HELBURUEN ASEBETETZEA ZAILTZEN DITUZTEN EGOERAK -----	56
4.3	DINAMIZATZAILEA, BIDELAGUNA ETA TALDEA BALORATUZ -----	57
4.3.1	DINAMIZATZAILEAREN BALORAZIOA -----	57
4.3.2	BIDELAGUNAREN BALORAZIOA -----	59
4.3.3	TALDEAREN BALORAZIOA -----	62
4.3.4	DINAMIZATZAILEA, BIDELAGUNA, TALDEA... BALORAZIO ALDERATUAK	65
4.4	MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN BALORAZIO OROKORRA -----	66
<b>5</b>	<b>SARTU-IRTENAK, UZTEAREN ARRAZIOIAK ETA HURRENGO IKASTURTERAKO JARRERA -----</b>	<b>67</b>
5.1	BIDELAGUNEN ETA BIDELARIEN ANTZINATASUNA -----	67
5.2	BIDELAGUNEK EGITASMOA UZTEKO ARRAZIOIAK -----	69
5.3	BIDELARI OHIEN ARGAZKI LABURRA (BIDELARIEKIN ALDERATUTA) -----	70
5.4	BIDELARIEK EGITASMOA UZTEKO ARRAZIOIAK -----	71
5.5	HURRENGO IKASTURTEEI BEGIRA JARRERA ETA ASMOAK -----	74
<b>6</b>	<b>GAZTEEN PARTE HARTZEAZ -----</b>	<b>76</b>
6.1	FENOMENOAREN KUANTIFIKATZEA: SARBIDEA ADINAREN ARABERA -----	76
6.2	GAZTE BIDELAGUNAK ETA BIDELAGUN-GAIAK: DISKURTSOEN AZTERKETA ---	78
6.3	GAZTE BIDELARIAK ETA BIDELARI-GAIAK: DISKURTSOEN AZTERKETA -----	80
<b>7</b>	<b>MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN ERAGINA NEURTZEN -----</b>	<b>82</b>
7.1	MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA ETA BIDELARIEN EUSKARA MAILA -----	82
7.2	MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA ETA HARREMAN SAREA -----	84
7.3	MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA ETA EUSKARAREN ERABILERA -----	86
7.3.1	TALDEKIDEEKIN ERABILERA (EGITASMOTIK KANPO) -----	86
7.3.2	BETIKO HARREMAN-SAREEKIN: FAMILIAREKIN, BETIKO LAGUN EUSKALDUNEKIN, LANKIDE ZEIN IKASKIDEEKIN -----	87

7.3.3	ERABILERA OROKORREAN -----	89
7.4	MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA ETA EUSKARAREKIKO ATXIKIMENDUA (MOTIBAZIOA)-----	92
<b>8</b>	<b>MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA HOBETZEKO GAKOAK: PROTAGONISTAK MINTZO -----</b>	<b>93</b>
8.1	ANTOLAKETA ETA KOMUNIKAZIOA-----	93
8.2	MINTZAPRAKTIKAREN BARNEKO DINAMIKA HOBETZEKO GAKOAK -----	96
8.3	HOBETZEKO BESTE PROPOSAMEN BATZUK -----	99

## **ERANSKINAK**

- I. ERANSKINA: MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAK ZENBAKITAN (2004/2005 – 2008/2009):  
DIMENTSIOA, SEGMENTAZIOA, SARBIDEA ETA JOERAK TXOSTENA
- II. ERANSKINA: MINTZA EGUNA. GASTEIZ 09-06-06. BEHAKETA TXOSTENA
- III. ERANSKINA: MINTZAPRAKTIKA TALDE NATURALAK. TALDE-ELKARRIZKETEN AZTERKETA  
TXOSTENA
- IV. ERANSKINA: MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAK, 2010. BIDELAGUN, BDELARI ETA BDELARI  
OHIEI INKESTAK. MAIZTASUNAK ETA GURUTZAKETAK TXOSTENA
- V. ERANSKINA: MINTZAPRAKTIKAREN INGURUKO DISKURTSOEN AZTERKETA. EZTABAIDA  
TALDEAK TXOSTENA

# ( SARRERA )

Ikerketa honen helburua Mintzapraktika egitasmoaren eraginkortasuna neurtzea da, eta, horretarako, metodologia ildo eta teknika ezberdinak baliatu ditugu, ikerketa bere osotasunean aztertu asmotan. Metodologia oharren atalean aurkeztuko dugun bezala, hainbat ikerketa-lerro jarri ditugu abian. Txosten honetan aurkeztuko duguna, Mintzapraktika egitasmoaren eraginkortasuna neurtzeko ikerketa osoaren emaitza da, ikerketa-lerro guztiena, alegia. Hala bada, emaitzen txosten nagusia da honako hau.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Aztiker S.L.ren bezero-ikertzaile harremanaz harago, Mintzapraktika egitasmoaren eraginkortasuna neurtzeko ikerketaren zuzendaritza bateratua izatea adostu da, eta, horretarako, jarraipen lan taldea eratu da, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren, Topagunearen, AEK-ren eta Aztikerren parte hartzearekin. Ikerketaren diseinua eta urratsak guztien ekarpenekin osatu eta aberastu ditugu. Interesguneei behar bezalako erantzuna emateko, 2009ko urriaren 1ean diseinuaren berregokitzapena aurkeztu du Aztikerrek, eta, denon oniritziarekin, horrekin egin du aurrera ikertzaile taldeak.

Txosten honek honako atal hauek ditu: sarrera eta metodologia oharrak, lehen-lehenik, ondoren ikerketaren mamia jasotzen duten 8 atal nagusiak, eta, bukatzeko, ikerketa-lerro bakoitzeko eranskinak. Metodologia oharretan ikerketaren helburuak eta diseinu orokorra zehazten eta xeheki azaltzen dira. Lehenbiziko atalean, mintzapraktikaren dimentsio nagusiak, parte hartzaileen profila, eta egitasmoaren bilakaera aztertzen dira. Bigarrenean, egitasmoaren deskribapenerako zenbait datu osagarriengan jartzen da arreta, egitasmoaren berri izateko moduan, teknologia berrien erabileran, eta aparteko jarduera osagarriek betetzen duten funtzioan. Hirugarrenean, egitasmoan hasteko eta aritzeko motibazioen gaiari heltzen zaio. Laugarrenean, parte hartzaileen asebetetzeari erreparatzen zaio. Bosgarrenean, egitasmoa uzteko arrazoiak eta iraupena aztertzen dira, besteak beste. Seigarrenean, gazteen parte hartzeari buruzkoak aletzen dira. Zazpigarrenean mintzapraktikaren eragina neurtzen da hainbat alorretan, gaitasunean, euskaldunen harreman sarean, erabileran, eta motibazioan hain zuzen. Bukatzeko, zortzigarren atalean, egitasmoa hobetzeko proposamenen bilduma xumea aurkezten da. Eranskinetan barne biltzen dira ikerketaren korpua osatzen duten txosten guztiak.

Aurkezpen atal honekin bukatzeko, gure eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiegu ikerketa honetan bidelari eta bidelagun izan ditugun eragile eta pertsona guztiei. Bereziki, jarraipen lan taldea osatu duten Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, AEK-ri, eta Topaguneari, elkarlanerako erakutsi duten prestutasunagatik. Neurri berean eskertu nahi ditugu ikerketa honetan parte hartu duten adituak, talde naturalak, inkestatu guztiak, eta eztabaida taldeetako partaideak. Euren ekarpenik edo erantzunik gabe ezinezkoa litzateke inolako ezagutza berririk ekoiztea. Gure eskerrik onena erakutsi nahiko genieke, halaber, mintzapraktika egitasmoko koordinatzaile eta dinamizatzaileei, uneoro eskaini diguten laguntzagatik. Guztion ahalegin bateratuaren emaitza da *Mintzapraktika egitasmoaren eraginkortasuna neurtzen 2010* izenburutzat duen ikerlana.

# { 0 METODOLOGIA OHARRAK }

## 0.1 IKERKETAREN HELBURUAK

Honela formulatzen genituen ikerketa-egitasmoan ikerketa honen helburuak:

***Ikerketaren xede nagusia Mintzapraktika egitasmoaren eraginkortasuna neurtzea izanik, honako ikergaiak argitzea du helburu:***

- *Mintzapraktika egitasmora hurbiltzen diren bidelari zein bidelagunen **profila eta biztanleria osoarekiko ezaugarri bereizgarriak** ezagutzea.*
- *Mintzapraktika egitasmora lehen aldiz datozenean, herritarren **motibazio zein aurreikuspenak** ezagutzea.*
- *Parte hartzaileek euskararen **ezagutzan izandako aldaketak** aztertzea<sup>1</sup>.*
- *Parte hartzaileek euskararen **erabileran izandako aldaketak** aztertzea.*
- *Parte hartzaileek euskararen inguruko **motibazioetan izandako aldaketak** aztertzea.*
- *Mintzapraktika egitasmoak **euskarazko harreman-sareak** trinkotzen zenbateraino laguntzen duen aztertzea.*
- *Bidelari batzuen ibilbidea beste batzuen baina luzeagoa izatean eragina duten **faktoreak** aztertzea.*
- *Bidelari zein bidelagunen **bizipenak eta iritziak** ezagutzea.*

*Horrez gain, Mintzapraktika egitasmoa **hobetzeko baliagarria izan daitekeen informazio** oro eskuratzea ere helburu izango dugu ikerketa honetan.*

---

<sup>1</sup> Euskararen ezagutzan, erabileran eta motibazioetan izandako aldaketak, noski, parte hartzaile beraien hautematean oinarrituta aztertuko ditugu.


## 0.2 IKERKETAREN DISEINU OROKORRA

Helburu horien zerbitzura planteatu dugu ikerketa-egitasmoko diseinu orokorra. Hasiera-hasieratik, hainbat ikerketa lerro proposatu ditugu metodo eta teknika kualitatibo zein kuantitatiboak uztartuz. Ikerketak aurrera egin ahala, hasierako diseinuan moldaketa batzuk egin ditugu (aurreikusitako elkarrizketa sakonen kopurua 3tik 5era igoz, talde naturaletako dinamikak 6tik 3ra jaitsiz, eta bidelari ohientzat aurreikusita ez zegoen telefono bidezko inkesta eginez).

Hurrengo orriko irudian, ikerketa garatzeko landutako ikerketa lerroak eta horien arteko uztarketa irudikatzen dugu. Labur-labur azalduta:

- Metodologia behatzaile-parte-hartzailea erabilita Mintza Egunaren gaineko behaketa egin dugu, gaiarekiko lehenbiziko hurbilpena egiteko, eta intereseko gaiak zein izango diren definitzen laguntzeko (hurrengo ikerketa faseetan).
- Metodologia kualitatiboen eremuan, gaiaren inguruko ezagutza duten 5 adituri elkarrizketa sakona egin diegu, hiru talde-elkarrizketa egin ditugu mintzapraktika talde naturaletan, eta lau eztabaida talde egitasmoko kide erreal zein potentzialekin. Elkarrizketa sakonek ikerketako hurrengo urratsak prestatzeko informazio kalitatezkoa eskaini digute. Talde naturaletan, aurrekoaz gain, funtzionamendu egokirako gakoak identifikatu ditugu. Eztabaida taldeetan, berriz, arreta jarri dugu funtzionamendu egokia eragozten duten faktoreetan, eta, bereziki, egitasmoa uzteko arrazoietan eta gazteen parte hartzean sakondu dugu.
- Metodologia kuantitatiboen eremuan, alde batetik, Mintzapraktika egitasmoaren dimentsioaren eta bilakaeraren gaineko azterketa egin dugu, fenomenoaren lehenbiziko argazki zehatza eman diguna, eta, bestetik, inkesta bana egin diegu bidelagunei, bidelariei eta bidelari ohiei, ikerketaren helburuetarako funtsezkoak diren hainbat gairen inguruko informazio baliotsua eskaini dizkigutenak.

Ondorengo ataletan, lerro bakoitzari buruzko oinarritzko xehetasun tekniko eta metodologikoak azalduko ditugu.





## **0.3 [KUANTI-I]: 2004/2005-2008/2009** **IKASTURTEEI BURUZKO ZEHARKAKO** **ITURRIEN LANKETA ESTATISTIKOA (PARTE** **HARTZAILEAK ETA UDALERRIEN EZAUGARRI** **SOZIODEMOGRAFIKOAK AINTZAT HARTUTA)**

KUANTI-I: 2004/2005-2008/2009 IKASTURTEEI BURUZKO  
ZEHARKAKO ITURRIEN LANKETA ESTATISTIKOA (PARTE  
HARTZAILEAK ETA UDALERRIEN EZAUGARRI  
SOZIODEMOGRAFIKOAK AINTZAT HARTUTA)

***Mintzapraktika egitasmoak zenbakitan (2004/2005 –  
2008/2009): dimentsioa, segmentazioa, sarbidea eta  
joerak*** (Txostena I. eranskinean)

(2009ko maiatza-ekaina)

Ikerketa-lerro honen bidez, aztertutako fenomenoari lehen hurbilpen kuantitatiboa egin nahi izan diogu 2004/2005 eta 2008/2009 bitarteko ikasturteetako zeharkako iturrien lanketaren bidez. Zehazki, parte hartzaile kopuruak eta udalerrien ezaugarri sozio-demografikoak hartu ditugu aintzat ustiaketa honetan.

### **0.3.1 ITURRIAK**

Hona hemen ikerketa-lerro honetarako erabilitako informazio iturriak:

- Mintzapraktika egitasmoari buruzko oinarritzko datuak Topaguneak jarri ditu gure esku. Oinarri horren gainean, AEK-k hainbat datu eguneratu eta zehaztu ditu, baita gure esku jarri ere.
- Biztanleriari buruzko datuak INEtik hartu ditugu (2008ko erroldako datuak).
- Hizkuntza gaitasunari buruzko datuak:
  - Araba (Trebiñu gabe), Bizkaia (Villaverde Turtzioz gabe) eta Gipuzkoa: 2006ko biztanleria estatistikak (EUSTAT).
  - Nafarroa Garaia: 2001ko zentsua (IEN).

### **0.3.2 LURRALDE EREMUAK**

Ikerketa honen lurralde eremua Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Nafarroa Garaiak osatzen dute.

Lurralde eremu horren baitan, 97 udalerritan garatu dira Mintzapraktika egitasmoak 2008/2009 ikasturtean. Udalerrri horiek guztiek osatzen duten eremuari **Mintzaldea** izena jarri diogu.

Mintzapraktika egitasmoaren eragin-eremua aldatu egiten da egitasmotik egitasmora: batzuetan udalerrria da, beste batzuetan eskualdea, eta bakar batzuetan auzoa edo zonaldea (Bilboko kasua dugu hori). Horiek horrela, kudeatzaileek erabiltzen dituzten lurralde irizpideak hartu ditugu guk ere erreferentzia gisa.

### 0.3.3 SAILKAPENAK

Honako sailkapen hauek erabili ditugu datuak ustiatzeko:

- KUDEATZAILEAK:

- **Euskara Elkartek.**
- **AEK.**
- **Udalak.**
- **Bestelakoak.** Honako hauek bildu ditugu sail honetan: IKA (Oion), Maizpide Euskaltegia (Lazkao), Urtxintxa (Uribe Kosta) eta Pasaiaiko Udal Euskaltegia (Pasaia). Sail honetan sartu dugu, halaber, Asapala elkarteak eta AEK-k elkarrekin kudeatzen duten Santutxuko egitasmoa (Bilbon).

- ANTZINATASUNA:

- **Egitasmo egonkorak:** 2008/2009 ikasturtean indarrean diren egitasmoak, eta horrez gain, aztertutako bost ikasturteetatik gutxienez lautan indarrean izan direnak.
- **Egitasmo berriak:** Azken hiru ikasturteetan sortu eta 2008/2009 ikasturtean indarrean diren egitasmoak (sail honetan bildu ditugu, halaber, 2004/2005 edo 2005/2006 ikasturteetan sortu arren, ondoren *desagertu* eta 2008/2009 ikasturtean *berpiztutako* egitasmoak: Elorrio, Mehatzaldea eta Txorierrri).
- **Itzalitako egitasmoak:** Lehenago indarrean izanagatik, 2008/2009an jarraipenik izan ez duten egitasmoak.

- GUNE SOZIOLINGUISTIKOAK (Udalerrien sailkapena elebidun kopuruaren arabera):

- **1. gunea** (elebidunak <%20,0).
- **2. gunea** (elebidunak %20,0-%50,0).
- **3. gunea** (elebidunak %50,0-%80,0).
- **4. gunea** (elebidunak >%80,0).

- HABITATA (Udalerrien sailkapena biztanle kopuruaren arabera):

- **5.000 biztanle baino gutxiago.**
- **5.000tik 20.000ra.**
- **20.000 baino gehiago.**
- **Hiriburuak.**

- HIZKUNTZA GAITASUNARI BURUZKO SAILKAPENA ETA IZENDAPENA

Lurralde edo eremu jakin baterako sarbide-tasak kalkulatzekoan, Mintzapraktika egitasmoan parte hartzen duten herritarrak hartu ditugu kontuan batetik, eta lurralde edo eremu horretan bizi diren herritarren kopuruak bestetik. Herritarren kopuru absolutuez gain ("guztiak"), hizkuntza gaitasunaren arabera ere aztertu ditugu datuak. Datu horiek, *biztanleriaren estatistiketatik* (EAErako, EUSTAT, 2006) eta *biztanleria zentsutik* (Nafarroako Foru Komunitaterako, IEN, 2001) hartu ditugu. Zehazki, honako hitzunei buruzko datuak hartu ditugu (definizioen oinarria: EUSTAT):

- **Euskaldunak.** Euskara ondo ulertu eta ondo hitz egiteko gai diren herritarrak
- **Elebidun hartzaileak.** euskara nekez edo ongi ulertzen dute, baina ez dute hitz egiten edo nekez hitz egiten dute (EUSTATen izendapenetan *Ia-euskaldunak* deitu ohi zaie herritar hauei, guk *elebidun hartzaile* izendapena hobetsi dugu).

### 0.3.4 BIDELARI ETA BIDELAGUNEN KOPURUEN ESTIMAZIOA

Mintzapraktika egitasmoetan parte hartzen duten herritar guztiei buruzko datuak jatorrizko iturrietan biltzen ziren. Horietan oinarrituta, bidelari eta bidelagunen kopuruak estimatu ditugu.

Estimazio horretarako oinarritzko hipotesi hau erabili dugu: talde bakoitzean, partaide bat bidelaguna izango dela, eta gainerakoak bidelariak. Hipotesi horretan oinarrituta, honako formulen bidez kalkulatu ditugu bidelagunak eta bidelariak:

**Bidelariak**= parte hartzaile guztiak – talde kopurua.

**Bidelagunak**= talde kopurua.

### 0.3.5 SARBIDEA

Sarbideak, fenomeno baten hedaduraz hitz egiteko balio digu. Horrela, gure kasuan, Mintzapraktika egitasmoaren hedadura kalkulatu eta eremuen arteko alderaketak egin ahal izango ditugu. Zehazki, hiru sarbide-tasa kalkulatu ditugu eremu bakoitzerako.

**Mintzapraktika egitasmoaren sarbide orokorra** (15 urtetik gorako herritarrekiko) = mintzapraktika egitasmoetako parte hartzaileak \* 1.000 / 15 urtetik gorako herritarrekiko

**Hego Euskal Herri osorako SARBIDE OROKORRA, 2008/2009 ikasturtean:**

**‰1,2**

(Irakurketa: eremu horretan 1,2 lagun ari ziren mintzapraktika egitasmoetan 15 urtetik gorako 1.000 herritarreko)

**Bidelarien sarbide erlatiboa** (elebidun hartzaileekiko) = bidelariak \* 1000 / elebidun hartzaileak 2006

**Hego Euskal Herri osorako BIDELARIEN SARBIDE ERLATIBOA, 2008/2009 ikasturtean:**

**‰6,3**

(Irakurketa: eremu horretan 6,3 bidelari ari ziren mintzapraktika egitasmoetan 15 urtetik gorako 1.000 elebidun hartzaileko)

**Bidelagunen sarbide erlatiboa** (euskaldunekiko) = bidelagunak \* 1000 / euskaldunak 2006

**Hego Euskal Herri osorako BIDELAGUNEN SARBIDE ERLATIBOA, 2008/2009 ikasturtean:**

**‰0,7**

(Irakurketa: eremu horretan 0,7 bidelagun ari ziren mintzapraktika egitasmoetan 15 urtetik gorako 1.000 euskalduneko)

## 0.4 [KUALI-I]: ELKARRIZKETA SAKONAK ADITUEI (5 ELKARRIZKETA)

KUALI-I: ELKARRIZKETA SAKONAK ADITUEI  
(5 ELKARRIZKETA)

(2009ko ekaina-uztaila)

Ikerketaren hasieran elkarrizketa sakona egin diegu Mintzapraktika egitasmoa ederki ezagutu eta horri buruzko iritzi kualifikatua duten bost laguni, dela gaia lehenagotik ikertu dutelako, dela egitasmoaren garapenean edo kudeaketan ardura zuzena (izan) dutelako. Elkarrizketa horien helburu nagusia ikerlari taldeak egitasmoaren gaineko ezagutza ahalik eta sakonena eskuratzea izan da, batetik interesguneak edo ikergaiak ahalik eta gehien zehazteko, eta, bestetik, metodo aldetik ere zehaztasun handiagoetara iritsi ahal izateko. Elkarrizketa sakonak guztiz baliagarriak izan zaizkigu, bai Mintzapraktika egitasmoko kide zein kide ohiei egin dizkiegun inkestak prestatzeko, bai bidelagun ohi, bidelari ohi, eta gazteekin egin ditugun eztabaida taldeak prestatzeko.

Hona hemen adituen zerrenda kronologikoki ordenatuta:

<b>DIEGO EGIZABAL</b>
HUHEZIKO ikertzailea eta hizkuntzaren didaktikan aditua. Lasarteko Solaskide programaren gaineko ikerketa egin du.
2009-06-01, 10:00etan, ESKORIATZAN (HUHEZI fakultatean)
<b>IKER MARTINEZ DE LAGOS</b>
Topaguneko teknikaria eta Mintzapraktika egitasmoaren garapenean aritua.
2009-06-01, 14:30ean, ABADIÑON (Matienako Kultur Etxean)
<b>ROZIO LUCES</b>
Getxoko Egizuko dinamizatzailea.
2009-06-01, 16:00etan, GETXON (EGIZU elkartean)
<b>EDORTA LOPEZ</b>
AEK-ko praktikatu programaren arduraduna eta Mintzapraktika egitasmoaren garapenean aritua.
2009-06-11, 10:00etan, BILBON (AEK-ko egoitzan)
<b>FERNAN RUIZ</b>
Durangoko Berbaro euskara elkarteko teknikaria eta Mintzapraktika egitasmoaren garapenean aritua.
2009-07-09, 17:00etan, DURANGON (Pinondo Etxean)

## 0.5 [KUALI-II]: TALDE-ELKARRIZKETAK MINTZAPRAKTIKA TALDE NATURALETAN (3 TALDE)

KUALI-II: TALDE-ELKARRIZKETAK MINTZAPRAKTIKA  
TALDE NATURALETAN (3 TALDE)

***Mintzapraktika talde naturalak. Talde-elkarrizketen***  
***azterketa*** (Txostena III. eranskinean)

*(2009ko ekainaren 3tik 10era)*

2008/2009 ikasturtean Mintzapraktika egitasmoan aritu diren taldeen artean 3 aukeratu ditugu. Talde natural gisa izendatu ditugu ikasturtean zehar elkarrekin jardun dutelako. Talde hauetako partaideekin egin ditugu talde-elkarrizketak, 2009ko ekainean, eta, aukeraketarako, honako irizpideak erabili ditugu: kudeatzailea, herrialdea, egitasmoaren antzintasuna, herria eta ingurune soziolinguistikoa. Zehazki, hiru talde hauetara jo dugu:

- Nafarroakoa Atarrabian (Mintzakide, Iruñerria, Topagunea).
- Bizkaikoa Santurtzin (Berbalaguna, Santurtzi, AEK).
- Gipuzkoakoa Arrasaten (Zahar-berri, Arrasate, Topagunea).

Talde naturalekin egindako saio hauek baliagarriak izan zaizkigu bi zereginetarako, alde batetik, bertatik jasotako informazioa helburu ditugun ikergai guztietan sakontzeko interesekoa izan zaigu, eta, bestetik, inkestaren eta eztabaida taldeen diseinua fintzeko eta zehazteko. Izan ere, informazio aberatsa (hipotesi berriak, azterketarako aldagai berriak...) eskaini digute.

### Taldeen ezaugarriak.

Atarrabiako eta Santurtziko taldeak hasi berriak dira, eta Arrasatekoak bizpahiru urte daramatza. Edonola ere, Atarrabian urtebete baino gehiago daramate parte hartzaile gehienek (iaz beste talde batzuetan aritu ziren).

Osaketa aldetik bada ezberdintasunik. Santurtziko taldea orekatua da generoaren ikuspegitik (lau emakumezko eta lau gizonezko), eta besteak baino gazteagoa da (26-39 urte). Ordea, gizonezkoak bakarrik etorri dira. Hizkuntza gaitasunean ere bada berezitasunik. Batek ikasketa prozesua burutu berri du, eta badira bi euskaldun oso EGA dutenak. Bakarra da euskaltegian ikasten ari dena.

Arrasate eta Atarrabiako taldeak homogeneousagoak dira. Emakumeak nabarmen gehiago izaki, bietan bidelagunak gizonezkoak dira. Guztiak 40 urtetik gorakoak dira.

Talde elkarrizketa hauek grabatu egin ditugu, eta entzunaldien ondoren, hustuketa orrietan laburtu eta antolatu ditugu eduki nagusiak. Horiekin hornitu dugu txostena (ikus III. eranskina).

## 0.6 [KUALI-III]: BEHAKETA PARTEHARTZAILEA MINTZA EGUNEAN

### KUALI-III: BEHAKETA PARTEHARTZAILEA MINTZA EGUNEAN

**Mintza eguna. Gasteiz 09-06-06. Behaketa** (Txostena  
II. eranskinean)

(2009ko ekainaren 6an)

Mintza Eguna Gasteizen ospatu da 2009ko ekainaren 6an, larunbatarekin. Behaketa jardunaldiak iraun duen bitartean egin dugu (zazpi ordu pasatxo). Goizeko 11:00etan ailegatu gara Alde Zaharreko frontoira (Villa Suso Plazatik gertu), eta arratsaldeko 18:00ak paseak ziren handik alde egin dugunerako. Irteten azkenekoak izan gara, antolakuntzako kide batzuekin batera.

Bi ikertzaile aritu gara behaketa lanetan. Goizean gure jarrera diskretua izan da. Bazkalordura arte harreman gutxi izan dugu parte hartzaileekin, eta ezaugarri neurgarriak behatu ditugu (kopurua, soslaia, erabilera, etab.). Edozein gisatara, ez gara espioitzan ibili, eta guregana zuzendu direnei naturaltasunez erantzun diegu. Bakarren bati gure zereginaren berri eman diogu (ez dugu ezkutatu nor ginen eta zertan ari ginen).

Bazkalordutik aurrera parte hartzaileekin solasalditxo informalak izan ditugu, betiere egoera behartu gabe, eta, horietan, aspektu subjektiboak jorratu ditugu (motibazioak, bizipenak, asebetetzea, etab.). Orduan agerian utzi dugu zertarako etorri garen, geure buruak aurkeztu ondotik. Festa giroak baimentzen zuen neurrian saiatu gara intereseko gaietan sakontzen, inor deseroso senti ez zedin zainduz. Gutxienez, honako hauekin hitz egin dugu (solasaldi gehiago izan ditugu, baina motzak izan dira eta horien ekarpenak ez ziren dira hain esanguratsuak).

Taula honetan elkarrizketatutako pertsonak kronologikoki daude ordenatuta.

Kodea	Kategoria	Herria
BD1	Bidelaria (ingeles ikaslea)	Erromo
BD2	Bidelaria (Eusko Jaurlaritzako langilea)	Gasteiz (Extremadura)
BL1	Bidelaguna (Filologian lizentziatua)	Mungia
BD3	Bidelaria	Gasteiz
BL2	Bidelaguna (EJ-ko langilea)	Gasteiz (Ondarroa)
BD4	Bidelaria, EJ-ko langile ohia (jubilatua)	Gasteiz
BD5	Bidelaria	Gasteiz
BL3	Bidelaguna	Gasteiz
BL4	Bidelaguna (IKA-ko irakaslea)	Gasteiz (Katalunia)
BL5	Bidelaguna (sustatzailea)	Iruñea (Sakana)
BD6	Bidelaria	Iruñea
BD7	Bidelaria	Iruñea
BL6	Bidelaguna	Zizur
D1	Dinamizatzailea	Santutxu
D2	Dinamizatzailea	Gasteiz
D3	Dinamizatzailea	Gasteiz
D4	Dinamizatzailea	Gernika
D5	Dinamizatzailea	Iruñerria
K1	Koordinatzailea	Atarrabia

Datuak eta inpresioak biltzeko ez dugu agerian ezer eraman, esan bezala, ez nabarmentzen saiatu gara. Aztertu beharreko gaiekin propio prestatutako gidoia eraman dugu, behar izanez gero kontsultatzeko (buruz genekien), baita libreta txiki bat ere oharrak hartzeko. Jardunaldia bukatutakoan bi behatzaileok tarte bat hartu dugu bildutako informazioa kontrastatu eta bateratzeko.

Atal honekin bukatzeko, erabilera neurtzeko erabili dugun metodologiari buruzko aipamen txikia egingo dugu. Erabileraren neurketa hiru alditan egin dugu, hamaiketakoan, kalejiran eta bazkal ondorenean. Guztira elkarrizketetan ari ziren 147 solaskide neurtu ditugu. Horien artean gaztelaniaz zenbat ari ziren zenbatuta atera ditugu emaitzak.

## 0.7 [KUANTI-II eta KUANTI-III]: 2009/2010 EGITASMOKO PARTE HARTZAILEEI INKESTA AUTOAPLIKATUA ETA BIDELARI OHIEI TELEFONO BIDEZKO INKESTA

KUANTI-II: 2009/2010 EGITASMOKO PARTE  
HARTZAILEEI INKESTA AUTOAPLIKATUA

**Mintzapraktika egitasmoa, 2009/2010.**  
**Bidelagun, bidelari eta bidelari ohiei inkestak.**  
**Maiztasunak eta gurutzaketak** (Txostena IV.  
eranskinean)

(2009ko azaroaren 16tik abenduaren 23ra)

KUANTI-III: BIDELARI OHIEI TELEFONO BIDEZKO  
INKESTA

**Mintzapraktika egitasmoa, 2009/2010.**  
**Bidelagun, bidelari eta bidelari ohiei inkestak.**  
**Maiztasunak eta gurutzaketak** (Txostena IV.  
eranskinean)

(2009ko azaroaren 23tik abenduaren 4ra)

### 0.7.1 **BAT, BI, HIRU: DISEINU AMANKOMUN BAT, BI LANDA LAN,** **HIRU INKESTA BATERAGARRI**

Mintzapraktika egitasmoaren berri jakiteko, besteak beste, inkestak egin ditugu bidelagun, bidelari, eta bidelari ohien artean. Hori guztiak, diseinu orokor baten baitan gauzatu ditugu. Horrela, hiru inkesten emaitzak bateragarri eta alderagarri egiteko moduko galdesortak egin ditugu.

Bi landa lan egin ditugu. 2009/2010 ikasturteko bidelagun zein bidelariei inkesta autoaplikatua egin diegu. Bidelari ohiei, berriz, telefono bidezkoa.

Kolektibo bakoitzarentzat, azkenik, galdesorta berezia prestatu dugu. Hori bai, ahalik eta kasu gehienetan galderak alderagarriak izan zitezen ziurtatuz.

<b>UNIBERTSOA:</b>	<b>N</b>	<b>Lagina (n)</b>	<b>Akats tartearen estimazioa (*)</b>	<b>Ikerketa teknika</b>	<b>Galdesorta</b>
Bidelagunak 2009/2010	610	441	±%2,5	<b>INKESTA AUTOAPLIKATUA</b>	Ikus gehigarria
Bidelariak 2009/2010	1.981	1.331	±%1,6		Ikus gehigarria
<b>Parte hartzaileak 2009/2010</b>	<b>2.591</b>	<b>1.772</b>	<b>±%1,3</b>		<b>Aurreko biak</b>
Bidelari ohiak (lehengo urtekoak)	975	203	±%6,2	<b>TELEFONO BIDEZKO INKESTA</b>	Ikus gehigarria

(\*) %95,5eko konfiantza mailan, eta  $p=q=50,0$  hipotesirik kontrakoarentzat.

Jarrian, hiru inkesta horien oinarriko ezaugarri teknikoak banan bana aurkeztuko ditugu.

## **0.7.2 2009/2010 IKASTURTEKO BIDELAGUNEI INKESTA AUTOAPLIKATUA**

### **IKERKETA TEKNIKA**

Inkesta autoaplikatua unibertso osoari.

### **UNIBERTSOA, LAGINA ETA AKATS TARTEAREN KALKULUA**

- **UNIBERTSO TEORIKOA:** 2009/2010 ikasturtean Mintzapraktika egitasmoan diharduten bidelagun guztiak.
- **UNIBERTSOAREN OPERATIBIZAZIOA:** kudeatzaileek 2009ko azaroan (urria amaiera eta azaroa erdialdea bitarte) eman zizkiguten datuetan, ordurako osatuta zeuden taldeetan zeuden bidelagunak: **610 bidelagun**.
- **LAGINAREN TAMAINA:** **441 bidelagun**.
- **AKATS TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria):**  $\pm 2,5$  lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan, eta  $p=q=50,0$  hipotesirik kontrakoentzat.
  - Oharra: Hainbat kasutan, 2009/2010 ikasturteko **parte hartzaile guztiei (bidelagun zein bidelari) buruzko datuak** eskaintzen ditugu txostenean. Kasu horietan, unibertso operatibo osoa 2.591 lagunek osatzen dute, eta, lagina berriz, 1.772k. Horiek horrela,  **$\pm 1,3$ ko** akats tartea dugu datu orokor horietarako, %95,5eko konfiantza mailan, eta  $p=q=50,0$  hipotesirik kontrakoentzat.

### **GALDETEGIAK**

Ikus bidelagunen galdesorta IV. eranskineko txosteneko gehigarrian.

### **LANDA LANA**

Landa lana, **2009ko azaroaren 16tik abenduaren 23ra** bitarte egin dugu (biak barne). Egitasmoa dinamizatzaileak izan ditugu bitartekari. Galdesortak banatu eta betetzeko moduari buruzko argibideak emateaz bat, beren esku utzi ditugu talde bakoitzera bideratu beharreko galdesortak (bidelagunentzako hainbeste, bidelariarentzako hainbeste). Ezinbesteko lotura lana egin dute, eta haiei zor diegu hainbeste erantzun jaso izana. Parte hartzaileen harrera ere goraipatzekoa izan da. Komunikazioa lana egoki egin da, eta, horri esker, bidelagun zein bidelariak ikerketaren garrantziaz jabetzea lortu dugu. Ikerketa ongi egitea mesederako dela barneratu dute, alegia.

## **0.7.3 2009/2010 IKASTURTEKO BIDELARIEI INKESTA AUTOAPLIKATUA**

### **IKERKETA TEKNIKA**

Inkesta autoaplikatua unibertso osoari.



## **UNIBERTSOA, LAGINA ETA AKATS TARTEAREN KALKULUA**

- **UNIBERTSO TEORIKOA:** 2009/2010 ikasturtean mintzapraktika egitasmoetan diharduten bidelari guztiak.
- **UNIBERTSOAREN OPERATIBIZAZIOA:** kudeatzaileek 2009ko azaroan (urria amaiera eta azaroa erdialdea bitarte) eman zizkiguten datuetan, ordurako osatuta zeuden taldeetan zeuden bidelariak: **1.981 bidelari**.
- **LAGINAREN TAMAINA: 1.331 bidelari.**
- **AKATS TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria):**  $\pm\%1,6$  lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan, eta  $p=q=\%50,0$  hipotesirik kontrakoarentzat.
  - Oharra: Hainbat kasutan, 2009/2010 ikasturteko **parte hartzaile guztiei (bidelagun zein bidelari) buruzko datuak** eskaintzen ditugu txostenean.. Kasu horietan, unibertso operatibo osoa 2.591 lagunek osatzen dute eta lagina, berriz, 1.772k. Horiek horrela,  **$\pm\%1,3$ ko** akats tartea dugu datu orokor horietarako, %95,5eko konfiantza mailan, eta  $p=q=\%50,0$  hipotesirik kontrakoarentzat.

## **GALDETEGIAK**

Ikus bidelarien galdesorta IV. eranskineko txosteneko gehigarrian.

## **LANDA LANA**

Landa lana, **2009ko azaroaren 16tik abenduaren 23ra** bitarte egin dugu (biak barne). Egitasmoa dinamizatzaileak izan ditugu bitartekari. Galdesortak banatu eta betetzeko moduari buruzko argibideak emateaz bat, beren esku utzi ditugu talde bakoitzera bideratu beharreko galdesortak (bidelagunentzako hainbeste, bidelarietzako hainbeste). Ezinbesteko lotura lana egin dute, eta haiei zor diegu hainbeste erantzun jaso izana. Parte hartzaileen harrera ere goraiatzekoa izan da. Komunikazioa lana egoki egin da, eta, horri esker, bidelagun zein bidelariak ikerketaren garrantziaz jabetzea lortu dugu. Ikerketa ongi egitea mesederako dela barneratu dute, alegia.

### ***0.7.4 BIDELARI OHIEI INKESTA TELEFONO BIDEZ***

## **IKERKETA TEKNIKA**

Telefono bidezko inkesta lagin bati.

## **UNIBERTSOA, LAGINA ETA AKATS TARTEAREN KALKULUA**

- **UNIBERTSO TEORIKOA:** 2008/2009 ikasturtean Mintzapraktika egitasmoan jardun baziren ere, 2009/2010 ikasturtean egitasmoa hurbildu ez ziren bidelari ohiak.
- **UNIBERTSOAREN ESTIMAZIOA:** ikerketa honetako hainbat datu kontuan izanda, honakoa da bidelari ohien unibertsoaren estimazioa: **750 bidelari ohi<sup>2</sup>**.
- **LAGINAREN TAMAINA: 203 bidelari ohi.**

---

<sup>2</sup> Ikus 1.3. ataleko estimazioa.

- **LAGINKETARAKO PROZEDURA: komenientziatzko laginketa** (*AEK* eta *Topaguneak* geure esku jarritako telefonoen gainean zorizko hautaketa eginda).
- **AKATS TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria):**  $\pm 6,0$  lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan, eta  $p=q=50,0$  hipotesirik kontrakoarentzat.

## **GALDETEGIAK**

Ikus bidelari ohien galdesorta IV. eranskineko txosteneko gehigarrian.

## **LANDA LANA**

Landa lana, **2009ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra** bitarte egin genuen (biak barne), CATI aplikazio baten laguntzaz.

### **0.7.5 SAILKAPENAK ETA BIRKODETZEAK ALDAGAI INDEPENDENTEETARAKO (B, C, D ETA E ATALETAKO TAULETARAKO)**

IV. eranskineko txosteneko A, B, C eta D ataletan inkestaren emaitzak sailez sail aurkezten ditugu, hainbat aldagai independenteren arabera. Jarraian doaz aldagai independenteen aurkezpena eta horien inguruko azalpenak (holakorik behar den kasuetan).

## **SEXUA**

- Emakumea
- Gizona

## **ADINA**

- 18-34 urte
- 35-49 urte
- 50-64 urte
- 65 urte edo gehiago

## **IKASKETA MAILA**

- Oinarrizkoak
- Ertainak
- Unibertsitate ikasketak

Sailkapen hau, inkestan euren ikasketa-maila zehatzari buruz emandako erantzunak bilduz sortu dugu. Zehazki, eta azpi-laginen gutxieneko neurriak ziurtatze aldera, honela birkodetu ditugu jatorrizko erantzunak:

<b>Ikasketa maila</b>	<b>Aldagai birkodetua</b>
Batere ez	<b>Oinarrizkoak edo batere ez</b>
Lehen mailakoak/OHO	
Oinarrizko Batxilergoa / (DBH)	
Lanbide Heziketa 1 (LH1)	
Lanbide Heziketa 2 (LH2) / Bigarren gradu ikasketak	<b>Ertainak</b>
Goi mailako batxilergoa	
BBB / UBI / LOGSE batxilergoa	
Hizkuntzak	
Goi Mailako Lanbide Heziketa (ingeniaritzak eta arkitekto tekn.)	<b>Unibertsitate ikasketak</b>
Goi mailako ikasketak (diplomaturak)	
Goi ikasketak (lizentziaturak)	
Doktoretza/ masterrak	

## **JARDUERA NAGUSIA**

- Lanean
- Langabeak
- Ikasleak

Sailkapen hau, inkestan euren jarduera nagusiari buruz emandako erantzun zehatzak bilduz sortu dugu. Zehazki, eta azpi-laginen gutxienerako neurriak ziurtatze aldera, honela birkodetu ditugu jatorrizko erantzunak:

<b>Jarduera nagusia</b>	<b>Aldagai birkodetua</b>
Bere kontura ari da lanean	<b>Lanean</b>
Kooperatibista da	
Besteren kontura ari da lanean	<b>Langabeak</b>
Langabea da	
Ikaslea da	<b>Ikasleak</b>
Ikaslea da, eta lanean ere ari da	
Etxeko lanetan aritzen da	<b>Bestelakoak</b>
Pentsionista da	
Bestelakoak	

## **HERRIALDEA**

- Araba
- Bizkaia
- Gipuzkoa
- Nafarroa Garaia

## **UDALERRI TAMAINA**

- 5.000 biztanle baino gutxiago.
- 5.000tik 20.000ra.
- 20.000 baino gehiagoko udalerriak.
- Hiriburuak.

### **GUNE SOZIOLINGUISTIKOAK (UDALERRIEN SAILKAPENA ELEBIDUN KOPURUAREN ARABERA)**

- **1. gunea** (elebidunak <%20,0).
- **2. gunea** (elebidunak %20,0-%50,0).
- **3. gunea** (elebidunak %50,0-%80,0).
- **4. gunea** (elebidunak >%80,0).

### **AINTZINATASUNA (ZENBATGARREN URTEA MINTZAPRAKTIKAN)**

- 1. urtea
- 2. urtea
- 3. urtea
- 4. urtea edo gehiago

### **PARTE HARTZE MOTA**

- Bidelagunak
- Bidelariak
- Bidelari ohiak

### **EGITASMOA (KUDEATZAILEAREN ARABERA):**

- **Euskara Elkarteak.**
- **AEK.**
- **Bestelakoak.** Honako hauek bildu ditugu sail honetan: Udalek kudeatutako egitasmoak; eta horiez gain: IKA (Oion), Maizpide Euskaltegia (Lazkao), Urtxintxa (Uribe Kosta) eta Pasaiaiko Udal Euskaltegia (Pasaia). Sail honetan sartu dugu, halaber, Asapala elkarteak eta AEK-k elkarrekin kudeatzen duten Santutxuko egitasmoa (Bilbon).

## 0.8 [KUALI-IV]: EZTABAIDA TALDEAK (4 TALDE)

### KUALI-IV: EZTABAIDA TALDEAK (4 TALDE)

***Mintzapraktikaren inguruko diskurtsoen azterketa. Eztabaida taldeak***  
(Txostena V. eranskinean)

*(2010eko urtarrilaren 19tik urtarrilaren 28ra)*

4 Eztabaida taldeak 2010eko urtarrilaren 19tik 29ra egin ditugu, eta, aurreikusi bezala, herrialde bakoitzeko bat egin dugu (ikus hurrengo orriko taula).

- Arabakoa Gasteizen.
- Bizkaikoa Bilbon.
- Gipuzkoakoa Donostian.
- Nafarroakoa Atarrabian.

Egitasmoa uzteko arrazoietan sakontzeko, bi eztabaida talde egin ditugu, bata bidelari ohiekin, eta bestea bidelagun ohiekin. Gazteen parte hartzearen, edo parte hartze ezaren arrazoietan sakontzeko, berriz, beste bi eztabaida talde egin ditugu, bata "euskaldun oso ez diren" gazteekin (elebidun hartzaileak edo ia euskaldunak), eta bestea gazte euskaldun osoekin.

Parte hartzaile tipologia zehatz batzuk aukeratuta osatu ditugu taldeak. Horretarako, inkestaren premiazko ustiaketa egin dugu. Taldekideen aukeraketan, honako aldagai hauen pisua ahalik eta gehien orekatzen eta doitzen saiatu gara: herriaren tamaina, kudeatzailea, sexua eta adina.

Era berean, askotariko diskurtsoak eta aniztasuna behar bezala islatzeko, asetasun, motibazio eta egitasmoarekiko balorazio ezberdinek tokia izateko ahalegin berezia egin dugu.

Eztabaida taldeak grabatu egin ditugu, eta, transkribatu ondoren, hustuketa orrietan laburtu eta antolatu ditugu eduki nagusiak. Horiekin hornitu dugu txostena (ikus V. eranskina).

Jarraian eztabaida taldeen xehetasun teknikoak aurki daitezke:

<b>A1. BIDLARI OHIAK</b>					
HERRIALDEA	HERRIAREN TAMANAINA	KUDEATZAILEA	SEXUA	ADINA	EGITASMOAN PARTE HARTZEA
HOMOGENEOA	HETEROGENEOA	HETEROGENEOA	HETEROGENEOA ETA DESOREKATUA	HETEROGENEOA	HETEROGENEOA
<b>BIZKAIA</b>	Bilbo Ezkerraldea Getxo Uribe-Kosta	Topagunea AEK Bestelakoak	3 emakumezko 2 gizona	25-72	Jarrera kritiko eta balorazio ezkorren presentzia ziurtatzen ahalegindu gara. <sup>3</sup>

<b>A2. BIDELAGUN OHIAK</b>					
HERRIALDEA	HERRIAREN TAMANAINA	KUDEATZAILEA	SEXUA	ADINA	EGITASMOAN PARTE HARTZEA
HOMOGENEOA	HETEROGENEOA	HETEROGENEOA	HETEROGENEOA ETA DESOREKATUA	HOMOGENEOA (MODA)	
<b>ARABA</b>	Gasteiz <sup>4</sup>	Topagunea	4 emakumezko 1 gizona	25-45	

<b>B1. GAZTEAK (18-30) "EUSKALDUN OSOAK EZ DIRENAK"<sup>5</sup></b>					
HERRIALDEA	HERRIAREN TAMANAINA	KUDEATZAILEA	SEXUA	ADINA	EGITASMOAN PARTE HARTZEA
HOMOGENEOA	HETEROGENEOA	HETEROGENEOA	HETEROGENEOA ETA OREKATUA	HOMOGENEOA	HETEROGENEOA ETA OREKATUA
<b>NAFARROA</b>	Iruñerria Lizarraldea Sakana	Topagunea AEK	3 emakumezko 3 gizona	18-30	Bidelari gazteak eta egitasmoan parte hartzen ez duten gazteak <sup>6</sup>

<b>B2. GAZTEAK (18-30) "EUSKALDUN OSO DIRENAK"</b>					
HERRIALDEA	HERRIAREN TAMANAINA	KUDEATZAILEA	SEXUA	ADINA	EGITASMOAN PARTE HARTZEA
HOMOGENEOA	HETEROGENEOA	HETEROGENEOA	HETEROGENEOA ETA DESOREKATUA	HOMOGENEOA	HETEROGENEOA ETA OREKATUA
<b>GIPUZKOA</b>	Donostia Lasarte Irun Zarautz	Topagunea AEK	5 emakumezko 2 gizona	18-30	Bidelagun gazteak eta egitasmoan parte hartzen ez duten gazteak

<sup>3</sup> Balorazio ezkorrena zutenek ez dute parte hartu nahi izan (6koa zen notarik baxuena, baina oso gutxi ziren). Hala ere, bizipen positiboak zein negatiboak azaleratu dira, eta alde horretatik taldea orekatua izan da.

<sup>4</sup> Gure esku jarritako hautagai guztiekin saiatu gara, baina ezinezkoa izan da Gasteiz kanpoko inor bertaratzea.

<sup>5</sup> Kategoria honen barne sartzen dira: "Ia euskaldunak", euskalduntze prozesua amaitu ez duten ikasleak, eskolan euskaraz ikasiagatik beren gaitasuna galdu dutenak eta euskaraz nekez aritzen direnak, beren euskara maila hobetzeko premia sentitzen duten gazteak, etab.

<sup>6</sup> Ezinezkoa izan zaigu egitasmoan ez dabilen Iruñerriatik kanpoko inor ekartzea, baina ari ez direnen presentzia bermatu dugu.

# 1 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA: LEHEN HURBILPENA ZENBAKIEN BIDEZ

## 1.1 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN DIMENTSIO NAGUSIAK

### 1.1.1 **MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA ZENBAKITAN (2008/2009)**

2008/2009<sup>7</sup> ikasturteko Mintzapraktikako datuei erreparatuta, hona hemen nabarmentzekoak:

- Guztira **64 egitasmo** dira Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian.
- Egitasmo horiek **97 udalerritan** garatu dira aipatu ikasturtean. Udalerrri horietan bizi dira Hego Euskal Herriko 15 urtetik gorako **herritarren ia hiru laurdenak (%73,9)**. Gainerako laurdena, Mintzapraktika egitasmorik izan ez den udalerrietan bizi da.
- **562 talde** aritu dira 2008/2009 ikasturtean Mintzapraktika egitasmoan.
- **2.840 lagun** aritu dira 2008/2009 ikasturtean Mintzapraktika egitasmoan. Horietako **2.278 inguru (%80) bidelariak** izan dira, eta **562 inguru, bidelagunak (%20)**. (Ikus metodologia oharretan bidelari eta bidelagun kopuruen estimazioa).
- Taldeen **batez besteko neurria, 5,1ekoa** da. Hots, batez beste bost lagun biltzen dira mintzapraktika taldeetan.

Bestalde, parte hartzaile gehienek talde bakarrean parte hartzen dutela esan behar da. Hala ere, badira parte hartzaile batzuk (bidelagunen %16,2 eta bidelarien %12,6) bi talde edo gehiagotan parte hartzen dutenak<sup>8</sup>.


<sup>7</sup> *Mintzapraktika egitasmoa zenbakitan* ikerketa lerroa garatu genuenean, 2008/2009 ikasturteari buruzkoak ziren eskura genituen azken datuak.

<sup>8</sup> Informazio gehiago *Mintzapraktika egitasmoa, 2009/2010. Bidelagun, bidelari eta bidelari ohiei inkestak. Maiztasunak eta gurtzaketak* txostenean (IV. eranskina).

## 1.1.2 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA LURRALDEAN


Azter ditzagun 2008/2009 ikasturteko parte hartzaileen datuak herrialdea, udalerrri neurria eta gune soziolinguistikoa aintzat hartuta.

### 1.A. Grafikoa: Mintzapraktika Egitasmoko parte hartzaileak, herrialdearen arabera, 2008/2009. (%)




**Oharra:** egitasmoetako parte hartzaileei buruzko datuak Topaguneak eta AEKK jarri dituzte gure esku.

### 1.B. Grafikoa: Mintzapraktika Egitasmoko parte hartzaileak, udalerrriaren neurriaren (Habitataren) arabera, 2008/2009. (%)



**Oharra:** egitasmoetako parte hartzaileei buruzko datuak Topaguneak eta AEKK jarri dituzte gure esku.

### 1.C. Grafikoa: Mintzapraktika Egitasmoko parte hartzaileak, udalerrrien ezaugarri soziolinguistikoen arabera, 2008/2009. (%)



**Oharra:** egitasmoetako parte hartzaileei buruzko datuak Topaguneak eta AEKK jarri dituzte gure esku.

Egitasmoa zein tokitan abian den begiratuta, hona hemen parte hartzaileen **herrialdekako** osaketa:

- Bizkaian dihardute parte hartzaileen ia erdiak (%46,7)
- Gipuzkoan %28,8k
- Araban %13,8k
- Nafarroa Garaian %10,5ek
- Euskal Herrikanpo (Castro Urdialesen zehazki) dihardute %0,2k.

Egitasmoa abian den **udalerrien neurriak** kontuan hartuz gero, hona hemen banaketa:

- 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan garatzen diren egitasmoetan aritu dira %13,0a.
- 5.000-20.000 biztanleko herrietan, %31,2.
- 20.000 baino gehiagoko udalerrietan, %25,5.
- Hiriburuetan, %30,1.

Datuak **gune soziolinguistikoen** arabera aztertuta:

- 1. gunean (<%20 euskaldunak) aritu dira parte hartzaileen %16,5.
- 2. gunean (euskaldunak %20-%50) aritu dira parte hartzaile gehienak, bostetik hiru, %59,5.
- 3. guneko herrietan (%50-%80 euskaldunak) aritu dira %22,2.
- 4. gunekoetan (%80 baino gehiago euskaldunak) %1,6 besterik ez.



Aurreko hiru grafikoetan, Mintzapraktika egitasmoan parte hartzen duten herritarren banaketa aurkeztu dugu, herrialdearen, udalerrri neurriaren eta gune soziolinguistikoaren arabera. Parte hartzaile kopuruak unibertsoko parametroekin harremanetan jarrita, esan dezakegu hedapen hori nahikoa orekatua dela lurraldean. Hala ere, badaude aipatzeko moduko hainbat ñabardura:

- Herrialdeei dagokienez, oro har, herrialde bakoitzak duen pisu demografikoaren neurrikoa da egitasmo honen indarra. Salbuespen bakarra Nafarroa Garaia da, bertan txikiagoa da sarbide-tasa orokorra. Hots, herrialdean bizi diren herritarrekiko pisu txikiagoa du egitasmo honek Nafarroa Garaian gainerako hiru herrialdeetan baino. Alabaina, bidelarien sarbide erlatiboa (hauen pisua herrialdeko elebidun hartzaileekiko), gainerako herrialdeen parekoa da, eta bidelagunen sarbide erlatiboa (hauen pisua bertako euskaldunekiko) handiagoa da Nafarroa Garaian, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan baino.
- Erlatiboki, indartsuagoa da Mintzapraktika egitasmoa herri txikietan, herri handietan eta hiriburuetan baino. Aldeak esanguratsuak dira.
- Erlatiboki, halaber, indartsuagoa da Mintzapraktika egitasmoa eremu euskaldunagoetan erdaldunagoetan baino. Aldeak bereziki garrantzitsuak dira bidelarien sarbide erlatiboa aztertuta: badirudi 3. eta 4. gune soziolinguistikoetako elebidun hartzaileek askoz ere parte hartze handiagoa dutela egitasmo hauetan 1. eta 2. guneetakoek baino. Aitzitik, bidelagunen kasuan, gune erdaldunenetako euskaldunek inplikazio handiagoa lukete, datuen arabera, gainerakoetakoek baino.

### 1.1.3 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN BILAKAERA

Mintzapraktika egitasmoan parte hartzaile kopurua izugarri hazi da azken bost ikasturteetan: 2004/2005 ikasturteko 1.041 lagunetatik 2008/2009ko 2.840etara. Bi kopuru horiek harremanetan jarrita, esan dezakegu +%172,8ko hazkundea izan duela egitasmo honek bost urteotan. Datuak bestela adierazita, azken ikasturteko datuak ia hirukoiztu egiten du (bider 2,73) bost urte lehenagokoa.


Aztertutako epealdian, urtero-urtero hazi egin da nabarmen Mintzapraktika egitasmoko parte hartzaile kopurua. Hazkunde erritmoari dagokionez, hazkunde handienak 2005/2006 eta 2007/2008 ikasturteekin gertatu ziren. Hazkunderik apalena, berriz, aztertutako azken ikasturtean (2008/2009) izandakoa da: aurreko ikasturtean baino 256 parte hartzaile gehiago (%9,9ko hazkundea aurreko ikasturtearekiko) *besterik ez*. Orokorrean, hazkunde azkarraren ideia iruditzen zaigu azpimarragarriena.

**1.1. Taula: Mintzapraktika Egitasmoaren bilakaera (parte hartzaile kopurua eta hazkundea), 2004/2005 - 2008/2009**

	GUZTIRA	HAZKUNDEA (aurreko ikasturtearekiko)	HAZKUNDEA (%)
<b>2004/05</b>	<b>1.041</b>		
<b>2005/06</b>	<b>1.495</b>	+454	+%43,6
<b>2006/07</b>	<b>1.813</b>	+318	+%21,3
<b>2007/08</b>	<b>2.584</b>	+771	+%42,5
<b>2008/09</b>	<b>2.840</b>	+256	+%9,9
<b>2004/05 - 2008/09</b>		<b>+1.799</b>	<b>+%172,8</b>

**Oharra:** egitasmoetako parte hartzaileei buruzko datuak *Topaguneak* eta *AEKk* jarri dituzte gure esku.

**1.D. Grafikoa: Mintzapraktika Egitasmoaren bilakaera (parte hartzaile kopurua), 2004/2005 - 2008/2009**



**Oharra:** egitasmoetako parte hartzaileei buruzko datuak Topaguneak eta AEKK jarri dituzte gure esku.

*Mintzapraktika zenbakitan 2004/2005-2008/2009 txostenean (ikus I. eranskina), bilakaera hori hainbat aldagairen arabera aztertu dugu. Asko laburtuz, zera esan dezakegu: Mintzapraktika egitasmoa gehiago hazi dela Araban eta Nafarroa Garaian, 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan eta gunee erdaldunagoetan. Horrela:*

- Herrialdeei dagokienez, abiapuntu apalena zuten Arabak eta Nafarroa Garaiak izan dute hazkunderik handiena. Gipuzkoak izan du igoerarik txikiena.
- Herrien neurriari erreparaturaz, 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietako egitasmoak hazi dira gehien.
- Herrien ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta, gehiago hazi da Mintzapraktika egitasmoa gunee erdaldunagoetan (2. gunean eta 1. gunean batez ere) euskaldunagoetan baino.
- Kudeatzaileei erreparaturaz, Euskara Elkarteak eta AEK-k bultzatutako egitasmoek izan dute hazkunde absoluturik handiena. Hala ere, erlatiboki begiratuta, Udalek zein bestelako eragileek kudeatutako egitasmoak izan dira gehien hazi direnak.

Bilakaera joerak aztertuta, esan daiteke abiapuntu ahulena zuten eremuetan hazi dela gehien egitasmo hau. Sendotasunaren eta zabaltasunaren adierazle gisa uler daitezke datu hauek.

## 1.2 PARTE HARTZAILEEN PROFILA ETA EZAUGARRI BEREIZGARRIAK


### 1.2.1 EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

#### SEXUA

Mintzapraktika nagusiki jarduera *femeninoa* da. Hots, gehiago dira emakumezkoak gizonezkoak baino Mintzapraktika egitasmoan:

- Bidelagunen artean gehiago dira emakumezkoak (%59,4) gizonezkoak baino (%40,6).
- Bidelarien artean are handiagoa da emakumezkoen zenbatekoa (%73,0); gizonezkoak laurdena baino apur bat gehiago besterik ez dira.

1.E. Taula: Parte hartzaileen profila (I): Sexua. Bidelagunak eta bidelariak, 2009. (%ak).



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoa parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

#### ADINA

Adin ertainekoak dira nagusi Mintzapraktika egitasmoan. Horrela, parte hartzaile guztien datuei erreparatuta, batez besteko adina 42 urtekoa da (45 urtekoa da bidelagunen kasuan, eta 42koa bidelarienean). Xehiago ikusita:

- 35 eta 49 urte bitartekoak dira bidelagunen %38,0, eta, 50 urtetik gorakoak, herena dira (%32,8).
- 35 eta 49 urte bitartekoa da bidelarien %50,2, eta 50 urtetik gorakoak bostetik bat (%21,1) dira.


Bidelarien profila, hortaz, bidelagunena baino gaztexeagoa da. Hala ere, orokorrean hartuta, azpimarratzekoa iruditzen zaigu gazteen presentzia urria (horretaz jardungo gara zehatzago txosten honetako 6. atalean).

**1.2. Taula: Parte hartzaileen profila (II): Adina. Bidelagunak eta bidelariak, 2009. (batez bestekoak eta %ak).**

	2009/2010 Ikasturteko parte hartzaileak		
	GUZTIAK	Bidelagunak	Bidelariak
<b>Batez besteko adina:</b>	<b>42,3</b>	<b>44,6</b>	<b>41,6</b>
18-34 urte	28,9	29,2	28,8
35-49 urte	47,1	38,0	50,2
50-64 urte	17,7	20,3	16,9
65 + urte	6,2	12,5	4,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<i>Kasu kopurua (n)</i>	1.698	424	1.274

**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

**1.F. Taula: Parte hartzaileen profila (II): Adina. Bidelagunak eta bidelariak, 2009. (batez bestekoak eta %ak).**



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

## IKASKETA MAILA

Parte hartzaileen ikasketa maila aztertuta, ideia azpimarragarriena ikasketa maila altuarena litzateke. Horrela, inkestatu guztien artean, erdiak baino gehiagok unibertsitate ikasketak ditu (diplomatura, lizentziatura, doktoretza edo masterrak).


- Bidelagunen artean unibertsitate ikasketak dituztenen zenbatekoa %60ra hurbiltzen da.
- Bidelarien artean bitik batek, %50ek, unibertsitate ikasketak ditu.

**1.3. Taula: Parte hartzaileen profila (III): Ikasketa maila. Bidelagunak eta bidelariak, 2009. (%ak).**

	2009/2010 Ikasturteko parte hartzaileak		
	GUZTIAK	Bidelagunak	Bidelariak
Batere ez	0,6	0,9	0,5
Lehen mailakoak/OHO	8,1	10,2	7,5
Oinarrizko Batxilergoa / (DBH)	3,6	3,0	3,8
Lanbide Heziketa 1 (LH1)	5,5	2,8	6,4
Lanbide Heziketa 2 (LH2) / Bigarren graduiko ikasketak	15,0	10,6	16,4
Goi mailako batxilergoa	2,9	3,5	2,7
BBB / UBI / LOGSE batxilergoa	9,6	6,7	10,5
Hizkuntzak	0,1	0,2	
Goi Mailako Lanbide Heziketa	2,2	2,3	2,2
Goi mailako ikasketak (diplomaturak)	21,4	24,9	20,2
Goi ikasketak (lizentziaturak)	27,4	31,2	26,2
Doktoretza/ masterrak	3,7	3,7	3,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<i>Kasu kopurua (n)</i>	1.732	433	1.299

**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

**1.G. Grafikoa: Parte hartzaileen profila (III): Ikasketa maila. 2009/2010 ikasturteko parte hartzaileak (bidelagun zein bidelari). (%ak).**



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

**JARDUERA NAGUSIA**

Mintzapraktikan ari direnen jarduera nagusia aztertuta, lehen ideia aniztasunarena litzateke, alegia, jarduera mota ugartan diharduten herritarrak hurbiltzen direla egitasmora. Behin hori esanda, ordea, azpimarratzeko moduko bigarren ideia *aktiboek* duten pisu handia litzateke. Bidelagun eta bidelarien artean bada alde esanguratsurik:

- Bidelagunen %48,7k beste norbaiten kontura lan egiten dute, eta %18,9 erretiratuak dira. Langabetuen zenbatekoa batez bestekotik dezente behera dago (%6,7).
- Bidelarien %55,9k beste norbaiten kontura lan egiten dute. Langabetuen zenbatekoa batez bestekoaren inguruan edo hortik zertxobait gora dago (%13,5).

Ikasketa maila eta jarduerari begiratuta, esan dezakegu gizarteko sektorerik kualifikatuenak, aktiboek, eta lidergo gaitasun handiena dutenak direla nagusi edo oso presentzia ohargarria dutela Mintzapraktika egitasmoan. Horrek, ziurrenik, egitasmoren eragin biderkatzailea areagotuko du.

**1.4. Taula: Parte hartzaileen profila (IV): Jarduera nagusia. Bidelagunak eta bidelariak, 2009. (%ak).**

	2009/2010 Ikasturteko parte hartzaileak		
	GUZTIAK	Bidelagunak	Bidelariak
Bere kontura ari da lanean	6,3	6,0	6,4
Kooperatibista da	4,4	12,0	1,9
Besteren kontura ari da lanean	54,1	48,7	55,9
Langabea da	11,8	6,7	13,5
Etxeko lanetan aritzen da	5,2	2,5	6,1
Ikaslea da	1,6	1,8	1,5
Ikaslea da, eta lanean ere ari da	1,6	0,7	1,9
Pentsionista	10,2	18,9	7,4
Bestelakoak	4,7	2,5	5,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<i>Kasu kopurua (n)</i>	<i>1.738</i>	<i>433</i>	<i>1.305</i>

**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

Ezaugarri sozio-demografiko guztiak aztertu ondoren, ondorioztatu beharreko lehen ideia nagusia aniztasunarena da. Hots, gizartearen alor guztietako partaideak hurbiltzen direla mintzapraktikara. Behin hori esanda, hala ere, egin dezagun bidelagun eta bidelariaren profil ohikoenaren argazkitxoa: emakumea da, adin ertainekoa, ikasketa maila altukoa, *aktiboa* eta beste baten kontura egin du lan.

## 1.2.2 EZAUGARRI SOZIOLINGUISTIKOAK

Ezaugarri soziolinguistikoei dagokien ere, askotarikoa da mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileen soslaia, hurrengo orrialdeetako grafikoetan argi ikus daitekeenez. Bidelagunak bidelariak baino *euskaldunago* dira, noski, baina talde baten zein bestearen barruan alde handiak daude:

**Bidelagunei** erreparatuz, eta beraien erradiografia soziolinguistikoa egiten ahaleginduz:

- %60 inguruk euskara edo euskara eta gaztelania izan dute lehen hizkuntza gisa. Bostetik bik, ordea, ez dute etxean jaso euskara.
- Eskolan, bidelagunen ia bi herenek X edo A eruedetan ikasi dute (%44,9 eta %20,4 hurrenez hurren), eta herenera ez dira iristen (%29,9) D eruedan jardundakoak. Datu hauek ez dira oso harrigarriak, bidelagunen adina ezagututa.
- Bidelagun gehienak (%69,5) eskolaz kanpo euskara ikasten edo hobetzen aritutakoak dira, helduen euskalduntze-alfabetatzean.
- Euren egungo inguru hurbilari erreparatuz, bidelagun gehienek, %71,1ek, familiakide guztiak euskaldunak dituzte. Etxean erabilitako hizkuntza, ordea, kopuru horren dezente azpitik gelditzen da: etxean euskaraz soilik jarduten dira %40,2.
- Euren ohiko lagunarteari dagokionez, bidelagun gehienak lagunarte mistoak dituzte, euskaldunek eta ez euskaldunek osatuak (%18,3 besterik ez dira euren lagunarte guztia euskalduna dutenak). Horrela, bidelagunen lagunarte gehienetan erdiak edo gehienak dira euskaldunak (gutxi dira, bostetik bat, lagunarte erdalduna edo nagusiki erdalduna dutenak). Lagun arteko erabilerari dagokionez ere, bi hizkuntzak erabili ohi dituzte bidelagun gehienek lagunarteetan, batez beste euskarak erdarak baino presentzia handiagoa badu ere.


**Bidelarien** kolektiboa ere ez da, inondik inora, homoginoa. Ikus dezagun bidelariaren erradiografia soziolinguistikoa azkarra:

- Gaitasunari dagokionez, gutxi dira euskaraz pixka bat bakarrik ulertzen dutenak (%7,4). Gehienek ondo edo nahiko-dezente ulertzen dute. Hitz egiteko gaitasunari dagokionez, berriz, banatuta azaltzen zaizkigu bidelariak: Bidelarien erditsiak (%49,3) nahiko-dezente hitz egiten duela aitortzen du; laurdenak ezer ez edo pixka bat (%0,5 eta %24,3 hurrenez hurren) eta gainerako laurdenak ondo edo oso ondo hitz egiten duela dio (%21,1 eta %4,8 hurrenez hurren). Ulermena eta hitz egiteko gaitasuna, biak ala biak harremanetan jarritz, eta datuak ohiko sailkapenera ekarrita, bidelarien artean lautik hiru (%74,2) elebidun hartzailea da, eta laurdena (%25,8) elebiduna.
- Bidelari gehien-gehienek, %87,1ek, gaztelania izan dute lehen hizkuntza. Hamarretik batek euskara jaso du etxean (%5,5ak euskara izan du lehen hizkuntza eta %5,6ak euskara eta gaztelania).
- Eskolari dagokionez, ia hamarretik bederatzik X eta A eruedetan egin ditu ikasketak (%52,2 eta %36,7 hurrenez hurren).
- Hamar bidelaratik bederatzik (%90,4) eskolaz kanpo euskara ikasten edo hobetzen aritutakoak dira, helduen euskalduntze-alfabetatzean. Gaur egun, ia erdiak (%47,6) ari dira euskaltegian.
- Eskolaz kanpo euskara hobetzen aritu diren bidelariei horretarako bi helburu garrantzitsuenak zein izan diren galdetu diegu. Lehenengo eta bigarren arrazoi nagusiak batuta, arrazoi edo helburu garrantzitsuenaren hurrenkera honela gelditzen da:
  - Euskal Herriaren hizkuntza delako (1. edo 2. helburu garrantzitsuen bezala aipatu dute %48,9k).
  - Lanerako behar dudalako (%39,4).

- Euskaraz aritzen direnekin harremanak izateko (%31,2).
- Nire erro kulturalak berreskuratzeko (%27,9).
- Euskal Herrian integratzeko behar delako (%16,6).
- Bost bidelartik hiruk familiakide guztiak edo gehienak euskaldunak ditu (%33,6 eta %25,3 hurrenez hurren), eta, gainontzeko biek, gehienak edo denak erdaldunak (%4,5 eta %36,5 hurrenez hurren). Erabilerari dagokionez, bidelarien etxeetan, erdara da nagusi kasurik gehienetan (bidelarien etxeen %38,6etan erdara da hizkuntza bakarra eta %43,3an hizkuntza nagusia).
- Euren ohiko lagunarteari dagokionez, bidelari gehienak lagunarte mistoak dituzte, euskaldunek eta ez euskaldunek osatuak (%4,2 besterik ez dira euren lagunarte guztia euskalduna dutenak eta %9,5 lagunarte guztia erdalduna dutenak). Alabaina, oro har, euskaraz ez dakitenek pisu handiagoa dute bidelarien lagunarteetan. Horrela, bidelarien lagunarte gehienetan erdiak edo gehienak dira erdaldunak (%31,6 eta %35,2 hurrenez hurren). Lagunarteko erabilerari dagokionez, azkenik, erdara da nagusi bidelari gehienen lagun arteetan: %37,2en lagunarteetan erdara besterik ez da hitz egiten eta %43,5en kasuan erdara da hizkuntza nagusia. Bost bidelartik baten kasuan, azkenik, bi hizkuntzak berdintsu edo euskara nagusiki hitz egiten dira.


Askotarikoa da, beraz, bidelagunaren zein bidelariaren profil soziolinguistikoa. Ez da harritzekoa, egia esan, mintzapraktikarena Euskal Herriko lurralde eta zonalde soziolinguistikoko guztietan presentzia duen fenomeno delako jakinda.

**1.H. Grafikoa: Parte hartzaileen profila (V): Euskara ulertzen ote duten. Bidelariak, 2009. (%ak).**




**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

**1.I. Grafikoa: Parte hartzaileen profila (VI): Euskara hitz egiteko gai ote diren. Bidelariak, 2009. (%ak).**




**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

**1.J. Grafikoa: Parte hartzaileen profila (VII): Hizkuntza gaitasuna. Bidelariak, 2009. (%ak).**




**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

**1.K. Grafikoa: Parte hartzaileen profila (VIII): Lehen hizkuntza. Bidelagunak eta bidelariak, 2009. (%ak).**




**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

**1.L. Grafikoa: Parte hartzaileen profila (IX): Hizkuntza eredia irakaskuntzan (zein eredutan ikasi zuten). Bidelagunak eta bidelariak, 2009. (%ak).**




**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

**1.M. Grafikoa: Parte hartzaileen profila (X): Etxeko euskaldun kopurua. Bidelagunak eta bidelariak, 2009. (%ak).**




**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

**1.N. Grafikoa: Parte hartzaileen profila (XI): Etxeko hizkuntza. Bidelagunak eta bidelariak, 2009. (%ak).**




**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

**1.O. Grafikoa: Parte hartzaileen profila (XII): Euskararen ezagutza lagunartean. Bidelagunak eta bidelariak, 2009. (%ak).**



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.


**1.P. Taula: Parte hartzaileen profila (XIII): Lagunekin zein hizkuntzatan aritzen diren. Bidelagunak eta bidelariak, 2009. (%ak).**



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.




**1.Q. Grafikoa: Parte hartzaileen profila (XIV): Eskolaz kanpo euskara ikasi edo hobetzen aritu al diren (helduen euskalduntze-alfabetatzea). Bidelagunak eta bidelariak,**




**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

**1.R. Grafikoa: Parte hartzaileen profila (XV): Gaur egun euskaltegiren batean matrikulatua ote dauden. Bidelariak, 2009. (%ak).**



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

**1.S. Grafikoa: Euskara hobetzeko bi helburu garrantzitsuenak. Eskolaz kanpo euskara ikasten edo hobetzen aritu diren bidelariak, 2009. (%ak).**



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

## **1.3 KIDE BERRIAK ETA BAJAK (SARTU-IRTENAK, JOAN-ETORRIAK KUANTIFIKATUZ)**

Badakigu urterik urte parte hartzaile berriak elkartzen direla Mintzapraktika egitasmora, eta, era berean, aurreko urtean parte hartu izandakoen zati batek egitasmoa uzten duela. Esku artean ditugun datuekin ahalegindu gaitzen sartu-irten horiek kuantifikatzen (hainbat kasutan datu horiek behin-behinekoak eta partzialak direla jakinda, hurbilpen bat izango da honakoa). Ea bada:

- 2009/2010 ikasturtean 3.405 lagunek eman dute izena mintzapraktikan<sup>9</sup>.
- Horietatik 1.345 partaide<sup>10</sup> berriak dira, lehenago mintzapraktikan aritu gabekoak. Horiexek lirateke aurten egitasmora etorri berriak.
- 2008/2009n parte hartu zutenen artean, berriz, 750 inguru (697 eta 780 landutako bi estimazioen arabera) ez dira apuntatu aurtengo mintzapraktikara<sup>11</sup>. Baja-tasa, beraz %24,5 eta %27,5 artekoa izango litzateke landutako bi estimazioen arabera.
- 2008/2009 eta 2009/2010 ikasturteen arteko saldoa, beraz, positiboa izan da: +565 lagun gehiago 2009/2010 ikasturtean aurreko urtean baino. Bestela esanda: 565 parte hartzaile berri gehiago bajaran eman direnak baino.

Beraz, sartu irten handiko egitasmoa da mintzapraktika. Sarrerak irteerak baino gehiago dira. Horri zor zaio hazkundera. Txosteneko 5. atalean irteerei buruz (egitasmoa uzten duten ehunka lagun horien fenomenoari buruz) argi pixka baten bila abiatuko gara, bidelagun eta bidelari-ohien azterketan, hain zuzen ere.

---

<sup>9</sup> Eragileek gure esku jarritako behin-behineko datuak (2010-03-15).

<sup>10</sup> 1.345eko kopuru hori, estimazio bat da, 3.405 parte hartzaileei, inkestaren arabera lehen urtea dutenen %39,5a aplikatuta.

<sup>11</sup> Bajak kalkulatzeko bi estimazio landu ditugu. Batetik, eragileek beraiek emandako behin-behineko datu partzialak abiapuntu hartuta, 697 bajetako kopuru hori estimatu dugu (eta aurreko ikasturteko parte hartzaileekiko baja-tasa: %24,5). Bestetik, egitasmoaren bilakaera-datuak eta inkestako hasi berrien %39,5 hori harremanetan jarrita, 780 bajaran kopurua estimatu dugu, saldoen prozeduraren bidez (estimazio horri dagokion baja-tasa, honakoa: %27,5).


## 2 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN DESKRIBAPENERAKO HAINBAT DATU OSAGARRI

### 2.1 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN BERRI NOLA JAKIN DUTEN

Egitasmoaren berri nola jakin zuten galdetu diegu inkestatuei. **Bidelagunen** erantzunak aztertuta, bide eraginkorrenak hauek dira garrantziaren arabera:

1. Inguruko batek (lagun, senide, ezagun...) esanda (%43,5ek aipatu dute 1., 2., 3. edo 4. bide garrantzitsuen gisa).
2. Herriko euskara elkartearen bitartez (%32,5ek aipatu dute).
3. Prentsan irakurrita (%25,9k aipatu dute).
4. Esku-orri batean irakurrita (%25,3k aipatu dute).
5. Kartel batean irakurrita (%25,3k aipatu dute).
6. Euskaltegian irakasleak aipatuta (%20,5ek aipatu dute).
7. Bestelako bideak ere aipatu dituzte, hala nola: dinamizatzaileak emandako aurkezpen hitzaldi baten bitartez (%15,6); kultur edo aisialdi ekitaldi batean (%12); irratian iragarkia entzunda (%9); Interneten bidez (%7,2); telebistan iragarkia ikusita (%3,6).

**2.A. Grafikoa: Egitasmoaren berri non jakin zuten (4 bide garrantzitsuenak). Bidelagunak, 2009. (%ak).**




Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoa parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

**Bidelarien** erantzunak aztertuta, bide eraginkorrenak hauexek lirateke garrantziaren arabera hurrenkeran:

1. Euskaltegian irakasleak aipatuta (%55,6ek aipatu dute 1., 2., 3. edo 4. bide garrantzitsuen gisa).
2. Inguruko batek (lagun, senide, ezagun...) esanda (%51,4ek aipatu dute).
3. Kartel batean irakurrita (%29,8ek aipatu dute).
4. Dinamizatzaileak emandako aurkezpen hitzaldi baten bitartez (%21,2ek aipatu dute).
5. Esku-orri batean irakurrita (%22,3ek aipatu dute).
6. Herriko euskara elkartearen bitartez (%17,8ek aipatu dute).
7. Prentsan irakurrita (%16,1ek aipatu dute).
8. Bestelako bideak ere aipatu dituzte, hala nola: kultur edo aisialdi ekitaldi batean (%9,2); irratian iragarkia entzunda (%7,8); Interneten (%6,4) eta telebistan iragarkia ikusita (%4,7).

**2.B. Grafikoa: Egitasmoaren berri non jakin zuten (4 bide garrantzitsuenak). Bidelariak, 2009. (%ak).**



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoaren parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

Bidelagun zein bidelarien erantzunak aztertuta, ondorio nagusi gisa azpimarratzekoa da hurbiltasunak duen garrantzia egitasmoaren zabalkundean: inguruko batek esanda, euskaltegiaren bidez edo euskara elkartearen bidez, horra, gaur egun Mintzapraktika egitasmoaren hedapenerako hiru bitarteko nagusiak. Horrez gain, nabarmentzekoa da, bidelagunen eta bidelarien artean dagoen aldea: euskara elkarteak dezente eragina izan du bidelagunen artean (2. garrantzitsuenak), baina apenas izan du eraginik bidelarien artean.

Kasu batean zein bestean begi bistakoa da ohiko propagandak (esku orriak eta kartelak) eta publizitateak (prentsa, irrata eta telebista) izan duten eragin eskasa.



**Inkestako emaitzekin bat datoz talde naturaletan entzundakoak. Bidelariak nagusiki mintzapraktika egitasmoaren berri euskaltegian izan zutela adierazi dute, baina bestelako bideak ere aipatu dituzte. Jarraian zerrendatu ditugu:**

- **Euskaltegian izan dute egitasmoaren berri.**
- **Ikaskideen eskutik jakin dute.**
- **Euskara elkartearen bidez.**
- **Egitasmoko dinamizatzaileak aipatuta.**
- **Inguruko bidez (senideak, lagunak...).**
- **Egunkarian irakurrita.**
- **Kartel bat ikusita.**

**Talde naturaletan aipatu diren bideak dira eraginkorrenak inkestako datuei begiratzen badiegu.**

**Euskalduntze-alfabetatzeetik aparte, jendearen artean ez dela ezaguna iruditzen zaie, maiz azaldu beharra dagoela zer den eta bertan zer egiten den. Datuetan ohiko propagandak eta publizitateak duten eragin eskasak azal dezake hori neurri batean.**

*Euskaltegian ibilia ez bazara, jendeak ez du ezagutzen.  
(Zahar-berri, Arrasate, Topagunea).*

**Parte hartzaileek badute bestelako esperientzien berri, eta badakite mintzapraktika egitasmo gehiago badirela Euskal Herrian barrena. Internetek beste taldeen ezagutza egiteko aukera errazten du. Nolabaiteko kohesio sentimendua antzeman dugu.**

*Egitasmo bateratua da, berbalagun sentimendua badago, blogean ikusten da, beste berbalagunak zer egiten duten, Bilbon, Bermeon, Gernikan, Ondarroan ere.  
Ez gara bakarrik.  
(Berbalaguna, Santurtzi, AEK).*


## 2.2 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA ETA INTERNET

2.1. Taula: Interneten erabilera Mintzapraktikan. Bidelagun beteranoak eta bidelari beteranoak, 2009. (%ak).

	Azken astean	Azken hilabetean	Inoiz erabiltzen dut	Inoiz ez	GUZTIRA	Kasu kopurua (n)
<b>2009/2010 IKASTURTEKO PARTE HARTZAILE GUZTIAK</b>						
Posta elektronikoa	26,3	13,5	14,9	45,3	100,0	970
Mintzapraktika egitasmoetako webgune edo blogak	16,8	15,3	19,6	48,3	100,0	913
Skype, foroa edo txata	1,7	3,7	16,0	78,6	100,0	875
<b>BIDELAGUNAK</b>						
Posta elektronikoa	27,7	13,0	13,7	45,5	100,0	292
Mintzapraktika egitasmoetako webgune edo blogak	25,1	18,0	14,8	42,0	100,0	283
Skype, foroa edo txata	1,5	6,7	10,8	81,0	100,0	269
<b>BIDELARIAK</b>						
Posta elektronikoa	25,7	13,7	15,5	45,1	100,0	678
Mintzapraktika egitasmoetako webgune edo blogak	13,0	14,1	21,7	51,1	100,0	630
Skype, foroa edo txata	1,8	2,3	18,3	77,6	100,0	606


Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoa parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

2.C. Grafikoa: Interneten erabilera Mintzapraktikan. Bidelagun beteranoak, 2009. (%ak).



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoa parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

2.D. Grafikoa: Interneten erabilera Mintzapraktikan. Bidelari beteranoak, 2009. (%ak).



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoa parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

Mintzapraktikan Interneten erabilerari buruz ere galdetu diegu inkestan. Erantzunak aztertuta, hona hemen ondorio nagusiak:

- Bidelagunen eta bidelarien artean, gutxi dira (laurdena inguru) maiztasunez teknologia berriak erabiltzen dituztenak. Webguneak eta batez ere posta elektronikoa erabiltzen dituzte. Txataren, foroaren eta Skypearen erabilera marjinala da gaur egun (bostetik lauk ez dituzte inoiz erabili). Ikus dezagun datuen bidez:
  - Bidelagunak:
    - Bidelagunen artean asko dira posta elektronikoa sekula erabiltzen ez dutenak (%45,5). Erabiltzaileen artean, %27,7k azken astean erabili izan du, %13k azken hilean, eta antzekoa da inoiz erabili izan dutenen zenbatekoa.
    - Bidelagunen %42,0 ez da behin ere sartu Mintzapraktika egitasmoko webgune edo blogetan. Erabiltzaileen artean, %25,1ek azken astean erabili du, %18,0k azken hilabetearen, eta inoiz %14,8k.
    - Bidelagunen %81,0 ez da sekula aritu txat, foro edo Skype bidez.
  - Bidelariak:
    - Posta elektronikoa sekula erabiltzen ez duten bidelariak %45,1 dira. Erabiltzaileen artean, %25,7k azken astean erabili du, %13,7k azken hilean, eta %15,5k inoiz erabili izan du.
    - Mintzapraktikako webgune edo blogetan ez da sartu bidelarien erdia baino zertxobait gehiago. Erabiltzaileen artean, %21,7k inoiz erabili izan du, %14,1k azken hilabetearen behin, eta %13,0k azken astean.
    - Bidelarien %77,6 ez da sekula aritu txat, foro edo Skype bidez.
    - Horrela bada, bidelagunek bidelariak baino zertxobait gehiago erabiltzen dute mintzapraktikarekin lotuta Internet; aldea webguneen kasuan ematen da batez ere.

IV. eranskinetako txostenetako taula gurutzatueta ikusi ahal dugunez, azkenik, esan dezagun Interneten erabilera dezente aldatzen dela adinarekin. Horrela, gazteen portaerak aztertuta, orain arte emandako kopuruaren gainetik azaltzen zaigu Interneten erabilera: bidelari gazteen %31,8k erabili dute azken astean posta elektronikoa mintzapraktikarekin lotutako harremanetarako (%23,0k azken hilabetearen); webguneetara jo du gazteen %18,2k azken astean (eta %22,3k azken hilabetearen); txat, foro eta Skype bidez jardundakoak gazteen %2,1 dira azken astean (eta %3,5 azken hilabetearen).



**Blogen garrantzia azpiarratu dute adituek, baita Facebook eta Tuenti bezalako sare sozial berriena ere. Egitasmoetako parte hartzaileen arteko harremanetarako eta informazioa jasotzeko dira baliagarri. Skyperen bidezko talde birtualak egon badaude ere, erabiltzaile gutxi dituzte arestian aurkeztutako datuek erakusten duten bezala.**

*Bada mugimendua (eta denek ez dute oraindik erabiltzen). Egunero badira lauzpa bost gauza egitasmo hauen inguruan, blogetan.  
Iker Martínez de Lagos*

*Hobe da jendeari toki bat ematean facebook-en bezala, baina oraingoz Skypekin ari dira.  
Edorta López.*

**Komunikazioaren teknologia berriek, eta, bereziki Internetek, aukera ona eskaintzen dute. Azken batean, pertsonok elkar harremanerako beharra segitzen dugu izaten.**


*Behar hori denok daukagu. Orain oso modan daude sare sozialak. Lehen herriko elkarteetan ibiltzen zen jendea, orain sarean.  
Rozio Lucas*



## 2.3 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA ETA JARDUERA OSAGARRIAK

### 2.3.1 JARDUERA OSAGARRIETAN PARTE HARTZEA

2.E. Grafikoa: Mintzapraktika egitasmoko jarduera osagarrietan parte hartzea. Joan den ikasturtean mintzapraktika egitasmotik antolatutako ekitaldi, ikastaroetan... parte hartzea. Bidelagun beteteranoak eta bidelari beteteranoak, 2009. (%ak).



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

Mintzapraktika egitasmoan, asteroko hitzorduez gain, tarteka jarduera osagarriak antolatzen dira: ikastaroak, ekitaldiak, mendi irteerak eta abar. Inkestako datuen arabera, parte hartzaile gehienek (bidelagunen %75,8k eta bidelarien %65,2k) parte hartzen dute horrelako jardueretan. Maiztasunari erreparatuta, parte hartu izan duten gehienek ekitaldi gutxi batzuetara joan dira (bidelagunen %39,7 eta bidelarien %37,8 bat eta hiru arteko ekitalditara joan dira). Badira, ordea, gehiagotan parte hartu izan dutenak ere (bidelagunen %36,1 eta bidelarien %27,4 hiru ekitaldi baino gehiagotara joan izan dira eta). Aipatzeko da, bidelagunen artean altuagoa dela parte hartzea aparteko jardueretan bidelarien artean baino.



**Dinamizatzaileek mintzapraktika kideen nahiak eta interesak kontuan hartuta programatzen dituzte kultur ekitaldiak edo aisialdi jarduerak. Lehenasuna egitasmoko partaideek badute ere, ekintza hauetara edonor bertaratu daiteke. Harremanetarako duten balioa azpimarratu dute adituek elkarrizketa sakonetan.**

*Harremanerako eta jendeak elkar ezagutzeko balio dute. Ekintza hauek irekiak dira, lehenasuna berbalagunek badute ere. Herri bakoitzak bere agenda egiten du, eta hor agertzen dira hileroko ekitaldiak. Berbalagunei postaz jakinarazten zaie egitaraua, eta blogean ematen da argitara.  
Edorta López.*


Talde natural eta eztabaida taldeetan jarduera horiek zein diren, eta parte hartzea edo maiztasuna izan dituzte hizpide. Tankera honetako jardueraz ari gara: erakusketak, hitzaldiak, aste bukaerako ekintzak, hitzaldiak, bertso saioak, Durangoko azokara txangoa, ikasturtea bukatzeko festa, ateraldiak, afariak, antzerkiak, mendi irteerak eta tailerrak (dantza, kontakt, etab.).

Aparteko jardueretan maiztasunez parte ez hartzeko arrazoien artean, honako hauek aipatu dituzte: denbora falta, aste bukaeran izatea (taldean astegunean elkartzen denez), eta lana. Eztabaida taldeotako partaide batzuk gutxi edo apenas parte hartu dute aparteko kultur ekitaldietan, nahiz eta faltan bota, edo egitasmoaren hobetzeko ezinbestekotzat jo, azkeneko atalean ikusiko dugun bezala.

*Niri gustatuko litzaidake, beste ekintza mota egitea. Baina hori zaila da, ze sartzen gara zaletasunetan. Saiatu ginen Sakanan mendiko talde bat ateratzen...  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Eztabaida Taldea)*

### 2.3.2 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOTIK APARTEKO EUSKARAZKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA


2.F. Grafikoa: Euskarazko gainerako jardueretan parte hartzea. Iaz parte hartu al zuten. Bidelagun beteranoak eta bidelari beteranoak, 2009. (%ak)



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

Mintzapraktika egitasmotik aparteko euskarazko jardueretara ere joan izan dira mintzapraktikako parte hartzaileak. Zehazki, joan den ikasturtean, bidelagunen %81,0k eta bidelarien %68,3k parte hartu du mintzapraktika egitasmotik aparteko euskarazko jardueraren batean. Berrito ere, datuek aditzera ematen dutenez, bidelagunen parte hartzea altuagoa da bidelariena baino. Bestalde, aipatzekoa da, parte hartze maila mintzapraktika egitasmotik antolatutako ekitaldiekiko altuxeagoa dela, haatik, aldea ez da ikaragarria.

**2.G. Grafikoa: Ekitaldietan ezagututako euskaldun kopurua. Bidelagun beteranoak eta bidelari beteranoak, 2009. (%ak).**



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

Ekitaldietan parte hartu izan duten inkestatuek diotenez, ekitaldi hauek, besteak beste, euren euskaldunen harreman sarea zabaltzeko balio izan diete. Horrela, ekitaldi horiek direla medio, bidelagunen %59,2k euskaldun batzuk ezagutu dituzte eta %27,5ek euskaldun asko. Bidelarien artean gehienek euskaldun batzuk ezagutu dituzte (%69,6k), eta %20,2k euskaldun asko.

### 2.3.3 JARDUERA OSAGARRIEN EKARPENA



Datuek erakusten dute parte hartzaileen laurdenetik gora ez duela aparteko jardueretan parte hartzen (%27,9); aitzitik, elkar ezagutzeko eta harremanetarako funtzio garrantzitsua betetzen dute.

*Bada jende asko, ekintza gehigarrietara animatzen ez dena. Jarduera gehigarriak lotura gune dira, eta elkar ezagutza funtzioa dute.  
Iker Martinez de Lagos.*

Datuek agerian uzten dute, halaber, ekitaldi hauek beste euskaldun batzuk ezagutzeko balio dutela. Bizipen hori partekatu dute gurekin taldeotako hainbat partaidek.

*Beste ekitaldi batzuetara joaten gara, mendi martxa batean jende gehiago ezagutu dugu (beste berbalagunak).  
(Berbalaguna, Santurtzi, AEK).*

Ekitaldiak antolatzeke irizpideei dagokienez, parte hartzaileek badute zeresana. Mintzapraktika egitasmoeke antolatutako jarduera eta ekitaldien programazioa ez da goitik beherakoa soilik, baita behetik gorakoa ere.


*Malabare tailerra guk eskatu genuelako antolatu zuten. Astero bada zerbait egiteko berbalagun taldeentzat: hitzaldia, tailerra, mendi irteera, etab.  
(Berbalaguna, Santurtzi, AEK).*

# 3 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA, ZERTARAKO? MOTIBAZIOEN AZTERKETA

## 3.1 BIDELAGUNEN MOTIBAZIOAK

### 3.1.1 BIDELAGUNAK MINTZAPRAKTIKA EGITASMORA LEHEN ALDIZ HURBILTZEKO MOTIBAZIOAK

3.A. Grafikoa: Mintzapraktikan izena emateko arrazoia (lehenengo urtean); hainbat faktoreren eragina. Bidelagunak, 2009. (%ak).



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009


Zergatik hasi ziren bidelagunak mintzapraktikan? Batez ere euskararen alde euren ekarpena egiteko eta euskara ikasten ari direnei laguntzeko helburuarekin. Mintzapraktikak eurei euskara gehiago erabiltzeko eskaintzen dien aukerak eta lagunak egiteak ere eragina izan dute, baina ez hain nabarmen.

- Bidelagunen %74,1entzako euskararen alde euren ekarpena egiteak eragin handia izan du mintzapraktikan hasteko erabakian. %19,5entzako eragin ertaina izan du.

- Euskara ikasten ari direnei laguntzeak antzeko eragina izan du; eragin handia aitortzen diote bidelagunen %72,1ek.
- Euskararen erabilerak eragin handia izan du %51,9rentzako eta eragin ertaina %13,5entzako, baina ez dira gutxi eragin txikia edo batere eraginik ez duela izan aitortu dutenak (%12,5ek eta %22,1ek hurrenez hurren).
- Bidelagunen %27,0rentzat lagunak egiteak eragin handia izan du mintzapraktikan hasteko erabakian, eta %32,2rentzat eragin ertaina. Beste aldean, %25,5entzako eragin txikia izan du, eta %15,3rentzat ez du batere eraginik izan.

### 3.1.2 BIDELAGUNAK MINTZAPRAKTIKA EGITASMOETAN JARRAITZEKO MOTIBAZIOAK (BETERANOAK)

3.B. Grafikoa: Aurten mintzapraktikan izena emateko arrazoia; hainbat faktoreren eragina. Bidelagun beterranoak, 2009. (%ak).



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

Mintzapraktikan berriak ez diren bidelagunei, aurten zehazki zergatik apuntatu diren galdetu diegu. Mintzapraktikan jarraitzeko motibazioen artean, eragin handiena segitzen dute izaten euskararen alde egiteak eta ikasten ari direnei laguntzeak. Lagunak egiteari garrantzia gehiago ematen diote hasi berritan baino.

- Bidelagunen %76,7rentzako euskararen alde euren ekarpena egiteak eragin handia izan du mintzapraktikan aritzeko erabakian. %18,5entzako eragin ertaina izan du.
- Euskara ikasten ari direnei laguntzeak antzeko garrantzia izan du; %76,0k eragin handia aitortzen diote.
- Euskararen erabilerari garrantzia eman diote gehienek; eragin handia aitortu diote %50,0k eta eragin %14,3k, baina ez dira gutxi eragin txikia edo batere eraginik ez duela izan aitortu dutenak (%12,8 eta %22,9 hurrenez hurren).
- %31,0rentzat lagunak egiteak eragin handia izan du mintzapraktikan hasteko, eta %35,6rentzat eragin ertaina. Heren batentzako ez du batere eraginik izan, edo eragin txikia izan du.

### 3.1.3 BIDELAGUNEN MOTIBAZIOEN BILAKAERA

Oro har, ez da igarri alde handirik lehenengo urtean mintzapraktikan hasteko eta ondoren jarraitzeko motibazioetan. Bestela esanda, motibazioen egitura egonkor azaltzen zaigu bidelagunen artean: hasteko izan zituzten motibazio bertsuek eragiten dute eurengan jarraitzeko orduan ere. Beti ere, motibazio nagusiak, euskararen aldeko ekarpena egitea eta euskalduntzen ari direnei laguntzea dira. Ñabardura gisa, esan daiteke, "lagunak egiteko eta ondo pasatzeko" motibazioak apur bat gora egiten duela bidelagun beteranoen artean hasieran zituzten motibazioekiko.

### 3.1.4 BIDELAGUNEN MOTIBAZIOETAN SAKONTZEN



**Bidelagunek askotariko motibazioak dituztela agerian gelditu da elkarrizketa sakon, talde natural eta eztabaida taldeetan, baina bada gainerakoek gaineratik nabarmendu diren bi motibazio edo arrazoi, elkar lotuta daudenak: alde batetik, ikasten ari direnei eta euskaraz egin nahi dutenei laguntzea, eta, bestetik, euskalgintzarekin lotura izaten segitzea, eta ekarpena egitea hizkuntza normalizazioan.**

*Euskararen alde egiten ari zarela zerbait, zure partetik zerbait jartzen ari zarela.*  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)

*Eta neukan zera hori, zerbait egin behar zela euskararengatik, kolaborazio bat, militantzia bat azkenean.*  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)

**Motibazioa ez da asebetetze pertsonalarekin hainbeste lotzen, baizik eta helburu orokorrago batekin. Hala ere, ekarpen horren emaitzak edo fruituak begi-bistakoak dira, eta, gainera, harreman onak sor daitezke parte hartzaileen artean. Esan nahi baita, euskalgintzaren edo euskara elkarteetan bestelako ekimen edo kanpaina "orokorragoekin" alderatuz, maila "mikroko" jarduera honetan, bidelagunak bere esku hartzearen eragina (praktikatzeko beharra duenari lagunduta) antzematen duela, eta, badu, horrez gain, balio erantsi bat, taldekideen artean lotura afektiboak sor daitezkeela alegia.**

*Ez dut uste motibazioa hain pertsonala denik, azkenean ari zara lortzeko inguru euskaldun bat. Helburu orokor batengatik. Lortzeko, nik honekin hitz egitea euskaraz eta gero bera joatea ez dakit norengana eta... azkenean euskara zabaltzeko modu bat.*  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)

*Eduki dezake lotura euskalgintzaren eta euskararen inguruko erakundearen funtzionamenduarekin. Elkarrekin askotan egiten dira kanpainak, egiten dira lanak, pankartak etab. Baina ez duzu emaitza konkreturik ikusten. Eta bestean ari zara, askoz zera txikiagoan, baina emaitza konkretuagoak lortzen dituzu. Eta zure aletxo hori ikusgarriagoa da, eta gero, lotura afektiboak sortu daitezke.*  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)

**Parte hartzaileek motibazio ezberdinak dituzte, eta hainbat kasutan helburua titulua eskuratzea izanda ere, aldeko jarrera edo motibazioa piztea izaten da zenbait bidelagunen erronka.**

*Nire laguntzatxoa euskaraz ikasten ari den jendearentzako eta euskara maitatzen erakusteko.*  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)

**Bidelagun batzuentzat euskara maila mantentzea eta euskara erabiltzeko aukera parte hartzeko arrazoiak dira. Hori egiaztatu ahal izan dugu eztabaida taldeotan. Ez dira soilik bidelarien motibazioak. Hautemate edo iritzi hori berresten dute datuek; bidelagunen erdiarentzat eragin handia izan du euskara gehiago erabiltzeak mintzapraktikan hasteko.**

*Nere lanean ez dut erabiltzen euskara. Niri euskaraz hitz egitea gustatzen zaidalako.*  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Euztabaida Taldea)

*Nik EGA daukat, baina nire maila ez da zuena. Ni joan nintzen mantentzeko eta ez nuen mintzalaguntzailea izan nahi, baina tokatu zitzaidan.*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Euztabaida Taldea)

**Elkarrizketa sakonetan akaso datuek islatzen dutena baino garrantzia handiagoa ematen diote aisialdia bete eta lagunak egiteari bidelagunen motibazio gisa. Bidelagunek mintzapraktika egitasmoan izena emateko honako motibazio hauei segitzen dietela nabarmendu dute: euskaltzaletasuna, ikasten ari direnei laguntzeko asmoa, euskara erabiltzeko aukera, eta aisialdia betetzekoa.**

*Euskaltzaletasuna, aisia betetzeko modua, ekarpena egin nahia.*  
Iker Martinez de Lagos.


*Batzuek denbora librea izaki, lagundu nahi dutelako: prest daude ikasten ari direnei bultzada txiki bat emateko. Beste batzuek euskaraz bizi nahi dute eta lagun koadrila bat topatzeko.*  
Rocio Luces

**Laburbilduz, esan dezakegu bidelagunek mintzapraktika egitasmoan parte hartzeko erabakiaren atzean arrazoi bat baino gehiago egon daitezkeela, baina euskara ikasten ari direnei laguntzea eta euskararen aldeko ekarpena egitea nabarmentzen direla batik bat. Laguntza edo ekarpen horren emaitza begi-bistakoa da (bidelarien gaitasunean, erabileran, asebetetzean). Ez dugu ahaztu behar euskara erabiltzea ere badela bidelagunentzako mintzapraktikan aritzeko arrazoi garrantzitsu bat, eta akaso pisu gehien duen arrazoia ez izanagatik, lagunak egitea egitasmoaren balio erantsizat jotzen da.**

## 3.2 BIDELARIEN MOTIBAZIOAK

### 3.2.1 **BIDELARIAK MINTZAPRAKTIKA EGITASMORA LEHEN ALDIZ HURBILTZEKO MOTIBAZIOAK**

3.C. **Grafikoa: Mintzapraktikan izena emateko arrazoiak (lehenengo urtean); hainbat faktoreren eragina. Bidelariak, 2009. (%ak).**



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

Mintzapraktikan hasi direnean, bidelarien motibazio garrantzitsuenak, hurrenkera honetan, euskara gehiago erabiltzea, eta euskara maila hobetzea dira. Lagunak egitea, lana, eta gaitasun agiria ez dira hain motibazio pisuzkoak, eragina badute ere. Ikus dezagun:

- Hasi berrien %80,5entzako euskaraz gehiago egiteak, erabilerak alegia, eragin handia izan du mintzapraktikan hasteko erabakian. %14,6k eragin ertaina aitortu dio.
- %71,3rentzako euskara maila hobetzeak eragin handia izan du, eta eragin ertaina %21,1entzako.
- Ikasitakoa ez galtzea ere arrazoi garrantzitsua da. %57,7k eragin handia aitortzen dio, eta %21,1ek eragin ertaina.
- Euskaraz bizitzeko nahiak eragin handia izan du %49,1engan, eta ertaina %31,3rengan. Bostetik batentzako euskara bizitzeko nahiak ez du izan batere eraginik edo eragin txikia izan du.
- %31,7rentzako lagunak egiteak eragin handia izan du hasteko erabakian, eta %30,5entzako eragin ertaina. %23,7rentzako ez du batere eraginik izan, eta %14,2rentzako eragin txikia.
- %28,4rentzako lanerako behar izateak eragin handia izan du, eta ertaina %20rentzako. Gehixeago dira eraginik batere ez (%34,3) eta eragin txikia (%17,3) aitortzen diotenak.
- %26,4rengan eragin handia izan du EGAK edo agiri ofizialen bat lortzeko prestatzeak, eta eragin ertaina %16rengan. Gehiago dira faktore horri batere eraginik ez (%43,6) eta eragin ertaina (%14) aitortzen diotenak.


Inkestako datuak irakurrita, honako ondorio honetara ailegatu gaitetzke: batetik, euskara erabili ahal izatea eta gaitasunean aurrera egitea direla motibazio nagusiak. Bestetik, eragin handiagoa dutela bidelari hasi berriengan atxikimenduzko eta harremanezko motibazioek (%49,1entzako eragin handia du euskaraz bizitzeko motibazioak eta %30,5entzako lagunak egiteko eta ongi



pasatzeko motibazioak), motibazio pragmatikoei baino (%28,4rentzako eragin handia du lanak eta %26,4rentzako EGA edo beste agiri ofizialen bat prestatzeak).

### 3.2.2 BIDLARIAK MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAN JARRAITZEKO MOTIBAZIOAK (BETERANOAK)

3.D. Grafikoa: Aurten mintzapraktikan izena emateko arrazoia; hainbat faktoreren eragina. Bidelari beteranoak, 2009. (%ak).



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

Urte bete baino gehiago daramaten bidelariarentzako mintzapraktikan jarraitzeko motibazio garrantzitsuenak, hurrenkera honetan, euskara gehiago erabiltzea, eta euskara maila hobetzea dira. Lagunak egitea, lana, eta gaitasun agiria ez dira hain motibazio pisuzkoak, eragina badute ere. Horrela:

- %84,0rentzako euskaraz gehiago egiteak, erabilerak alegia, eragin handia izan du mintzapraktikan jarraitzeko erabakian. %11,8k eragin ertaina aitortzen dio.
- Euskara maila hobetzeak eragin handia izan du %74,3rentzako, eta eragin ertaina %17,7rentzako.
- Ikasitakoa ez galtzeak arrazoi garrantzitsua izaten segitzen du; %68,8k eragin handia aitortzen dio, eta %19,5ek eragin ertaina.
- Euskaraz bizitzeko nahiak eragin handia izan du %60,6rengan, eta ertaina %26,4rengan. %13,0rentzako euskaraz bizitzeko nahiak ez du izan batere eraginik edo eragin txikia izan du.
- %38,0rentzat lagunak egiteak eragin handia izan du mintzapraktikan jarraitzeko, eta %35,1entzat eragin ertaina. %16,7rentzat eragin txikia izan du, eta %10,2rentzako ez du batere eraginik izan.
- Lanerako behar izateak eragin txikiagoa izan du hasi berriekin alderatuz. Eragin handia izan du %24,5entzako eta eragin ertaina %15,5entzako. Gehiago dira eraginik batere ere ez (%40,4) eta eragin txikia (%19,6) aitortzen diotenak.
- EGA lortzeak eragin handia izan du %18,5engan, eta eragin ertaina %12,5engan. Alabaina, gehiago dira batere eraginik ez (%52,7) eta eragin ertaina (%14,3) egozten diotenak. Hasi berriek baino garrantzi gutxiago ematen diote EGARI.

Inkestako datuak irakurrita, honako ondorio honetara ailegatu gaitzke: euskara erabili ahal izatea eta gaitasunean aurrera egitea dira motibazio nagusiak egitasmoan jarraitzea erabakitzen dutenen artean. Horrez gain, esan daiteke, eragin handiagoa dutela urtebete baino gehiago daramaten bidelariengan atxikimenduzko eta harremanezko motibazioek (%60,6rentzako eragin handia du

euskaraz bizitzeko motibazioak eta %38,0rentzako lagunak egiteko eta ongi pasatzeko motibazioak), motibazio pragmatikoeek baino (%24,5entzako eragin handia du lanak eta %18,5entzako EGA edo beste agiri ofizialen bat prestatzeak).

### 3.2.3 **BIDELARIEN MOTIBAZIOEN BILAKAERA**

Bidelagunen kasuan bezala, bidelarienean ere ez da motibazio-aldaketa handirik sumatzen egitaspora hurbiltzen direnetik bertan aritu eta jarraitzea erabakitzen dutenera: motibazioen egitura egonkorra da bidelarien kasuan ere. Hasi berritan zein egitasmoan denbora egin ondoren ere, kasu guztietan euskara erabili ahal izatea eta euskara maila hobetzea dira motibazio nagusiak. Badira, ordea, hasi berritatik beterano bihurtze bide horretan motibazio mailan gertatu ohi diren bi aldaketa aipagarri:

- Batetik, lanerako behar izatea edo EGA atera nahi izatea, indartsuagoa da hasiberrietan egitasmoan jarraitzen dutenen artean baino. Hots, hasieran baino pisu gutxiago du motibazio pragmatiko horrek egitasmoan aurrera egin ahala.
- Aitzitik, "euskaraz bizi nahi dudalako" eta "lagunak egiteko eta ondo pasatzeko" egitasmoan jardun ahala indartzen doazen motibazioak dira.

### 3.2.4 **BIDELARIEN MOTIBAZIOETAN SAKONTZEN**



**Elkarrizketa sakonetan, eztabaida taldeetan eta talde naturaletan entzundakoei jarraiki, orotariko jendea ari da mintzapraktikan, parte hartzeko askotariko arrazoiak dituen.**

*Ikastea, hobetzea, ideologia, euskaraz bizitzea eta erabiltzea.  
Diego Egizabal*

**Inkestako emaitzei erreparatzen badiegu, euskara maila hobetzeko eta gehiago erabiltzeko helburua dute nagusiki bidelariak. Ildo beretik, gaitasunarekin edo euskara maila hobetzearekin eta erabilerarekin zerikusia duten arrazoi ugari aipatu dituzte atal kualitatiboetan:**

- **Ikasketa prozesua burutzeko eta erabilerarako urratsa ematen laguntzeko.**

*Euskaltegietan dena da teoria, ez? Eta lexikoa, sintaxia, agian hiztegi pixka bat, baina hori ez da praktikatzen. Jendeak ez badu praktikatzen zelan ikasiko du hizkuntza bat?*

*(Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)*

- **Euskara maila hobetzeko.**

*Gure euskara hobetzeko, gainera giro onean; gusturago egiten duzu. Astero lagunekin elkartzen gara lasai hitz egiteko.*  
*(Zahar-berri, Arrasate, Topagunea).*

- **Aspaldi ikasi zutenek, galdutako ohitura berreskuratzeko edo ikasitakoa ez galtzeko.**
- **Lotsa kentzeko eta eroso edo lasai hitz egiteko: jarriotasuna lortzeko.**
- **Kaleko euskara bizia ikasteko (belarria egiteko).**
- **Hizkera ezberdinak entzuteko eta norberarena aberasteko.**
- **Euskalduntzearekin harremana mantentzeko euskaltegitik kanpo.**

*Ez nuen gogorik berriro euskaltegira joatea. Baina banuen gogorik euskararekin jarraitzeko. Orduan pentsatu nuen, zenbat aukera daukat edo ze aukera polita daukat euskara jarraitzeko? Mintzakiderena izan zen onena, politena.*  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Etxabaida Taldea)

- **Euskaraz hitz egiteko edo horretarako aukera izateko.**
- **Euskarazko giroa eta ingurunea izateko.**
- **Euskaraz hitz egiten dakien jendea ezagutzeko.**

*Euskara erabiltzeko aukera da. Euskaraz hitz egiten dakien jendea ezagutzeko, eta gero beti dago ondo jendea ezagutzea.*  
(Berbalaguna, Santurtzi, AEK).

**Horiez gain, aipatzekoak dira euskararekiko atxikimenduak edo euskaraz bizi nahiak, batetik, eta harremanek, bestetik, mintzapraktikan hasteko erabakian duten eragina (euskararekiko maitasuna, harreman afektiboak, etab.). Inkestako datuetan dezente eragina aitortzen diote bidelariak lagunak egiteari, eta eremu kualitatiboan presente dago harremanetarako nahi hori.**

- **Euskara maitatzeagatik.**
- **Familia-kide euskaldunekin euskarazko harremana izateko.**
- **Euskaraz bizitzeko.**

*Ez zen lan kontuengatik ez ezer... etxean ez zeukatela aukerarik. Bien senarrek ez zekiten euskaraz, koadrilan ezer ere ez, lanean ere ez, orduan ez zeukaten aukerarik...*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Etxabaida Taldea)

**Azkenik, bada beste motibazio sail bat lanarekin eta euskararen gaitasun agiriarekin zerikusia duena. Titulua lortzeko eta batez ere ahozko froga gaitzeko da baliagarria mintzapraktika ikuspegi horretatik.**

*Bazeuden bi EGArako... euskararako egiten zuten guztia horretarako zen... erizainak ziren, gogoratzen naiz, oso jatorrak baina ez zeukaten beste bi hoiek eduki ahal zuten jarrera hori. Baina oso pozik etortzen ziren.*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Etxabaida Taldea)

*EGA prestatzen ari naizenez praktikatzeko ondo etortzen zait. Mintzakiden hasi nintzenean nire helburua hori zen, ze praktikatzeko posibilitateak gutxi dauzkat.*  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Etxabaida Taldea)

**Gaitasun agiria lortzea helburu dutenen artean ere, badira alde handiak, baina "behartuta-edo" etortzen direnen kasua izan dute ahotan behin baino gehiagotan.**

*Euskara ikasten ari dira behar dutelako, baina gainera euskara gorrotatu ez... baina nazka hartzen diote. Presio asko dute, plazak eta hori... Haiek presio handia zeukaten eta nik nahi dudalako... Gure helburua oso desberdina da...*  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Etxabaida Taldea)

**Mintza egunean, motibazioen gaiarekin lotuta gauza interesgarriak aditu ditugu. Mintza taldeak ez dira talde naturalak, baina urtean joanean iraunez gero, talde natural bilaka daitezke. Santutxuko talde batek behintzat bilakaera hori izan du. Astean behineko hitzorduari eusten diote, baina taldekideen arteko harremana natural eta informal bihurtu da. Kasu horretan harreman motibazio horrek (laguntasunak) pisu handia du. Hasi berrien eta urtebete baino gehiago daramatenen artean aldea dago; laguntasun motibazioaren eragina handiagoa baita beterranoen artean. Beraz, datuek joera edo ibilbide hori egiaztatzen dute.**

**Motibazioei lotuta, euskara proba egin eta gero taldea utzi dutenen kasua behin baino gehiagotan agertu da. Kontrako norabidea ere gerta liteke; azterketa bat gaitzeko hurreratu diren zenbaitek gero taldean sartuta euskararekiko hain instrumentalak ez diren motibazioak garatzea, alegia.**

# 4 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN BIZIPENA ETA BALORAZIOA

## 4.1 BIZIPENAK



Mintzapraktika egitasmoan aritzeari buruzko bizipenak askotarikoak dira. Edonola ere, talde naturaletan eta eztabaida taldeetan entzundakoaren arabera, Mintzapraktika egitasmoaren inguruan bizipen baikorrak izan dira nagusi: esperientzia polit, interesgarri eta aberasgarritzat jo dute mintzapraktika, oro har, eta gomendagarria iruditu zaie.

*Lagunekin elkartzea bezalakoa da, solasaldia eduki eta gustura egoteko.  
(Mintzakide, Iruñerria, Topagunea).*

*Esperientzia polita da. Jende ezberdina ezagutu dut. Lagunei gomendatu diet.  
(Berbalaguna, Santurtzi, AEK)*

*Esperientzia oso positiboa, gomendagarria eta pertsonalki oso pozik gelditu nintzen. Antolakuntzarekin baita ere, dinamizatzailerekin egin nuen harremana eta ez daukat inolako kezarik.  
(Bidelagun ohiak, Arabako Eztabaida Taldea)*

*Egia esan oso gustura nago. Beraiei laguntzeaz gain, ni pertsonalki nago pozik, nire aletxoak jartzen dudalako.  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)*

**Bizipen baikorren erakusle agerikoena laguntasuna da, eta, mintzapraktika taldeotan, lagun onak egin ditu batek baino gehiagok (arestian ikusi dugu nola motibazio horren pisuak gora egiten duen urtebete baino gehiago daramatenen artean).**

**Taldearen iraupena giro onarekin eta elkar hartzearekin lotuta dago. Oso ohikoa da taldeek ordu bat baino gehiago irautea, gustura aritzen diren seinale.**

*Ni eta koadrilako beste bat konbentzitu nuen nirekin apuntatzeko, eta gelditzen gara hiru euskaldun berrirekin. Astean ordu t'erdi. Gero beti gehiago gelditzen gara, bi ordu edo.  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)*

**Baina denak ez dira izan bizipen baikorrak. Bizipen ezkorrak ere izan dira tarteko, eta horiei erreparatu diegu bereziki, hobetzeko pistak hortik aterako ditugulakoan. Honako hauetan laburbiltzen dira:**

- Kideak berandutzea eta zain egon behar izatea.
- Aldez aurretik ez abisatzea etortzerik ez badute.

- **Taldekideen asistentzia falta eta jarraikortasunik eza.**
- **Taldearen desegitea.**

*Jendea oso inpuntuala zen; batzuetan egoten ginen hor arduraduna eta biok ordu erdi luze itxoiten... hori zen normalena.*  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Euzabaida Taldea)

*Ezagutzeko jende guztia eman nituen hiru hilabete, bata ez zen agertzen, bestea... Baina, apuntatuta zeuden zazpi pertsona!*  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Euzabaida Taldea)


*Hasi ginen 5, aste bat pasa ta gero 4, eta bi aste pasa ta gero 3, eta horrela, geratu ginen 2 [...]. Biren artean azkenean ez zen oso ondo joan, uzten duzu eta azkenean hilean bitan edo geratzen zara... noizbait, elkar ikusten dugu eta kafe bat hartzen dugu... ez zen talde bat.*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Euzabaida Taldea)

**Taldeen arrakasta lagundu dezake gutxieneko kide kopuru batek, izan ere, talde handiek badute abantaila bikote edo hirukoteekiko, alegia, beti ziurtatzen dela gutxieneko kopurua.**

## 4.2 HELBURUEN ARABERAKO BALORAZIOA

### 4.2.1 BIDELAGUNEN BALORAZIOAK

#### 4.A. Grafikoa: Helburuen araberako balorazioa. Bidelagun beteranoak, 2009. (%ak).



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

Bidelagunek euren helburuekiko baikorki baloratzen dute mintzapraktika. Oro har, asko edo zerbait balio izan die euren helburuak betetzeko.

- %76,1i asko balio izan dio ikasten ari direnei laguntzeko, eta %19,6ri zerbait.
- %68,5i asko balio izan dio euskararen aldeko ekarpena egiteko, eta %29,4ri zerbait.
- %72,7ri asko balio izan dio euskaraz gehiago egiteko, eta %18,5i zerbait. %5,1i ez dio batere balio izan euskaraz gehiago egiteko.
- %46,5i asko balio izan dio lagunak egiteko, eta %42,5i zerbait. %4,7ri ez dio batere balio izan lagunak egiteko.


3. atalean bidelagunen motibazioez jardun gara. Orduan ikusten genuena eta datu hauek erakusten digutena parez pare aztertuta, gogoetarako parada irekitzen zaigu. Batetik, datuek adieraziko lukete euren motibazio nagusiak (euskarari ekarpena egitea eta euskara ikasten ari direnei laguntzea) asebate egin dituela egitasmoak. Mintzapraktikaren esperientzia baloratzerakoan ere, puntuaziorik altuenak bi item horiek jasotzen baitituzte bidelagunen kasuan. Espektatibak bete dira, beraz.

Horrez gain, nabarmentzekoa da, motibazioetatik balorazioetara jauzi egiten ari garen honetan, hainbesteko pisua ez zuten bi motibazio multzok ere balorazio oso onak eskuratzen dituztela. Horrela, euskaraz gehiago egin ahal izatea eta lagunak egitea / ondo pasatzea ez ziren agertzen motibazio nagusi gisa. Hala ere, baloratzerako orduan, balorazio baikorra da nagusi bi alor horietan ere. Horrek esan nahi du hasieran helburu nagusi edo lehentasunezko ez ziren horietan ere baliagarritasun handia aitortu diotela mintzapraktikari (euskaraz gehiago egiteko eta lagunak egiteko).

Nolabait, bada, motibazio nagusiak aseta, eta motibazioetan hain garrantzitsuak ez ziren bi alor horiekiko gustura azaltzen zaigu bidelaguna.

## 4.2.2 BIDELARIEN BALORAZIOAK

### 4.B. Grafikoa: Helburuen araberako balorazioa. Bidelari beteteranoak, 2009. (%ak).



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

Bidelariak euren helburuekiko baikorki baloratzen dute mintzapraktika. Oro har, asko edo zer bait balio izan baitie horiek betetzeko:

- %84,6ri asko balio izan dio euskaraz gehiago egiteko, eta %13,4ri zer bait.
- %77,2ri asko balio izan dio ikasitakoa mantentzeko, eta %19,7ri zer bait.
- %73,5i asko balio izan dio euskara maila hobetzeko, eta %22,5i zer bait.
- %61,5i asko balio izan dio euskaraz bizitzeko nahia handitzeko, eta %30,1i zer bait.
- %49,5i asko balio izan dio lagunak egiteko, eta %39,2ri zer bait. %4,5i ez dio batere balio izan lagunak egiteko.
- %35,0ri asko balio izan dio lanerako, eta %30,2ri zer bait. %23,8ri ez dio batere balio izan lanerako, eta %11,0ri ez askorik.
- %35,7ri asko balio izan dio EGA edo beste agiri ofizialen bat prestatzeko, eta %21,6ri zer bait. %34,1i ez dio batere balio izan, eta %8,6ri ez askorik.

Bidelagunen kasuan bezala, alderatu ditzagun mintzapraktikan hasteko zituzten motibazioak eta egitasmoan parte hartu ondoren egiten duten balorazioa. 3. atalean bidelarien motibazioez jardun garenean ikusi dugu euskara erabiltzea eta euskara maila hobetzea zituztela motibazio nagusi. Balorazioak aztertuta, badirudi alor horretan espektatibak bete dituela mintzapraktikak. Horrela, mintzapraktikari buruzko balorazio altuenak, honako alorretan egin dituzte bidelariak: euskaraz gehiago hitz egitea, ikasitakoa mantentzea eta euskara maila hobetzea. Helburu nagusiak, beraz, aseta azaltzen zaizkigu, balorazioak aztertuta.

Badira beste bi alor nagusi, ordea, hasierako helburuetan hain garrantzitsuak ez izanda ere, euren balorazioetan nabarmen baloratu dituztenak:

- Lagunak egitea eta ondo pasatzeak oso balorazio positiboa izan du bidelarien artean. Horrela, hasieran helburu nagusi edo lehentasunezko ez zen horretan ere baliagarritasun handia aitortu diote bidelariak mintzapraktikari.

- Gauza bera esan dezakegu lanerako eta EGA edo agiri ofizialen bat prestatzeko ere, helburu nagusi edo lehentasunezkoztat ez izanda ere, bidelari gehienek asko edo zerbait balio izan diela aitortu dute.

Horrela bada, motibazio nagusiak aseta, eta motibazioetan hain garrantzitsuak ez ziren bi alor horiekiko gustura azaltzen zaigu bidelaria.

### **4.2.3 HELBURUEN ASEBETETZEA ZAILTZEN DITUZTEN EGOERAK**



**Eztabaida taldeetako parte hartzaileen balorazioa, bizipenen ildotik, baikorra izan da oro har. Nolanahi ere, bereziki aztertu nahi izan ditugu helburuen betetzea zaildu, oztopatu edo eragotzi duten egoerak.**

**Maila mantentzeko asmoa izan, eta azkenean inguruko eraginez maila galtzea gertatu da.**

*Eta gelditzen ginen beti taberna batean eta hori, 9.00etan taberna batean edo gosaldu edo kafe bat hartu... niretzat ez zen nahikoa izan. Ni apuntatu nintzen mantentzeko maila eta azkenean galdu nuen.  
(Bidelagun ohiak, Arabako Eztabaida Taldea)*

**Horrekin lotuta, euskara mailen arteko aldeak taldearen dinamika zailtzen du.**

*Nire arazo larriena zen euskara maila oso ezberdina zela, oso-oso ezberdina.  
Baina bueno denok aportatzen dugu zer edo zer.  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Eztabaida Taldea)*

**Parte hartzaileen artean adin aldea handia izateak taldearen iraupena eta helburuen lorpena edo asebetetzea zailtzen ditu. Herri txikietan zailagoa da adinaren arabera taldekatzea.**

*Hiru gizon nahiko helduak zirela... eta geundela bi neska, beste neskak zituen 22 urte eta nik 25. Beste neska hasi zen pasatzen, ez zen hainbeste etortzen eta orduan ni nengoen gizonekin, hitz egiten eta bai gustora, baina azkenean... jende gaztea behar nuen, ze bestela aspertzen naiz. Eta beraiek nirekin igual... gelditzen ginen baina azkenean... jendea falta dela edo ez dakit zein izango zen arazoa.  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Eztabaida Taldea)*



## 4.3 DINAMIZATZAILEA, BIDELAGUNA ETA TALDEA BALORATUZ

### 4.3.1 **DINAMIZATZAILEAREN BALORAZIOA**

Nola baloratzen dute bidelagun eta bidelariak dinamizatzailearen lana? Inkestan jasotako erantzunen arabera, nabarmena da orokorrean positiboki edo oso positiboki baloratzen dutela.


Horrela, dinamizatzaileari dagozkion hainbat zeregin nola egiten dituen galdetuta, erantzun baikorrak nagusi dira **bidelagunen** artean:

- Jardueren antolakuntza eta komunikazioa egoki edo oso egoki egin duela diote bidelagun ia guztiek (%99,3).
- Arazo, galdera eta zalantzei eman dien erantzuna ere egoki edo oso egokitzat jotzen dute %98,9k.
- Taldea ere modu egoki edo oso egokian osatu duela diote bidelagunen %98,6k.
- Taldeari egin dion jarraipena ere egokia edo oso egoki iritzi diote %97,8k.

**Bidelariak** ere ia aho batez jotzen dute egoki edo oso egoki dinamizatzailearen lana:


- Jardueren antolakuntza eta komunikazioa (bidelarien %98,8k jotzen du egoki edo oso egokitzat)
- Arazo, galdera eta zalantzei eman dien erantzuna (%97,8).
- Taldea nola osatu duen (%97,8).
- Taldeari egin dion jarraipena (%96,0).

#### 4.C. Grafikoa: dinamizatzailearen lanaren hainbat alorren balorazioa. Bidelari beteteranoak, 2009. (%ak).



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009


**4.D. Grafikoa: dinamizatzailearen lanaren hainbat alorren balorazioa. Bidelagun beteteranoak, 2009. (%ak).**



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

Aurreko erantzunak irakurrita, ez da harrizkoa dinamizatzailearen balorazio orokorra 0-10 eskalan egiteko eskatu zaienean, bidelagun zein bidelariak eman dioten puntuazio altua: 8,5eko batez besteko nota atera dute dinamizatzaileek bidelagun zein bidelarien artean. Eta horietako gehienek bikain bat (9 edo 10ko puntuazioa) eman diete dinamizatzaileei (bidelagunen %50,3k eta bidelarien %58,4k).

**4.E. Grafikoa: Dinamizatzaileari buruzko balorazio orokorra 0tik 10 arteko eskalan. Bidelagun beteteranoak eta bidelari beteteranoak, 2009. (batez bestekoak eta %ak).**



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009



**Dinamizatzaileari buruz talde naturaletan eta eztabaida taldeetan egin diren aipamenak baikorrak izan dira, beraz, inkestaren emaitzekiko koherentea da azalerratu den diskurtso nagusia. Bidelagun zein bidelariak, dinamizatzaileen eta antolakuntzaren lana ongi baloratzen dute.**

*Hemengo arduradunak asko lantzen du, astero zerbait antolatzen du, oso lan gogorra da, eta ondo, primeran egiten du, beti gurekin, eta beti prest.*  
(Berbalaguna, Santurtzi, AEK).

*Bi gelditu ginenean esan ziguten bidaliko dizuegu jende gehiago... Itxoin genuen, saiatu ziren, eta ez zen posible izan, baina ni pozik egon nintzen, hori izan ezik nahiko ondo.*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Eztabaida Taldea)


*Nik uste dut antolatzaileek ondo egiten dutela eta kriston lana egiten dutela. Pentsatzen dut rolloa dagoela jendearengan. Ez daukate konpromisorik, behartuta joaten dira eta orduan ez da sortzen giro on bat.*  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)

### 4.3.2 BIDELAGUNAREN BALORAZIOA

Zein balorazio merezi dute bidelagunek bidelarien begietara? Kasu honetan ere, balorazio oso baikorrak dira nagusi. Horrela, bidelagunaren lana egokia edo oso egokia dela diote bidelari ia guztiek, galdetu izan zaien alor guztietan:

- Eredu emateari dagokionez (euskara egokia, jatorra, bizia, etab.). Egokia edo oso egokia iruditu zaie alor honetan bidelagunaren lana bidelarien %99,0ari.
- Asistentzia eta parte hartzean erakutsi duen ardura (%96,2).
- Beste euskaldun batzuk ezagutzeko eta euskal kulturara hurbiltzeko laguntza (%96,0).


#### 4.F. Grafikoa: bidelagunaren lanaren hainbat alorren balorazioa. Bidelari beteranoak, 2009. (%ak).



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

Bidelariei euren taldeko bidelaguna 0-10 eskalan baloratzeko eskatu zaienean, 8,6koa izan da batez besteko puntuazioa. Eta bidelarien %59,0ak bikain batez (9 edo 10 puntu) baloratu dute bidelaguna.

**4.G. Grafikoa: Bidelagunari buruzko balorazio orokorra 0tik 10 arteko eskalan. Bidelari beterranoak, 2009. (batez bestekoak eta %ak).**



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009



**Bidelagunaren paperaren garrantzia azpimarratzerakoan bat datoz elkarrizketatu ditugun adituak. Eredu emaile izatea baino, bideratzaile izatea legokioke. Gisa berean, eztabaida talde eta talde naturaletan bidelagunari dinamizatzaile eta eredu emaile papera dagokiola nabarmendu dute.**

**Bidelagunaren papera funtsezkoa da, batez ere bidelariak euskara maila apala dutenean. Taldearen arrakastaren gakoa ere bada neurri handi batean.**

*Bigarren urtean euskaldun zaharra geneukan, eta nabaritzen zen asko! Hiztegia, erraztasuna...*  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)

**Bidelagunak taldea dinamizatu behar du, eta ez dagokio etengabe zuzentzen aritzea; lehentasuna hitz egin araztea da. Zuzentzea zenbait kasutan beharrezkoa da, hala ere.**

*Hasten banaiz zuzentzen, gure arteko elkarrizketa edo momentu hoiak galdu egingo dira. "Orduan, zer nahiago duzue ni hemen jartzea zorrotz? Edo zuei espontaneoki ateratzen zaizuen botatzea?" Orduan gehiengoak esan zuen nahiago zutela... oso larria baldin bazen gaizki esana, orduan zuzentzen zitzaien eta ni saiatzen nintzen zuzentzailea ni izan ordez, zegoen bat, Carlos, nahiko euskera bazekiela, orduan, bilatzen nuen bere inplikazioa.*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Eztabaida Taldea)

*Horretarako geunden gu, ezta? Galderak egin eta egin. Nik behintzat hitz egin arazi...*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Eztabaida Taldea)

*Lo que no necesitas es que continuamente te corrijan, porque al final te cortas y no hablas. Lo que necesitas es coger habilidad y perder verguenza. Pero de vez en cuando cuando dices una metedura de pata gorda, que te diga que no es así. Y yo por ejemplo el primer año, al no tener, y como nuestro nivel era de indios, igual ese año sí necesitábamos a alguien que te guíe..*  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)

**Izan ere, taldeak konfiantza hartzeko hobe da zuzentzeko gehiegi ez moztea.**

*Konfiantza hartu zuten eta horregatik seguraski, zuzentzen ez nintzelako sartu.  
(Bidelagun ohiak, Arabako Etxabaida Taldea)*

**Ahozko elkarrekintza sustatzea litzateke bidelagunaren zeregin nagusia, batetik.**

*Ahozko elkarrekintzak nolakoa behar du izan? Mintzapraktika esparru informalean gauzatzen da. Isiltasunak tentsioa eragin dezake. Laguntzaileak agian ez ditu hitz txandak errespetatzen, ez die hitz egiten uzten. Horren kudeaketa landu behar da, proxemia, etab.  
Diego Egizabal*

*Horri eman beharra zaio lehentasuna: nola bideratu gatazkak, nola erakarri jendea, nola aintzat hartu jendearen iritzia, etab.  
Edorta Lopez*

*Bidelagunak jendea erakarri edo uxatu dezake. Laguntzailearen jarrerak taldea trinkotu eta lagundu dezake, ondo konpondu dadin.  
Fernan Ruiz*

**Ikuspegi horretatik beharrezkoa litzateke bidelagunari nolabaiteko trebakuntza eskaintzea, betiere, borondatezkoa litzatekeena. Arazoa da bidelagun-gaia uxatu dezakeela gehiegizko eskakizun batek. Trebakuntza ez bada, gutxien-gutxienik, jokabide egokien protokolo edo dekalogo gisako bat euren esku jartzea ongi legoke.**

**Horri kontrajartzen zaio mintzapraktika egitasmotik zabaltzen den mezua. Izan ere, bidelagunak ez du baldintza berezirik konplitu behar, eta, ez zaio hortaz, aparteko trebakuntzarik eskatzen.**

*Pisua kendu behar zaio bidelagunari, ez da irakaslea, ezta gidaria ere. Taldekide bat da, lotura egiten duena. Trebakuntza saioak horregatik baztertu ditugu, izan ere, ez da baldintza berezirik behar.  
Iker Martinez de Lagos*

**Batera izan nahiz bestera izan, argi gelditu da bidelagunaren zeregin definitzearen beharra.**

*Beren papera ondo definitu beharra dago, eta gero jakin behar dute nola jokatu eta norengana jo laguntza edo aholku eske.  
Edorta Lopez*

**Bidelaguna eredu emaile litzateke, bestetik. Esan nahi baita, eredu egokia eskura izaten dutela bidelariak hari esker. Bidelaguna eredu emaile izatea desiragarria bada ere, ez da derrigorra euskaldun zaharra izatea. Aitzitik, bidelagunik gabe ere aurrera egin dezake taldeak. Bestalde, jauzi linguistiko handiegiak sor dezakeen eragin kaltegarriari ere erreparatu behar zaio.**

*Bidelaguna euskaldun zaharra bada, hobe, eredu jatorrak emateko. Hala ere, hasierako saioak ongi bideratu behar dira jendea lasai egoteko. Izan ere, euskara traketsa dutenek euren burua mugatu baitezakete hainbesteko jauzia ikusita.  
Edorta Lopez*

*Ez da derrigorra euskaldun zaharra edo laguntzailea egotea, baina horrek laguntzen du. Bat gutxienez, besteentzako hizkuntza eredu izango dena.  
Fernan Ruiz*

**Besteena entzutea beti da onuragarria, batez ere hobe bada. Horrez gain, antzeko egoeran dauden eta maila bertsua duten pertsonak elkartzearen onuraz mintzatu zaizkigu.**

*Euskara maila hobetu dut. Astean behin ezin da asko hobetu, baina lotsa kendu bai. Zeren zu bezalako jendearekin zaude. (Zahar-berri, Arrasate, Topagunea).*

**EGA prestatu behar dutenek edo titulua eskuratu nahi dutenek zuzentzea nahi izaten dute, eta ohikoa da bidelagunei hori eskatzea. Taldeotako bidelagunek ez dute hori baikorki bizitu: dela paper hori ez zegokiela uste zutelako, dela horretarako gaitasunik ez zutelako.**

*Elkarrizketak sortzen ziren bi pertsonen artean eta esaten zidaten: "Ondo esan dut?", "Ibai nola esaten da zera? Eta bestea?". Eta jo azkenean ni ez nintzen integratzen ondo ez? Ni ez nengoen hor zuzentzeko, ni nengoen parte hartzeko. (Bidelari ohiak, Bizkaiko Etxabaida Taldea)*

*Ni talde horretan izan banintz, euskara zuzentzen... zeren konturatzen naiz arauak asko aldatzen direla eta nire garaian, EGA gainditu nuen eta orain hasiko banintz talde batean arauak nola diren esaten, azkenean nik ikasi beharko nuke berriz eta [...] birziklapen kurtso horretan, zerbait barneratzen duzu, baina ez nintzateke izango gai esateko euskaldun berri bati "orain araua horrela da" [...]. (Bidelagun ohiak, Arabako Etxabaida Taldea)*

**Ordea, bidelagunak ere euskara maila mantentzea izan dezake helburu, eta EGA-dun guztiek ez dute derrigorrean eredu emaile papera jokatu beharrik.**

*Nire kasuan zorte txarra izan zen zeren jendeak, lana dela eta ez dela, azkenean utzi zuen. Nik EGA daukat, baina nire maila ez da zuena. Ni joan nintzen mantentzeko eta ez nuen mintzalaguntzailea izan nahi, baina tokatu zitzaidan... Baina gertatu zitzaidana zen bizioak hartu nituela... Zorte txarra izan zen eta nik uste dut beste talde batean hobeto egongo nintzatekeela, baina tokatu zitzaidan... baina ez zen esperientzia txarra izan. (Bidelagun ohiak, Arabako Etxabaida Taldea)*

**Bidelagunen gaineko balorazioaren atal hau borobiltzeko, Mintza Egunean elkarrizketatu ditugun bidelariak esandakoekin gelditzen gara: funtsezkotzat jotzen zuten laguntzaileen papera (eta esker oneko ikusi ditugu haiekiko). Bideratzaile izan behar dutela aipatu digute. Lehenbiziko hurbilpenean izandako hautematea berretsi egin dute inkestako datuek, hain zuzen ere, bidelariak bidelagunen lana estimatzen dutela.**

### 4.3.3 TALDEAREN BALORAZIOA

Euren mintzapraktika taldea baloratzeko eskatu diegu bidelagun zein bidelariei.

**Bidelagunen** erantzunak irakurrita, berriro ere oso balorazio positiboak dira nagusi. Izan ere, taldearen inguruko hiru alorrei buruz galdetu diegu, eta erantzun baikorrak jaun eta jabe dira hiruretan:


- Taldekideen arteko errespetua (egokitzen edo oso egokitzen jotzen dituzten bidelagunen %99,0k).
- Laguntasuna eta afinitatea (%99,3).
- Hitz txanden kudeaketa: denok parte hartzeko aukera (%97,6).

**Bidelariak** ere, oso modu positiboan baloratzen dituzte taldearen dinamikari buruzko hiru alor horiek:

- Taldekideen arteko errespetua (egokitzen edo oso egokitzen jotzen dituzten bidelarien %98,9k).


- Laguntasuna eta afinitatea (%97,9).
- Hitz txanden kudeaketa: denok parte hartzeko aukera (%97,5).

**4.H. Grafikoa: taldearen hainbat alorren balorazioa. Bidelagun beteranoak, 2009. (%ak).**



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009


**4.I. Grafikoa: taldearen hainbat alorren balorazioa. Bidelari beteranoak, 2009. (%ak).**



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009

Taldeari buruzko balorazioa 0-10 eskalan egiteko eskatu diegu parte hartzaileei. Bidelagunek 8,7ko batez besteko puntuazioa eman diote taldeari eta bidelariek 8,8koa. Bidelagunen %55,9k eta bidelarien %64,9k bikain batez (9 edo 10 puntu) baloratu dute euren taldea.

**4.J. Grafikoa: Taldeari buruzko balorazioa (IV): Taldekideen arteko harremana 0tik 10 arteko eskalan. Bidelagun beternoak eta bidelari beternoak, 2009. (%ak).**



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009



Talde naturaletan hitz txanden kudeaketa izan dute hizpide. Hitz egiteko eta parte hartzeko giroa sortzeko errespetua da gakoa. Inkestako emaitzak eta taldeotako bizipen baikorrak bat datoz. Batzuk besteak baino hiztunagoak dira noski, eta, hala ere, norbaitek hitz egiten duenean besteek entzun egiten dute. Bidelarien eta bidelagunen artean zenbat eta desoreka txikiagoa hizketaldian, orduan eta hobe.

Eztabaidagaiak atera ahala edo adostasunez erabakitzen dira. Gaiak baldintzatzen du solasa ezbaierik gabe; ezagutzen denari eta interesgarritzat jotzen denari buruz errazago hitz egiten da. Bestela, bakoitzak dakiena erakusten die besteei. Dena dela, gaia interesekoa izan nahiz ez izan, beti ikasten da gainerakoek hizketaldietatik.

*Ez da gai polemikorik izan. Agian gai horiek ebitatu ditugu. Politikak banatzen gaitu gizartean. Eztabaida gogorra izaten da laguneren artean...  
...euskaraz ongi ez dakigulako, bestela gehiago eztabaidatuko genuke...  
(Mintzakide, Iruñerria, Topagunea).*

*Egun batzuetan gaia ez zaizu hainbeste gustatzen, eta ez dakizu zertaz hitz egin...  
bitartean laguntzailearen esamoldeak entzuten bakarrik, orduan ere ari zara ikasten.  
Bestela ez dago gai taburik.  
(Mintzakide, Iruñerria, Topagunea).*

Taldearen dinamikan edo giroan erabateko eragina dauka taldekideen gogoak edo jarrerak. Eztabaida taldeetan behin baino gehiagotan izan dute hizpide gaitasun proba prestatzeko "behartuta" joaten direnen kasua. Horieta batzuen jarrerak ez du laguntzen giro atsegina sortzen.

*Badira titulua behar dutenak eta igual gozatzen dute euskara ikasten, baina batzuk etortzen dira horrela [Hasperen egin du]: "Ba ez agertu, ez etorri!".  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)*

*Gustora nengoen, baina batzuetan ematen zuen jendea "a la fuerza" joaten zela...  
batzuetan agertzen ziren batzuk, besteetan beste batzuk... eta nik behintzat ez nuen lortu harreman trinko bat, eta azkenean aspertuta. O sea aspertuta, ondo pasatzen nuen, baina esfortzua hain handia zen eta ez zegoen feeling...  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)*



Inkestako datuei erreparatuta goian aipatzen diren esperientziak anekdota lirateke; eztabaida taldeetan mintzapraktika kideen arteko gorabeherak (ez direnak, bestalde, larritasun berezikoak) arrunt samarrak direla aditzera eman dute. Datu kuantitatiboen eta informazio kualitatiboaren arteko jauzia handia da kasu honetan. Hala ere, hori ez da harritzekoa, izan ere, zailtasun, gabezia eta funtzionamendu okerretan sakontzeko eskatu baikenien eztabaida taldeetako partaideei.

#### **4.3.4 DINAMIZATZAILEA, BIDELAGUNA, TALDEA... BALORAZIO ALDERATUAK**

Balorazio oso baikorrak nagusi dira, beraz, mintzapraktikako parte hartzaileei dinamizatzaile, bidelagun eta taldeari buruzko iritzia eskatu diegunean. Positibotasun horretan ñabardura batzuk bilatuta, honako xehetasunak egin ahal ditugu:

- Balorazio apur bat positiboagoak egin izan dituzte bidelariak bidelagunek baino.
- Batzuek zein besteek positiboago baloratzen dituzte baloratu beharrekoak zenbat eta hurbilagoak izan:
  - Bidelagunek apur bat positiboago baloratzen dute taldea, dinamizatzailea baino.
  - Bidelariak hobetoxeago baloratzen dute taldea bidelaguna baino, eta bidelaguna dinamizatzailea baino.


Aldeak, hala ere, ez dira handiak. Orogen gaineratik, aztertutako gai guztiekiko balorazio positibo argia azpimarratu behar da.

## 4.4 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN BALORAZIO OROKORRA

Aurreko orrietako tonu positiboa birbaieztatu egiten da Mintzapraktika egitasmoaren balorazio orokorrari buruzko datuekin. Parte hartzaileei Mintzapraktika egitasmoa 0-10 eskalan baloratzeko eskatuta, bidelagun zein bidelariak eman dioten batez besteko puntuazio oso altua da: 8,6koa bidelagunek eta 8,5koa bidelariak. Parte hartzaile gehienek, gainera, bikain bat (9 edo 10eko puntuazioa) eman diote Mintzapraktika egitasmoari (bidelagunen %53,2k eta bidelarien %53,0k).

Guztiarekin, bada, egitasmoaren balorazioa oso ona da; beldurrik gabe baieztatu dezakegu parte hartzaileen asebetetze maila oso altua dela.

### 4.K. Grafikoa: Balorazio orokorra: Mintzapraktika egitasmoa 0tik 10 arteko eskalan. Bidelagunak eta bidelariak, 2009. (batez bestekoak eta %ak).



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoa parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009



**Musika berbera aditu dugu eremu kuantitatiboan zein eremu kualitatiboan. Izan ere, talde naturaletan baikorki baloratu dute Mintzapraktika egitasmoa: momentu goxoa da, aberasgarria, eta lagunekin elkartzea bezain gustagarria.**

*Pozik noa euskarazko ekitaldi guztietara, eta bereziki berbalagunera.  
(Berbalaguna, Santurtzi, AEK).*


*Gustura nago, eta jarraitzeko asmoa dut. Ez zait kostatzen ordu bat asteen,  
euskararekin normaltasuna lortzeko.  
(Mintzakide, Iruñerria, Topagunea)*

## 5 SARTU-IRTENAK, UZTEAREN ARRAZOIAK ETA HURRENGO IKASTURTERAKO JARRERA

Txosteneko 1.3. atalean aurkeztu dugu mintzapraktika sartu-irten asko duen egitasmoa dela. Atal honetan, horrekin lotutako hainbat fenomeno aurkeztuko ditugu, egitasmoa uztearen fenomenoari arreta berezia eskainiz.

### 5.1 BIDELAGUNEN ETA BIDELARIEN ANTZINATASUNA

5.A. Grafikoa: Zenbatgarren urtea mintzapraktikan. Bidelagunak eta bidelariak, 2009. (%ak).



Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009


Aurtengo Mintzapraktika egitasmoan parte hartzen dutenen artean, zati garrantzitsu batek (bidelagunen %29,6k eta bidelarien %42,8k) lehenbiziko urtea dute honakoa. Gainerakoak bidelagun zein bidelari *beteranoak* dira, gutxienez urte beteko antzintasuna dutenak.

- Antzintasuna handiena bidelagunek dute; ia heren batek (%32,2k) lau urte edo gehiago egin ditu egitasmoan, %16,8k hirugarren urtea dute honakoa eta %21,4k bigarrena.
- Bidelarien artean, esan bezala, gehiago dira hasi berriak: %42,8k lehenbiziko urtea dute. Lau urte edo gehiago daramatenak %14,5 dira, %17,7k hirugarren urtea dute eta laurdenak (%24,8) bigarrena.

Horrela bada, batez beste bidelagunek denbora gehiago daramate mintzapraktikan bidelariak baino. Baina kasu batean zein bestean asko dira hasi berriak.

Bidelagunen ibilbidean, hainbat bidelagun bidelari gisa hasi ziren mintzapraktikan. Zehazki, sei bidelagunetik bat (%16,9) bidelari izan zen lehenago.

**5.B. Grafikoa: Bidelagun baino lehenago bidelari izatea. Bidelagunak, 2009. (%ak).**



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua.

## 5.2 BIDELAGUNEK EGITASMOA UZTEKO ARRAZOIAK

**Bidelari eta bidelagun ohiekin egin ditugun eztabaida taldeetan egitasmoa uzteko arrazoietan sakondu dugu. Agerian gelditu da hainbat arrazoi egon daitekeela egitasmoa uztearen atzean, baina nagusiki denbora falta aipatu dute, lanarekin edo familia ardurekin lotzen dena.**

*Nik lanagatik utzi nuen. Lanaldia handitu zidaten eta bestetik soldata murriztu, orduan beste lan bat bilatu behar izan nuen eta asteburuetan ere lan egin nuen irailean. Orduan astean zehar lan egiten, eta pixka bat ba niretzako denbora, ba bueno lehentasunak. Eta azkenean ba ez naiz joango.*  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)

*Lanpetuago nengoen umeak hazi zirelako eta pena askorekin, utzi behar izan nuen.*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Eztabaida Taldea)

**Horrez gain, bestelako arrazoi hauek mahai gaineratu dituzte.**

- **Esperientzia ez zelako ona izan.**
- **Ikasketak bukatzea eta herrira bueltatzea.**
- **Ikasturte bukaeran jarraitzeko erabakirik ez hartzea.**

*Iaz bukatu genuenean inork ez zuen esan jarraitzeko ere, eta gero kurtsoaren hasieran ibili naiz ba, ordenagailua ta ez dakit zer, liatuta ta bueno, orduan ba hori...*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Eztabaida Taldea)

## 5.3 BIDELARI OHIEN ARGAZKI LABURRA (BIDELARIEKIN ALDERATUTA)

Esan dugu, sartu-irten askoko errealitate bat dela Mintzapraktika egitasmoarena. Askok direla urte urte egitasmoa etortzen diren parte hartzaile berriak, eta, askok direla, halaber, egitasmoa uzten dutenak. Hurrengo puntuan, bidelari ohiek egitasmoa uzteko azaldu dizkiguten arrazoiak aurkeztuko ditugu. Lehenago, ordea, azter dezagun labor-labor nortzuk diren bidelari ohi hauek. Hobeto esanda, azter dezagun ea ba al dagoen alde esanguratsurik bidelari izaten jarraitu dutenen eta egitasmoa utzi duten bidelari ohien artean.

Hasteko esan dezagun, aztertutako aldagai askotan ez dela alde esanguratsurik topatzen batzuen eta besteen artean. Beste aldagai batzuen arabera, ordea, aldeak badaude. Horrela, bidelariekin alderatuta, hauek lirerateke bidelari ohiak bereizten dituzten hainbat ezaugarri:

- Bidelari ohiak gazteagoak dira batez beste egitasmoan gelditu direnak baino: 35 urtetik beherakoak %28,8 dira bidelarien artean eta %33,0 utzi dutenen artean.
- Euskara maila hobea dute joaten direnak gelditzen direnak baino: elebidunak %25,8 dira bidelarien artean eta %37,0 bidelari ohien artean.
- Euskaltegian izena emana dutenak dezente gutxiago dira bidelari ohien artean bidelari gisa jarraitzen dutenen artean baino: bidelarien ia erdiak (%47,6) ari dira euskaltegian, ohien artean ez dira herenera iristen (%30,8).
- Jarduera osagarrietan ere nabarmen gutxiago parte hartu dute bidelari ohiek egitasmoan jarraitzen duten bidelariak baino: bidelarien %63,8k hartu zuen parte horrelako jardueretan eta bidelari ohien %34,8k besterik ez.
- Mintzapraktikan hasteko motibazioei dagokienez, bidelari eta bidelari ohiek erantzun bertsuak ematen dituzte item nagusienetan: euskara ikastea, euskara erabiltzea... horiek dira motibazio nagusiak batzuen eta besteen kasuan. Badira aldeak, bigarren mailako motibazioetan: oro har, bidelari ohiek garrantzia gutxiago eman diote honako arrazoiei:
  - *Euskaraz bizi nahi dudalako*
  - *Lagunak egiteko eta ondo pasatzeko*
  - *EGA prestatzeko*
  - *Lanerako behar dut*
- Balorazio orokorretan, azpitik baloratu dute Mintzapraktika egitasmoa bidelari ohiek egitasmoan jarraitzea erabaki dutenek baino. Bidelari ohien balorazioak ere positiboak dira, baina jarraitzea erabaki duten bidelarien azpitik gelditzen dira euren balorazioak dinamizatzailea, bidelaguna, taldea eta egitasmoari orokorrean baloratzerakoan.
- Egitasmoa utzi duten bidelariak denbora gutxiago egin dute egitasmoan bertan gelditu direnak baino.


Horixe bada, egitasmoa utzi duten bidelarien argazki laburra. Orokorrean, eta gehiago laburtuz, jarraitzea erabaki duten bidelarietako honako ezaugarri bereizgarriak dituzte egitasmoa utzitako bidelariak:

- Gazteagoak dira.
- Egitasmoaren premia subjektibo txikiagoa izan dezakete, euskara maila handiagoa dutelako eta euren motibazioetan hainbat arrazoik pisu txikiagoa dutelako.
- Horrekin lotuta, badirudi euskalduntzeko euren bulkada apur bat ahulagoa izango dela. Gutxiago ari dira euskaltegian eta jarduera osagarrietan ere gutxiago hartu dute parte.
- Egitasmoa bera ere ez dute jarraitzea erabaki dutenek bezain positiboki baloratzen (nahiz eta balorazio positiboak diren ohien artean ere nagusi).

Ikus dezagun orain zein arrazoi eman dituzten beraiek mintzapraktika utzi izana azaltzeko.

## 5.4 BIDELARIEK EGITASMOA UZTEKO ARRAZOIAK

5.C. Grafikoa: Mintzapraktika uzteko arrazoiak (hainbat faktoreren eragina). Bidelari ohiak, 2009. (%ak).



**Iturria:** Aztiker, *Bidelari ohiei telefono bidezko inkesta, 2009.*

Bidelari ohiek egitasmoa zergatik utzi duten jakitea, euren egindako telefono bidezko inkestaren helburu nagusia genuen, ez bairik gabe. Horretarako, adituek esandako eta talde naturaletan jasotako hainbat arrazoi posible aurkeztu eta euren kasu zehatzean zein neurritan eragin dieten egitasmoa uzteko garaian galdetu diegu. Zehazki, hamaika arrazoi posible aurreikusten genituen. Emaitzak erabatekoak dira:

- Denbora faltak eragiten du gehien Mintzapraktika egitasmoa uzteko erabakian. Horixe da arrazoirik aipatuena, hurrengoekiko alde oso handiarekin gainera. Egitasmoa utzi izan dutenen bi herenek baino gehiagok (%70,7) eragin handia aitortzen diote denbora faltari.
- Bigarren maila batean, kanpoko bestelako faktore batzuk azaltzen zaizkigu: ordutegia norberarentzat egokia ez izatea (%18,9rentzako izan du eragin handia) eta beste lehenetasun batzuk izatea (%6,6rentzako izan du eragin handia).
- Mintzapraktika egitasmoko barne faktore gisa definitu daitezkeenak (bidelagunaren euskara mailak, taldekideen artean ongi ez konpontzeak, eta taldekideen arteko afinitate eta konfiantzarik ezak) ez dute apenas eraginik izan kasu gehienetan.



**Eztabaida taldeetan eta talde naturaletan, elkarrizketatuen iritziz denbora falta da Mintzapraktika egitasmoa uzteko pisu gehien duen arrazoiak, lanarekin edo familiarekin lotzen dena.**

*Gehien bat lana eta familia izaten dira arrazoiak... gure kasuan familia izan zen.  
(Zahar-berri, Arrasate, Topagunea).*

**Gehiago arakatzuz gero, bestelako arrazoi batzuk azaleratzen dira, aurrekoek gain. Jarraian zerrendatu ditugu, baita aipamenak erantsi ere.**

**1. EGA edo gaitasun agiria lortzea. Eztabaida talde eta talde naturaletan maiz errepikatu dute arrazoi hau. Inkestatuen artean, berriz, soilik %2,0k aitortu dio eragin handia EGA edo beste agiri ofizialen bat lortzeari, eta %4,6k eragin ertaina.**

*Orokorrean ez dakit, baina nire lehengo taldean, batek EGA atera zuen, besteak denbora gutxi zuen, eta besteak asko zekien, eta bakarrik etortzen zen bere alaba beste gauza batzuk egiten ari zenean Atarrabian.  
(Mintzakide, Iruñerria, Topagunea).*

*Behin titulua eskuratuta mintzapraktika taldea uzten dute gehienek. Nire bi taldeetan, guztiek, bueno ni ez, baina besteek titulua atera behar zuten. Eta titulua atera ondoren utzi zuten.  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)*

**2. Taldekideak ez bertaratzea.**

*Ni bi taldeetan aritu nintzen, lehenengoa izan zen desastre hutsa, ze jendea ez zen agertzen... eta utzi nuen arte, moskeatu nintzen, eta paso egin nuen, eta joan den urtean berriro sartu nintzen, baina ez nintzen sartu hasieratik baizik eta taldea ikusi eta gero...  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)*

**3. Taldekideekin ongi ez moldatzea, haiekin nekatzea, dinamismo falta harremanean, eta gehienak lotsatiak izatea. Gehienetan, taldeak afinitateei begiratuta baino, ordutegiei begira egiten dira. Hala ere, izaera kontuak edo taldekideen arteko eraman ezinak ez dira inkestatuen datu aitortuetan taldea uzteko eragile nagusi. Presente daude, baina proportzio txikian.**

*Nekatuta igual taldearekin. Ezagutzen ditut pertsona batzuk talde desberdinetan egon zirenak, "jo es que eramos unos muermos los cuatro que estábamos y claro, si no hablaba ninguno...". Bapatean hiru lotsati eta inork ez badu hitz egin nahi.  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)*

*Ematen du nire lana zela animatzea aurpegi ona eramatea eta jendea bufff, azkenean, "joder, que pereza de peña". Eta horregatik utzi nuen.  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)*

*Askok izan daitezke taldearen porrota eragin dezakete arrazoiak. Berbalagunek hamaika motibazio baitute. Ez da talde naturala, ez duzu aukeratzen, eta, gehienetan, denbora disponibleak (ordutegiak) agintzen du. Bakoitzak ahal duen ordutegian ematen du izena. Porrotaren eragile izan daitezke: parte hartzaileen izaeren arteko batera ezintasuna, feeling-a eskasa, utzikeria (asistentziarekin lotuta)...  
Fernan Ruiz*



**4. Taldekideen jarrera oso bideratua egotea agiria lortzera, eta ordu beteko klase bezala hartzea.**

*Aldatu zidaten lanaren ordutegia eta astero ezin nintzen joan, orduan faltatu nintzen bi aste jarraian, eta agertu nintzenean izan zen klasean bezala, ordu bat eta listo. Taberna batean egon ginen kafea hartzen, eta batzuk ordu bat eta joan behar zutela. Bihurtu zen klase bat bezala... Korrika egiteko ez du merezi eta utzi nuen.*

(Bidelari ohiak, Bizkaiko Euzabaida Taldea)

**5. Euskaraz hitz egiteko gaitasuna lortu, eta aukera izatea taldetik kanpo egiteko.**

*Nik behintzat ezagutzen ditut pertsona batzuk euskara dakitenak, eta esaten diet, geratuko gara zer edo zer hitz egiteko? Azken bolada honetan ez dut asko hitz egin eta behar dut.*

(Bidelari ohiak, Bizkaiko Euzabaida Taldea)

**6. Bidelagunik ez egotea. Erabakigarria da taldearen jarraipenerako, batez ere bidelarien euskara maila baxua bada.**

*Lehenengo urtean lau pertsona ginen, baina ez zen agertu bidelaguna, orduan gure maila oso baxua zen eta indiarrek bezala hitz egiten genuen, orduan denbora gehien erdaraz hitz egin genuen... desagertu zen... Deustoko berbalagunen bulegora deitu genuen, bidelagun bat behar genuela, baina ez zen agertu, bi-lau aldiz edo... Eta bukaeran, erdaraz hitz egiteko badituzu zure lagunak.*

(Bidelari ohiak, Bizkaiko Euzabaida Taldea)


**7. Jende berria ezagutzeko "nagikeria".**

*Hiru neskekin oso ondo nengoen eta amaitu zen, eta nik jarraitu nahi nuen, baina ez nuen nahi berriro jende berria ezagutzea, eta nire aurreko eskarmentuak ez ziren oso onak. Ni nire nortasunagatik tirando del carro... "Ai y que, ¿qué tal?", euskaraz. Eta jendea igual erlojua begiratzen... ez neukan gogorik horrela, ezta?*

(Bidelari ohiak, Bizkaiko Euzabaida Taldea)

## 5.5 HURRENGO IKASTURTEEI BEGIRA JARRERA ETA ASMOAK

### 5.D. Grafikoa: Heldu den ikasturtean segitzeko asmoa. Bidelagunak eta bidelariak, 2009. (%ak).




Iturria: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua.

Gaur egun mintzapraktikan dihardutenek hurrengo urtera begira duten jarrera ere aztertu dugu. Hurrengo ikasturtean mintzapraktikan aritzeko asmoa dute gehienek. Segitzeko ziurtasunik edo asmorik ez dutenak oso gutxi dira.

- Bidelagunen %58,3 guztiz ziur dago, eta %39,4 ia ziur.
- Bidelarien artean ere, gehiago dira ziurtasun erabatekoa erakutsi dutenak (bi heren), ia ziur daudenak baino (%31,5).

Datu hauek, noski, ez digute balio zuzen-zuzenean hurrengo ikasturterako aurreikuspena egiteko. Egitasmoaren dinamika ezagututa, ziurrenik, jarraitzeko asmoa agertu duten askok utziko baitute egitasmoa. Edozein kasutan, egitasmoarekiko dagoen jarrera baikorraren beste erakusle argi bat ditugu datu hauek.

### 5.E. Grafikoa: Berriz ere probatzeko asmoa. Bidelari ohiak, 2009. (%ak).



Iturria: Aztiker, Bidelari ohiak telefono bidezko inkesta, 2009.

Bidelari ohiei ere galdetu diegu berriz ere probatuko ote luketen. Euren erantzunen arabera, berriz ere aritzeko gogoia dute gehienek: %77,0k zalantzarik gabe baietz erantzun dute gustura probatuko luketela berriro, eta %17,5ek agian probatuko lukeela berriz. Ez duela uste, edo inolaz ere ez lukeela berriz probatuko %5,5ek bakarrik erantzun dute.



**Eztabaida talde eta talde naturaletan agerian gelditu da inkestako datuek erakusten dutena; gehienek jarraitzeko asmoa adierazi dute, baina izan da batere asmorik ez duela aitortu duenik ere.**

*Gustura nago, eta jarraitzeko asmoa dut. Ez zait kostatzen ordu bat astean, euskararekin normaltasuna lortzeko (Mintzakide, Iruñerria, Topagunea)*

*Ni ziur nago itzuliko naizela, aurten ez lanagatik baina, bai, ziur nago, agian Santutxuko berbalagunen. (Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)*

*Ni seguru asko ere bai. Ez nuke esango esperientzia txarra eduki dudarik, baina ni apuntatu nintzenean neukan asmoa zen azken finean lortzea gero jarraitzeko euskaraz hitz egiten, ezta? Pertsonaren bat edo... hilabete edo geratzeko, beste ekintza bat egiteko... eta hori ez dut lortu, ze pena. (Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)*

*Nik ez naiz bueltatuko, baina nire egoera pertsonalagatik. Euskaltegira joaten naiz, joaten naiz Hizkuntz Eskolara, gero saiatzen naiz euskaraz hitz egiten, aurten ez dut kirolarik egiten ezin dudalako. Ez dakit ingelesa. Euskara oso inportantea da, baina ezin dut mugitu beste herrietara... (Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)*

## 6 GAZTEEN PARTE HARTZEAZ

### 6.1 FENOMENOAREN KUANTIFIKATZEA: SARBIDEA ADINAREN ARABERA

1.2. atalean ikusi dugu, mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileen artean, gutxi direla gazteak. Zehazki parte hartzaile guztien herenak baino gutxiagok (bidelagunen %29,2k eta bidelarien %28,8k) dituzte 35 urte baino gutxiago.

Baten batek pentsa lezake, gazteen presentzia eskas hori, egungo euskal gizartearen osaketa demografikoari zor zaiola. Hots, gizartean ere gazteek pisu gutxi izateari. Eta, kopuru horiek, hortaz, *normalak* direla. Hori horrela den jakiteko, mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileen kopuruak gizarte osoari dagozkionekin harremanetan jartzea beste biderik ez dago. Horixe egin dugu ondorengo taulan. Zehazki, adin tarte bakoitzerako sarbide-tasak kalkulatu ditugu, eta datu horiek zera adierazten dute: 1.000 herritarreko zenbat diren mintzapraktika-kide adin talde bakoitzean (parte hartzaileen kopuruak euskaldunen kopuruekin jarri ditugu harremanetan bidelagunen kasuan eta elebidun hartzaileekin bidelarien kasuan).

**6.1. Taula. Mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileak adinaren arabera: sarbide tasak (bidelagunak 1.000 herritar elebidunekiko eta bidelariak 1.000 elebidun hartzaileekiko). (‰)**

	Bidelagunak. / euskaldunak (‰)	Bidelariak/ elebidun hartzaileak (‰)
18-34 urte	0,6	3,9
35-49 urte	1,3	7,7
50-64 urte	1,1	5,3
65 + urte	0,7	2,3
GUZTIAK	0,9	5,3

Iturriak: 2008/2009 egitasmoko parte hartzaileei buruzko datuak *Topaguneak* eta *AEKk* jarri dituzte gure esku; adinen osaketarako: Aztiker, *2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua*; herritarrei buruzko datuak: *biztanleria estatistikak* (2006, EUSTAT) eta *biztanleria zentsuak* (2001, IEN).

Emaitzak irakurrita, ondorioa argia da: gazteek adin ertainekoek baino parte hartze dezente eskasagoa dute mintzapraktikan. Horrela, gazteak dira bidelagun izatera gutxien *animatzen* direnak: 18-34 urte bitarteko 1.000 gazte euskalduneko 0,6 besterik ez dira bidelagunak, 35-49 urtekoen proportzioaren erdiaren azpitik (horien artean 1,3 dira bidelagun 1.000 euskalduneko).

Bidelarien kasuan ere, batez bestekoaren azpitik azaltzen zaizkigu gazteen datuak: 3,9 bidelari 1.000 elebidun hartzaileko, 35-49 urtekoen arteko kopuruaren erdia inguru (7,7 bidelari 35-49 urteko 1.000 elebidun hartzaileko). Taulan ikus daitekeen bezala, bidelarien zenbatekoa are baxuagoa da 65 urtetik gorakoaren artean. Dena dela, azpimarragarriena gazteen parte hartze eskasa iruditu zaigu.

Orain arte, mintzapraktikan ari direnen datuak herritar guztiekiko jarri ditugu harremanetan. Ondorengo taulan, berriz, helduen euskalduntze-alfabetatzean ari diren herritar kopuruekin jarriko ditugu harremanetan bidelarien datuak.

**6.2. Taula. Mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileak eta euskaltegietan matrikulatutakoak adinaren arabera: sarbide tasak (bidelariak, euskaltegian diharduten 1.000 herritar bakoitzeko). (‰)**

	Bidelariak (absolutuen estimazioa 2009/2010)	Euskaltegian matrikulatutakoak (EAE, 2005/2006)	Bidelariak / euskaltegian matrikulatutakoak (‰)
18-34 urte	656	19.006	34,5
35-49 urte	1.144	14.732	77,6
50-64 urte	385	5.393	71,4
65 + urte	96	392	244,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.278</b>	<b>39.523</b>	<b>57,6</b>

Iturriak: 2008/2009 egitasmoko parte hartzaileei buruzko datuak *Topaguneak* eta *AEKK* jarri dituzte gure esku; adinen osaketarako: Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta *autoaplikatua*; euskaltegietan matrikulatutako herritarrei buruzko datuak: HPS, *Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistema*.

Datuak are nabarmenagoak dira, mintzapraktikan diharduten herritarrak euskaltegian dabilzanekin alderatuta. Kasu horretan, sarbide-tasak kalkulatu gero, gazteen adin-tartea da Mintzapraktika egitasmoan gutxien parte hartzen duena. Hots, proportzioan gazteek gehiago jotzen dute euskaltegira mintzapraktikara baino.

Horrela bada, datuek argi adierazten dute Mintzapraktika egitasmoa, proportzioan, ahulago iristen dela euskal gazteengana gainerako belaunaldietara baino. Errealitate horren arrazoen bila, euren diskurtsoen azterketari ekingo diogu jarraian.



**Atal kualitatiboen azterketa eginda, eztabaida taldeetan parte hartu duten gazteentzat ere begi bistakoa da gazteen parte hartze eskasa.**

*Harritu ninduen izan zen nere adineko jenderik, 20 ta piko urteko jenderik ez zegoela, eta nik uste nuen jende gazte gehiago animatuko zela mintzalaguntzaile bezala. Gasteizen, euskaldun zahar pila bat ikasten ditugu, Euskal Herriko leku guztietakoak, eta nik uste nuen jendea gehiago animatuko zela.*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Eztabaida Taldea)

**Izan ere, 25 urtetik beherakorik ez da apenas mintzapraktika egitasmoetan. Beste espazio batzuk dituzte.**

*Gaztetxean egiten ziren eskulanak euskaraz eta hori gertatzen da ere, 25 urtetik gora jendea ez zen joaten. Eta mintzakidera berriz, ni naiz ia-ia gazteena. Eta agian ikusiko dute, orain gaztetxean eta gero ez dakit... Horrela gara.*  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Eztabaida Taldea)

**Mintza Eguneko elkarrizketa informaletan ere gazteen parte hartze eskasari buruz aritu gara. Gasteizko Mintzalagunetik unibertsitatera jo dute laguntzaile eske, hain zuzen, filologia fakultatera (itxura batean laguntzaile motibatuak aurkitzeko toki aproposa); ez da inor animatu bertatik, eta horrek zer pentsatua eman die.**

## 6.2 GAZTE BIDELAGUNAK ETA BIDELAGUN- GAIK: DISKURTSOEN AZTERKETA

Horiek horrela, gazteen parte hartze eskasaren arrazoiak zein izan daitezkeen argitzen saiatu gara. Hona hemen eztabaida taldeetan mahai gaineratu diren arrazoiak bidelagun izatera gazte gehiago ez animatzeko:

1. **Ezagutza falta. Eztabaida taldeetara etorri diren eta mintzapraktikan ari ez diren gazte askori egitasmoa ez zaie arrotza egiten. Alabaina, euren ustez, gazte euskaldun gehienek ez dute programa honen berri; zenbait tokitan egitasmo berri samarra da.**

*Dena dela mintzalagunen zenbat daramaki martxan? Hori ere kontuan hartzekoa da, Urola kostan adibidez bigarren ikasturtea da, esan nahi dut, horrek ere sozializatzeko denbora beharko duela. Pixkanaka-pixkanaka joan beharko duela sare horrek osatzen.*

(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)

2. **Denbora falta parte ez hartzeko arrazoietako bat da.**

*Proposatu ere egin zidaten, baina lanarekin eta gainezka nenbilen, eta ez neukan astirik.*

(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)

3. **Kontzientzia falta ere jotzen da parte hartze ezaren arrazoitzat.**

*Denbora falta baino, nire ustez da gazteen interes falta, jendeari berdin zaio.*

(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)

4. **Ez da gazteentzako erakargarria. Izan ere, ezezagunekin elkartze horrekiko errezeloa eta lotsa gaztetan nabarmenagoak dira. Ezezagun batekin elkartzeari erreparoa diote batzuk. Mintzapraktika bikoteka egitea (Donostian eta Lasarten bikotekak eta hirukotekak dira nagusi) gazteak ez animatzeko arrazoi izan daiteke.**

*Ni egon nintzen parte hartzeko prest, baina joan behar izatea bakarrik ezagutzen ez dudana pertsona batengana...*

(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)

*Zenbat eta gazteago, rolloago, ez? Norbaitekin ezagutzen ez dudana hitzegiten hasi... bah!*

(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)

*Heldutasun maila bat eskatzen du. Ezezagun batekin, ez da parrandan irten eta edozeinekin hasten zarela hizketan. Baizik eta izango da arratsaldeko hiruretan... Eta horretarako behar duzu hasteko zeure buruarengan konfiantza. Eta igual 18-19 urte horiek ez dira urterik onenak, ez?*

(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)

*Euskaltegian ginela, badago bat euskaldun berria dena, eta maisuak planteatu zuen berarekin joatea, baina egia esan ez nuen nahi berarekin joan eta orduan horrek atzera bota zidan.*

(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)

**Bidelagun potentzial gisa identifikatu ditugun horien artean honako hauek nabarmendu ahal izan ditugu:**

- **Gutxi-asko, Mintzapraktika egitasmoaren berri badutela.**
- **Jarrera edo hautemate baikorra dutela egitasmoarekiko.**

- **Bidelagun izatea burutik pasa zaiela, edo zuzenean proposatu dietela.**

*Egia esanda iragarki bat ikusi nuenean, eta aritu nintzen pentsatzen baina, pfff... beti ateratzen zait zerbait. Hemendik aurrera igual aurkeztuko nintzake, baina ez dakit. Beti daukat zerbait, beti.*  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Euzabaida Taldea)

*Niri proposatu ere egin zidaten, baina ezetz esan nuen, zeren, lanarekin eta gainezka nenbilen... ez neukan astirik.*  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Euzabaida Taldea)

**Parte ez hartzeko euren arrazoi aitortuak, arestian aipatu ditugunen ildotik, honako hauek dira:**

- **Denbora falta lanagatik eta makina bat zeregin izatea.**
- **Ezezagun batekin elkartzeko lotsa edo gogorik eza.**

## 6.3 GAZTE BIDELARIAK ETA BIDELARI-GAIAK: DISKURTSOEN AZTERKETA



Eztabaida taldeetan entzundakoari jarraiki, hainbat gazteren aburuz, gazteen artean euskaldunen proportzioa altuagoa izateak azaldu dezake bidelarien artean gazte gutxiago egotea, euskaldunen zenbatekoa askoz ere handiagoa delako gazteen artean.

*Badaukazue Hego Euskal Herrian euskaraz ikasten ari direnen lagina? Igual proporzionala da.*  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)

Esan dezagun, alabaina, hautemate hori ez datorrela bat errealitatearekin, eta datuek erakusten dutenez, (ikus 6.1. atala) kopuru absolutuetan ez ezik, proportzionalki ere baxuagoa da gazteen parte hartzea mintzapraktikan helduena baino.

Gazte bidelarien parte hartze eskasaren arrazoiak zein izan daitezkeen argitzen saiatu gara. Jarraian zerrendatuko dugu, balizko arrazoi bakoitza:

1. Ezagutza falta. Horrela, ari ez diren elebidun hartzaileek (eztabaida taldean parte hartu dutenek alegia) ez dute ezagutzen, edo apenas ezagutzen dute Mintzapraktika egitasmoa. Ez-ezagutzatik bada ere, euren lehenbiziko jarrera baikorra da.

*Guri behintzat esan ziguten euskaltegian.*  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Eztabaida Taldea)

*Ondo dago, bai, mintzatzeko, euskara zabaltzeko, harremanak egiteko euskaraz. Baina ez dut ulertzen, "no conozco vamos".*  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Eztabaida Taldea)

2. Euskaraz egiteko aukera eta espazioen beharra sumatzen dute, eta mintzapraktikan ez dira ari denbora faltagatik

*Nik ez daukadalako denborarik aurten. Pentsatu nuen baina, nago euskaltegian astean lau egunetan eta gero bi ingelesera eta jada ezin dut gehiago. Baina pentsatu nuen... Eta gustatuko litzaidake baina aurten ezinezkoa da niretzat.*  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Eztabaida Taldea)

3. Hainbatek, euren euskara maila apalagatik ez dute jo mintzapraktikara. Aurrerago agian..

*Nik ez nuen ezagutzen eta bueno gainera pentsatzen dut goizegi dela niretzako. Ez daukat maila talde horretarako. Baina datorren urtean ikusiko dugu...*  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Eztabaida Taldea)

4. Lotsa eta gazteen adin taldean koadrilak duen garrantzia. Herri txikietako dinamika sozialak kalterako dira, eta faktore horien pisua areagotzen dute. Antzeko ondorioetara iritsi dira gazte elebidunak eta elebidun hartzaileak.

*Izan daiteke lotsa. Eta izan daiteke ere, koadrila horrelako adinekin oso garrantzitsua dela. Gero ere garrantzitsua da, baina bakoitzak bere bizia du eta baduzu leku gehiago beste jende batekin harremanetan jartzeko.* (Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Eztabaida Taldea)

*Jende gutxi apuntatzen da eta apuntatzen garenak batzuetan ez gara joaten. Aukera ona izango litzateke, baina ez dakit zergatik ez dugun erabiltzen, nire herrian gertatzen da asko, lotsagatik edo, zuk zure koadrila duzu eta ez zara ateratzen handik. Hirietan gertatzen da, baina ez hain gogorra. Nire herrian gogorragoa da, eta jendeari lotsa pilo-pilo bat ematen dio, bere koadrilatik atera.*  
*Hori da arazo larriena niretzat.*  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Eztabaida Taldea)



## 5. Heldutasun faltak ere azal dezake mintzapraktikan parte ez hartzea.

*Pertsonaren arabera, irekia baldin bada, edo gogoak baldin baditu... Gaur egun geroz eta gogo gutxiagorekin ikusten ditut. Mentalitate infantilagoa dute.*  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Ertabaida Taldea)

**Azken argudio hau muturrera eramanez, badira argi eta garbi Mintzapraktika egitasmoa gazteentzako egina ez dela diotenak. Horrela, ez zaie aproposa iruditzen 18 urte inguruko gazteentzako. Horiengana aiseago irits omen daiteke aisialdiarekin lotutako eskaintza batekin.**

*18 urtekoentzat ez. Orain nahi dute koadrilarekin egon. Ez daude hitz egiteko, gainera ezezagun batekin...*  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Ertabaida Taldea)


*Ekintza ezberdinak egiten badituzu haientzako, bai izango dela interesgarria ez? Eta ez mintza talde batera izango dena aspergarria haientzat, ez?*  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Ertabaida Taldea)

*Mintzakide agian ez, baina gauza asko euskaraz bai, ikastolaz aparte. Kontzertuak, edo gauzak beste modu batean egiteko... Zeren eta igual ez daude prest gurekin hitz egiteko, ze gu gara oso zaharrak haientzat...*  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Ertabaida Taldea)

# 7 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN ERAGINA NEURTZEN

## 7.1 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA ETA BIDELARIEN EUSKARA MAILA


7.A. Grafikoa: Mintzapraktikaren eragina neurtzen (I): Euskara mailaren hobekuntza. Bidelari beteteranoak, 2009. (%ak).



Mintzapraktika egitasmoan urte bete edo gehiago daramaten bidelari ia guztiek (hogeitik hemeretzik) diote euren euskara maila asko edo zer bait hobetu dela egitasmoan hasi zirenetik hona. Gehiago dira zer bait hobetu dutenak (%58,9) asko hobetu dutenak baino (%36,1). %5ek baino ez du esan bere maila ez dela askorik hobetu.

**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

**7.B. Grafikoa: Mintzapraktikaren eragina neurtzen (II): Zenbatekoa izan da hobekuntza. Bidelari beterranoak, 2009. (%ak).**



Hobekuntza horretan Mintzapraktika egitasmoaren eragina edo ekarpena zenbaterainokoa izan den galdetuta, bidelarien gehiengo zabal-zabalak eragina aitortzen dio mintzapraktikari. Heren batentzako erabateko eragina izan du, eta gehienek, %63,7k, neurri bateko eragina aitortzen diote.

**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.



**Eztabaida talde eta talde naturaletako kideen irudiko, eta euren bizipenetan oinarrituta, Mintzapraktika egitasmoa euskara maila hobetzeko baliagarria da. Ez da erraza zehazten noiztik aurrera hobetzen den euskara maila, baina argi dago praktikatu ezean nekez ikasten dela hizkuntza bat, eta horretarako aukera dute mintzapraktikan aritzen diren ikasleek.**

*Nik nabaritzen dut erraztasun gehiago hitz egiteko. Besteak (klasekoak) gehiago mozten dira.  
(Berbalaguna, Santurtzi, AEK).*

**Maila hobetu dutela aipatu dute batzuek, besteek, berriz, ikasitakoa mantendu dutela. Funtsean, hona hemen mintzapraktikaren erabilgarritasuna:**

- **Euskaraz errazago egiteko.**
- **Gauzak bat-batean esateko eta espontaneoak izateko.**
- **Adierazkortasuna eta jarioetasuna erdiesteko.**
- **Eroso hitz egiteko.**
- **Lotsa galtzeko eta konfiantza irabazteko.**
- **Belarria egiteko.**

*Eguneroko gauzak bat-batean esateko trebetasuna ekarri dit. Sentimenduak, gertatzen zaidana adierazteko oso lagungarria zait.  
(Mintzakide, Iruñerria, Topagunea).*


*Konfiantza gehiago dut orain neure buruarengan. Ezezagun batzuekin euskaraz hitz egitea berria da niretzako, eta orain beldurra galdu dut.  
(Mintzakide, Iruñerria, Topagunea).*

*Nire ustez, beraiei zerbaitetan lagundu niela. Ba konfiantza bat irabazten.  
(Bidelagun ohiak, Arabako Eztabaida Taldea)*

**Bidelagunaren partaidetza hobesten bada ere, bidelagunik gabeko taldeetan ere bidelariak euren euskara maila hobe dezakete.**

## 7.2 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA ETA HARREMAN SAREA

### 7.C. Grafikoa: Mintzapraktikaren eragina neurtzen (III): Mintzapraktika egitasmoan ari denetik ezagututako euskaldun kopurua (taldekideez harago). Bidelagun beteranoak eta bidelari beteranoak, 2009. (%ak).



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoa parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

Mintzapraktikaren helburuen artean dago euskarazko harreman sareak zabaltzea eta sendotzea. Parte hartzaileei galdetu diegu inkestan horri buruz eta emaitzek ez dute zalantzarako tarte handiegirik uzten: parte hartzaileek euskaldun gehiago ezagutu dute mintzapraktikan hasiz gero. Horrela, parte hartzaile guztiak kontuan hartuta, ia hamarretik bederatzik euskaldun asko (%22,9k) edo euskaldun batzuk (%65,5ek) ezagutu dituztela diote. Gutxi dira euskaldun bakarren bat (%5,8) edo inor ezagutu ez dutela (%5,7) diotenak.

Euskaldunen harreman sarearen zabaltze horretan, badirudi gehixeago zabaldu dutela euren harreman sarea bidelagunek bidelariak baino:

- Bidelagunen artean, gehienek euskaldun batzuk (%60,1ek) eta asko (%27,7k) ezagutu dituzte mintzapraktikan hasi direnetik. Gutxi dira bakarren bat (%7,6) eta inor ere ezagutu ez duenik (%4,6).
- Bidelarien artean gehienek euskaldun batzuk edo asko ezagutu dituzte (%67,8k eta %20,9k hurrenez hurren). Gutxi dira bakarren bat (%5,1ek) eta bat ere ez (%6,2k) ezagutu duenik.

Badirudi, hortaz, euskaldunen harreman sarearen trinkotzea Mintzapraktika egitasmoaren beste eragin bat dela.



**Eztabaida taldeetan eta talde naturaletan euskarazko harremanen gaia aztertu dute. Mintzapraktika euskaldunek edo euskara ikasten ari direnek elkar ezagutzeko aproposa da.**

*Jende asko ari da euskara ikasten, baina ez dugu elkar ezagutzen. Programa hau horretarako da lagungarri, gure artean elkar ezagutzeko.  
(Mintzakide, Iruñerria, Topagunea).*

**Mintzapraktikak eta horren inguruko kultur jarduerak euskaldun bezala identifikatzeko eta harreman berriak euskaraz egiteko balio dute.**

*Algortan bertsoak botatzen, hitzaldi bat ikusten... "aiba esta sabe", beraz  
hurbiltzen dira euskaraz... Haiek pozten dira, eta harremana igual estuagoa da.  
Pertsonaren arabera, baina bai, egia da. Saiatzen dira hurbildu eta euskaraz  
egiten... "Valoran el esfuerzo tuyo".  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Ertabaida Taldea)*

**Taldeen artean maiz ez dago harremanik. Beste taldeetako partaideekin harremanik eza, aparteko ekintzetan ez parte hartzearekin lotzen da. Izan ere, aparteko kultur ekitaldiak aproposak dira harreman sarea zabaltzeko. Taldetik kanpo harreman sarerik ez sortzea litekeena da, hortaz, parte hartzaile guztiak "ingurukoak" izan arren.**

*Mintzakiden taldeak itxi xamarrek dira, talde batean egoteagatik ez dituzu  
ezagutu beharrik bestek. Ez dugunez parterik hartu gauza amankomunetan...  
(Mintzakide, Iruñerria, Topagunea).*


*Beste ekitaldi batzuetara joaten gara, mendi martxa batean jende gehiago  
ezagutu dugu (beste berbalagunak).  
(Berbalaguna, Santurtzi, AEK).*

*Nik behintzat ez dut lortu sare bat edo horrelako zerbitu, noizean behin euskaraz  
hitz egiteko. Ze azken finean auzokoak gara guztiok...  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Ertabaida Taldea)*

## 7.3 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA ETA EUSKARAREN ERABILERA

### 7.3.1 TALDEKIDEEKIN ERABILERA (EGITASMOTIK KANPO)

7.D. Taula: Mintzapraktikaren eragina neurtzen (IV): Mintzapraktika egitasmotik kanpo taldekideekiko hizkuntza harremana. Bidelagun eta bidelari beteranoak, 2009. (%ak).



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

Jakina da mintzapraktika taldeak bilduta daudenean euskaraz jarduten direla. Nola aritzen dira, ordea, taldeko kideak beste testuinguru sozial batzuetan? Euren erantzunei erreparatuz, taldean bilduta ez daudenean euren arteko harremanak nagusiki euskaraz dira, baina ez euskara hutsez kasu guztietan. Auzi honetan, noski, aldeak daude bidelagun eta bidelarien portaeren artean:

- **Bidelagunak** dira taldetik kanpo taldekideekin euskaraz gehien egiten dutenak: lautik hiru euskaraz soilik aritzen dira taldekideekin, egitasmotik kanpo elkartzen direnean ere. Gainerako laurdenen erantzunetan sakabanaketa handia topatu dugu: %9,7 nagusiki euskaraz aritzen da, %3,2 euskaraz eta erdaraz bietan berdín, erdaraz gehiago %4,5, eta erdaraz soilik %4,9.
- **Bidelarien** artean, euskaraz soilik egiten dutenen zenbatekoa dezentez azpitik dago: bostetik bik (%39,9k) egiten du euskaraz soilik taldekideekin mintzapraktikatik kanpo elkartzen direnean. Bostetik batek (%18,3) euskaraz egiten dute gaztelaniaz baino gehiago. Azkenik, herenera inguratzen dira erdaraz gehiago (%20,6) edo erdaraz soilik (%9,6) egiten dutenak. Esan beharra dago, bidelarien hizkuntza portaera oso lotuta azaltzen zaigula euren gaitasunarekin, eta zenbait eta euskaraz hitz egiteko gaitasun handiagoa izan, orduan eta gehiago erabiltzen dutela euskara (bai taldekideekin eta baita orokorrean ere).



**Talde naturaletan eta eztabaida taldeetan entzundakoek datuek erakutsi diguten irudi hori berretsi egiten dute. Taldekideen artean euskaraz egiteko ohitura sortzen da, eta horrek isla du taldetik kanpoko erabileran. Hala ere, ezin esan harremana beti euskarazkoa denik.**

*Txantreako 3 lagun gara, eta orain kaletik elkartzen bagara (mintzapraktikatik kanpo), euskaraz egiten dugu. (Mintzakide, Iruñerria, Topagunea).*

*Topatzen zarenean jende horrekin harremana euskaraz da, eta jende horren artekoa ere bai, zeren ordura arte ez ziren ezagutzen edo ez zen euskeraz harreman hori. Baina hortik aurrera bai... eta hori positiboa da oso. (Bidelagun ohiak, Arabako Eztabaida Taldea)*

*Gehiago bai ezagutzen duzu, baina batzuetan, beraien asmoa baldin bada titulu bat atera edo besterik ez, agian hasten dira zurekin erdaraz hitz egiten. (Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)*

**Bidelagunen kasuan arraroa litzateke taldetik kanpo gaztelaniaz egitea.**

*Euskaraz beti. Arraroa izango litzateke orain beraiekin erdaraz hitz egitea. (Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)*

**Taldetik kanpo gaztelaniaz egiteko hainbat faktore egon badaiteke ere, hizkuntza gaitasunari erreparatu diote bereziki; maiz faktore horrek baldintzatzen du taldetik kanpoko hizkuntza portaera. Hizkera intimoa eta adierazkorra gaztelaniaz errazago ateratzen zaio askori, eta hori hizkuntza aldatzeko motibo izan daiteke (gaztelaniara).**

*Pixka bat berandu iristen banaiz eta biak baldin badaude hitz egiten, urrutitik antzematen diet erdaraz ari direla. Harrapatu zaituztet... Oraindik nola maila baxua duten... (Gazte elebidunak, Gipuzkoako Eztabaida Taldea)*

*Lehenbiziko saiakera euskaraz bada ere, gero gaztelaniara pasa (gaitasun mugatua, ohitura eta naturaltasun falta). (Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)*

*Minbizia zeukan nire lagunarekin topatzean... "es que mis emociones son en castellano..." Hori aldatzea oso zaila da. Ez zait ateratzen euskaraz. Hori euskaldun zaharrak ulertzea zaila da, baina egia da, nire sentimenduak erdaraz... Eta hori aldatzea igual bai, baina urte asko beharko ditut. (Bidelari ohiak, Bizkaiko Eztabaida Taldea)*


### **7.3.2 BETIKO HARREMAN-SAREEKIN: FAMILIAREKIN, BETIKO LAGUN EUSKALDUNEKIN, LANKIDE ZEIN IKASKIDEEKIN**

Eraginik izan ote du Mintzapraktika egitasmoak parte hartzaileen hizkuntza ohituretan? Euskaraz edo erdaraz jarduteko ohitura aldatu ote duten galdetu diegu inkestan, hainbat eremu soziali dagokionez: familiar, lagunartean, lankideekin, ikaskideekin... Erantzunak aztertuta badirudi oro har euskara dezente gehiago erabiltzen dutela parte hartzaileek egitasmoan hasi baino lehen. Bidelagun eta bidelarien kasuak, hala ere, oso ezberdinak dira.

**Bidelagunen** artean, gehiengo nagusia osatzen dute euskara lehengo neurrian erabiltzen dutela erantzun dutenak. Euskara gutxiago erabiltzen dutela diotenak, berriz, hutsaren hurrena dira aztertutako eremu sozial guztietan. Euskara lehen baino gehiago erabiltzen dutela diotenak, azkenik, gutxiengo izanda ere, bidelagun aritutakoen arteko alor garrantzitsua osatzen dute. Horrela:

- Bidelagunen %21,5ek dio euskara gehiago erabiltzen duela familiaretan (%5,4k askoz gehiago eta %16,3k zerbait gehiago).
- Bidelagunen %39,8k dio euskara gehiago erabiltzen duela betiko lagun euskaldunekin (%17,2k askoz gehiago eta %22,6k zerbait gehiago).
- Bidelagunen %31,8k dio euskara gehiago erabiltzen du lankideekin (%14,5k askoz gehiago eta %17,3k zerbait gehiago).
- Bidelagunen %43,6k dio euskara gehiago erabiltzen duela ikaskideekin (%19,9k askoz gehiago eta %23,7k zerbait gehiago).

**7.E. Grafikoa: Mintzapraktikaren eragina neurtzen (V-VIII): Euskararen erabilera hainbat eremutan (mintzapraktika egitasmotik kanpo); bilakaera. 2009/2010 ikasturteko bidelagun beteranoak. (%ak).**



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoa parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.


**Bidelariengan** are nabarmenagoa da hizkuntza ohituretan emandako aldaketa. Horien artean gehiengo nagusia da euskara lehen baino gehiago erabiltzen dutela diotenak aztertutako eremu sozial guzti-guztietan. Horrela:

- Bidelarien %52,0k dio euskara gehiago erabiltzen duela familiaretan (%14,0k askoz gehiago eta %38,0k zerbait gehiago).
- Bidelarien %76,6k dio euskara gehiago erabiltzen duela betiko lagun euskaldunekin (%26,7k askoz gehiago eta %49,9k zerbait gehiago).
- Bidelarien %63,5k dio euskara gehiago erabiltzen du lankideekin (%18,4k askoz gehiago eta %45,1k zerbait gehiago).
- Bidelarien %83,7k dio euskara gehiago erabiltzen duela ikaskideekin (%44,8k askoz gehiago eta %38,9k zerbait gehiago).

Horrela bada, euren hautematean oinarrituta beti ere, badirudi mintzapraktikan hasiz gerotzik ohitura aldaketa garrantzitsuak izan dituztela bidelari gehienek euskararen erabileran.



**7.F. Grafikoa: Mintzapraktikaren eragina neurtzen (V-VIII): Euskararen erabilera hainbat eremutan (mintzapraktika egitasmotik kanpo); bilakaera. 2009/2010 ikasturteko bidelari beteranoak. (%ak).**



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoa parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.



**Mintzapraktika hizkuntza ohitura aldatzeko lagungarri izan daitekeela aipatu dute talde naturaletan, baita hizkuntza ohitura aldatzea zaila dela nabarmendu ere.**

*Bai, jakina. Neska lagunarekin lehen bakarrik gaztelaniaz egiten nuen, eta orain batzuetan euskaraz. Lagunekin askotan euskaraz aritzen naiz orain, lehen ez. (Berbalaguna, Santurtzi, AEK).*

*Ez dit balio izan nire alaba euskaldunarekin hizkuntza ohitura aldatzeko. (Mintzakide, Iruñerria, Topagunea).*


*Hizkuntza ohitura aldatzea zaila da. (Zahar-berri, Arrasate, Topagunea).*

### 7.3.3 ERABILERA OROKORREAN

Eremu sozial zehatzetako logika bera erakusten dute erabilera orokorrari buruzko datuek. Horrela, bost parte hartzailetik lauk diote orokorrean ikusita euskara gehiago egiten dutela Mintzapraktika egitasmoan hasiz geroztik. Kasu honetan ere, noski, aldeak daude bidelagun eta bidelari artean:

- Bidelagunen artean erdi eta erdi banatzen dira lehen bezainbeste egiten dutenak (%50,5), eta zerbait eta askoz gehiago egiten dutenak (%26,7 eta %22,8 hurrenez hurren).
- Bidelariak euskara gehiago erabiltzen dute nabarmen, gehienek zerbait gehiago (%53,9k), eta %37,7k askoz ere gehiago. Lehen bezainbeste egiten dutenak %7,5 (baino ez) dira.

**7.G. Grafikoa: Mintzapraktikaren eragina neurtzen (IX): Euskararen erabilera orokorrean; bilakaera. Bidelagun beteranoak eta bidelari beteranoak. 2009. (%ak).**



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.



**Mintzapraktika egitasmoak eragin baikorra izan du euskararen erabileran. Hala ere, taldeaz harago euskaraz gehiago egiten ote duten galdetuta, erantzun ezberdinak eman dizkigute:**

Alde batetik mintzapraktikari zor diote euskarazko giro handiagoa eta jende gehiagorekin hitz egitea (taldetik aparte). Bestetik, taldetik kanpo gehiago hitz egin beharko luketela aitortu digute pare bat lagunek, euskaldunak inguruan izan arren ez dutela behar bezainbeste aprobetxatzen, eta eguneroko erabilera ez dutela hobekuntzarik nabaritu.

**Lehen hitza euskaraz gehiagotan egiten duela aipatu digu bakarren batek; mintzapraktikak konfiantza eman diola.**

*Dendetan gehiago egiten dut euskaraz egiten badidate. Lehen blokeatzen nintzen.  
(Zahar-berri, Arrasate, Topagunea).*

**Herri edo jendarte mailan, euskararentzako beste txoko bat irabazten dela adierazi digute. Kanean ikusgarri egitea lortu dute (batez ere Santurtzin eta Atarrabian agertu dituzte argudio hauek), euskara zabaldu, presentzia areagotu, ez bakarrik biltzen diren egunetan. Hala, jendartearen euskalduntzearen eta euskara erabiltzeko espazioen premiari erantzuna ematen dio, hutsune edo behar bati. Ingurune erdaldunduetan bereziki, euskara bistaratzeko modua da.**

*Udalek ez dute horrelako zerbitzua eskaintzen. Eta horren premia badago. Herri guzti-guztietan, nahiz eta euskalduna izan, ze beti egongo da pertsona bat ez dakiena ondo hitz egiten, eta berbalagun egitasmoak hori eskaintzen du, kriston aukera lotsa kentzeko, bueno tituluak lortzeko, baina batez ere lotsa kentzeko eta gune bat sortzeko euskaldunon artean hitz egiteko.  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Etxabaida Taldea)*

*Herrian euskaraz entzutea da pasada bat. Benetan ilusioa ematen dit! (Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Etxabaida Taldea)*

**Euskaraz natural hitz egiteko aukera eskaintzen du Mintzapraktika egitasmoak.**


*Beraiek ez zeukaten aukerarik euskaraz hitz egiteko... Orduan, nik behintzat ikusten nuen bi ordu hoiek probetxagarriak zirela. Eta pertsonalki oso gustora sentitu nintzen.*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Euzabaida Taldea)

**Harreman sarea erdalduna duten euskaldunentzako ere aukera ona da euskara erabiltzeko.**

*Nire gurasoak Leongoak dira, nire koadrilan inork ez daki... Nire munduan inork ez du erabiltzen euskara.*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Euzabaida Taldea)

## 7.4 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA ETA EUSKARAREKIKO ATXIKIMENDUA (MOTIBAZIOA)

7.H. Grafikoa: Mintzapraktikaren eragina neurtzen (X): Euskaraz bizitzeko gogoak; bilakaera. Bidelagun eta bidelari beteteranoak, 2009. (%ak).



**Iturria:** Aztiker, 2009/2010 mintzapraktika egitasmoko parte hartzaileei inkesta autoaplikatua, 2009.

Mintzapraktikan aritzeak izan al du eraginik parte hartzaileen motibazioan? 100 parte hartzailetatik 99k diote baietz, euskaraz bizitzeko gogoak handitu egin zaizkiela mintzapraktikan hasi zirenetik. Horrela:

- Mintzapraktika egitasmoan hasi zirenetik, bidelagun gehienei (%57,3ri) asko handitu zaizkio euskaraz bizitzeko gogoak, eta %42,0ri zerbait.
- Bidelari gehienei ere (%54,4ri) asko handitu zaizkie euskaraz bizitzeko gogoak, eta %44,8ri zerbait.

# 8 MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA HOBETZEKO GAKOAK: PROTAGONISTAK MINTZO



Batez ere elkarriketa sakon, talde natural eta eztabaida taldeetan aurkitu ditugu Mintzapraktika egitasmoa hobetzeko baliagarriak izan daitezkeen gakoak.

## 8.1 ANTOLAKETA ETA KOMUNIKAZIOA



### 1. Antolaketa eredu.

Antolaketa eredu egokia zein ote den argitzea ez da ikerketa honen asmoa. Ordea, zenbait gako edo gogoeta bildu dugu, eta horiek baliagarriak izan daitezke etorkizuneko ikerketa bati begira (Mintzapraktika egitasmoa eraldatzeko gogoeta prozesu parte hartzailea izenburutzat izan lezakeena). Antolaketa eredugarria da eragileen arteko elkarlana baimentzen duena.

*Egitasmoaren inguruan ekarpena egin dezakeen eragile oro biltzen dituen antolaketa da eredugarria. Euskara elkarteak, euskaltegiak, guraso elkarteak, kultur elkarteak, kirol elkarteak, administrazioa, etab. Kudeaketa eragile batek eramanagatik, garrantzitsua da gainerako aktoreak ere hor egotea. Udala edo euskaltegia bada kudeatzaile, garrantzitsua da mugimendu sozialaren edo komunitatearen ikuspegia presente egotea.*  
*Iker Martinez de Lagos*

Une honetan ez dago koordinazio gunerik Eusko Jaurlaritzaren, Topagunearen eta AEK-ren artean. AEK-k badu Topagunearekin hitzarmena, eta horren bitartez egitasmoen inguruko informazioa elkarri pasatzen diogu. Informazio trukaketa hobetzeari begira, herrialdeka antolatzea operatiboagoa izango litzateke, nahiz eta erakunde bakoitzak bere funtzionamendua izan. Getxoko programak eta Santurtzikoak elkarren berri ez izateak ez dauka logikarik.  
*Edorta Lopez*

**Eskaintza bikoizketa edo konpetentzia gainditu eta osagarritasunera jo beharra dago.**

*Bilbon dauden bestelako esperientziak kontuan hartu gabe, udalak eskaintza egin du.*  
*Edorta Lopez*

## **2. Erakundeen inplikazioa eta baliabide askitasuna.**

**Egitasmoaren arrakastarako erakundeen laguntza ezinbestekoa da. Aurreiritziak uxatu beharraz ere mintzatu zaizkigu.**

*Argi gelditu dadila nor dagoen mintzapraktiken atzean. Hori azaldu behar da, ez da bakarrik gizartearen zati bat. Guztiak badaude atzean, guztiona da. Hau udalak antolatzen du. Edo laguntzailea da behintzat.  
(Berbalaguna, Santurtzi, AEK)..*

**Borondate politikoaren eragina nabarmena da:**

*Zailagoa da dirurik gabe aurrera egitea. Hori da ezberdintasuna Santurtzi eta Sestaoren artean. Sestaon ez daukate dirurik, ez lokalarik, etab. Hemen udalaren lokal batean egiten dira gauzak: erraztasunak baditugu. Jende askorentzat alkatearen sinadura inportantea da. Sestaon kalean daude, eta dirurik gabe.  
(Berbalaguna, Santurtzi, AEK).*

**Finantzabide gehiago behar dira. Baliabide ekonomiko askitasuna bermatu beharra dago, batik bat dinamizatzailearen lana ordaintzeko eta lan baldintzak hobetzeko. Bestelako gogoetak alde batera utzita, langileen baldintza kaxkarrek eragin ezkorra dute egitasmoaren egonkortasunean. Erakundeen inplikazio aktiboa lortu behar da, esparru horretan aurrerapausoak eman badira ere.**

*Kriston presupuestoa dago beste gauza batzuk egiteko, eta horretan ez da dirurik gastatzen. Hor dago deskonpentsazio handia.  
(Bidelagun ohiak, Arabako Etxabaida Taldea)*

*Baliabideak eskasak dira. Toki batzuetan tokiko erakundeak inplikatzen dira, baina beste batzuetan ez.  
Edorta Lopez*

*Nik konfiadantza gabe ikusten ditut, ez dute eurek tiratzen. Ez dute aitortzen: proiektu ona da eta lagundu dezagun. Hor gabezia handia dago. Egia da berbalagunen kasuan, goitik agindua iritsi dela udaletara, eta hitzarmen asko etorri dela horren ondorioz.  
Fernan Ruiz*

**Izan da Eusko Jaurlaritzarekiko aipamenik ere. Ikerketa egitea baikorki baloratu dute aditu zein mintzapraktikako parte hartzaileek. Horrekin batera, baina Eusko Jaurlaritzari koherentzia eta inplikazioa eskatu izan zaizkio.**

*Eusko Jaurlaritzak bultzatu du ikerketa hau ez? Koherentzia baita ere. Hasten bazaizkigu kanpainen bidez euskaldun zaharrei gure aletxoak jartzeko eta gero dituzten gabezi guzti horiekin jarraitzen baldin badute, orduan, berdinean jarraitzen dugu. Sinestea beraiek esaten dutena, lehendabizi.  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Etxabaida Taldea)*

*Egiten ari garen hau gauza positiboa da, baten bat interes bat ipini du ikusteko nola irten den, balorazio bat badago, hau egin eta gero, nik ez dakit beste herrialdeetan zer aterako den, baina balorazioa positiboa bada, eta Eusko Jaurlaritzak erabakitzen badu egitasmo hau aurrera ez eramatea... (Bidelagun ohiak, Arabako Etxabaida Taldea)*

## **3. Komunikazioa eta sustapena.**

**Komunikazio estrategia oso eta eraginkor bat beharrezkoa da.**

*Ez dago komunikazio estrategiarik.  
Fernan Ruiz*

*Hutsunea nabaritzen dut komunikazioan. Ez da aski informazioa ematearekin, publizitatera, zirrarak sortzera jo behar dugu. Zirrara sortuta zure imaginarioa eta ideologia moldatzen dituzu. Sortu behar da ondo pasatzearen irudi edo isla hori.  
Diego Egizabal*

**Programarekiko bi ikuspegi nagusi daude, eta osagarriak dira. Batek zerikusia du hizkuntzaren ikasketa prozesuarekin, eta, bestea, euskal komunitatearen trinkotzearekin. Akaso bigarrenko ikuspegi horren jendarteratzeko zailtasun handiagoak ditu egitasmoak.**

*Bi ikuspegiak, sinplifikatuta, praktikatu eta zabaldu, osagarriak izan daitezke. Lehena ikasketa prozesuarekin lotuta dago, eta, bigarrena, definitzen zailagoa da, eta, agian, ez dugu asmatu transmititzen.*  
Iker Martinez de Lagos

*Akats bat da mezua ikaskuntza prozesuari hain lotua egotea. Mezua "euskaldun berriari" edo euskara hobetu nahi dutenei nagusiki zuzenduta, aukerak galtzen ditugu komunitatea egiteko eta harreman sareak ugaltzeko.*  
Iker Martinez de Lagos

**Egitasmoa sustatzeko mezuan mintzapraktikaren potentzialitatea azpimarratu beharko litzateke, bai pertsonen arteko harremanak errazteko, bai komunitatea sortzeko.**

*Izan daiteke mezu bat zabaltzeko hedapenean. Autismoa apurtzeko balio dezakeela. Indibidualismotik ateratzeko eta harremanak garatzeko baliagarria izan daitekeela.*  
Fernan Ruiz

**Publizitate gehiago eta hobia egin beharra dago. ETB-rako iragarkia egin, edo irratirako, nahiz eta hedabidea euskarazkoa ez izan. Erdaraz ere egin beharra dago publizitatea.**

*Erdaraz ere iragarri behar da, zeren bestela erdal mundua ez da enteratzen. Agian euskaldun asko dago, baina erdal munduan bizi da.*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Etxabaida Taldea)

*Publizitate gehiago, ez dakit non, nola edo noiz. Baina ez bakarrik euskaltegietan edo institutoetan, baizik eta kalean. Ziur aski dago jende asko ez dakiela talde hauek existitzen direla.*  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Etxabaida Taldea)

*Medio masiboagoak beharko lirateke. Metroan berbalaguna egotea, esaterako.*  
Rozio Luces

**Komunikazioan ahalegin handiagoa egite horretan, zeresan handia dute erakundeek, arduradun politikoek, eta Eusko Jaurlaritzak.**

*Kontu sinbolikoetan asko lagundu dezake. Orain PSE dago gobernuan. Bertako norbaitek botako balu mintzapraktikaren aldeko mezua, herrietan eragiteko tresna aparta litzateke. Etxezarreta jaunak esaten du... Komunikazioan lagundu dezake.*  
Hor dago telebista.  
Edorta Lopez

**Publizitate kanpaina arruntez gain, bidelagunen bilaketa aurrez aurreko sareen bidez egitea eraginkorra da. Bidelagunak topatzea bada helburua, euskaldunak biltzen diren gunek identifikatu eta horietan eragin beharra dago.**

**Beste egitasmo eta kultur ekintzen berri izateko bideak jorratu behar dira.**

*Deustu dago hor bertan, eta ez naiz ezertaz enteratzen.*  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Etxabaida Taldea)

## 8.2 MINTZAPRAKTIKAREN BARNEKO DINAMIKA HOBETZEKO GAKOAK



### 4. Dinamizatzailea.

**Dinamizatzailearen lana funtsezkoa da, eta, bistan denez, haren jarrera dinamikoa behar du izan.**

*Nire ustez beharrezkoa da koordinatzaileak, behin, birritan, ez dakit zenbat aldiz ikustea taldea... Dinamizatzailea dinamikoa izatea beharrezkoa da eta gero jendea animatuta joatea.*  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Euzabaida Taldea)

**Halaber, langileen gutxieneko egonkortasuna eta iraunkortasuna bermatzea ezinbestekoa da egitasmoaren sendotasunerako.**

*Jende bera egotea egitasmoaren inguruan, horrek errazten du. Batek utzi eta besteak hartzea, informazioa galdu egiten da.*  
Rozio Luces

**Horrez gain, arrakastarako garrantzitsua da taldeen arteko koordinazioa eta gainerako normalizazio esparruekin lotura egitea.**

*Taldea bakarrik utzita emango du emango duena. Taldeen arteko lotura edo koordinazioa funtsezkoa da, eta hori beste normalizazio esparruekin lotzea.*  
Rozio Luces

**Dinamizatzaileen koordinaziorako foroa.**

*Gune bat sortu beharko litzateke dinamizatzaileek ekarpenak egiteko. Orain arte bakoitzak bere dinamizatzaile sarea du, euren artean komunikazioa badago ere.*  
Edorta Lopez

### 5. Taldekatze egokia.

**Komenigarria da taldeen osaketa irizpide egokien arabera egitea. Hobe funtzionatzen dute talde homogeneoek edo antzeko zaletasunak dituztenak elkartzen direnean.**

*Zaletasun baten inguruan ez badira elkartzean, hobe 20-30, 30-40, 40-50... adin tarte horietakoak elkarrekin jartzea. 4 txirringulari elkartzen dira eta nahiz eta batek 25 urte izan eta besteak 50, ba entrenatzera joan daitezke hitz egiten euskeraz...*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Euzabaida Taldea)

*Garrantzitsua da taldeak ahalik eta homogeneoen egitea. Batek utzi duela eta beste talde batean nahi duela, ba koordinazioa behar da, bestela gure eskutan edo mintzalagunen eskutan dago.*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Euzabaida Taldea)

**Elkar lotuta daude baliabide askitasuna, dinamizatzailearen lana, eta taldekatzerako irizpide egokiak aplikatzea. Taldearen arrakastarako gakoa profilak ongi elkartzean datza, eta, horretarako, beharrezkoak dira baliabideak.**

*Ez dagoela baliabiderik jendea topatzeko, kanpaina bat jendearen bila ibiltzeko, garaiz, denborarekin, ondo planifikatuta, perfilak perfilekin ondo ezkonduko direnak... Zeren azken finean baliabideak eskatzen ditu atzetikan.*  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Euzabaida Taldea)



## 6. Parte hartzaileen helburu ezberdinak kudeatu.

**Taldekatze egokirako, profilak eta helburuak bateratu behar dira. Parte hartzaileei egitasmoaz zer espero duten galdetu behar zaie.**

*Taldekideen nahiak eta interesak bateratu behar dira. Oso helburu ezberdina duten pertsonak: arriskua. Joaten direnak zer nahi dute? Euskara ikastea, euskara mintzatzea? Zer? Ondo pasatzea? Helburuak desberdinak dira. Batzuk joaten dira derrigortuta. Eta beste batzuk umearekin euskaraz hitz egin nahi dute eta haiek pozik. Beraz uste dut beharrezkoa dela galdetzea zer espero dute taldeaz, taldea sortzeko orduan... A la hora de hacer los grupos tener en cuenta los objetivos de cada persona. Igual bide horretatik posible da hobetzea.*  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Euzabaida Taldea)

## 7. Taldea eta taldekideen jarrerak.

**Taldean tamaina mugatu beharko litzateke.**

*Taldeak 4-5 lagunetakoak izan beharko lirateke. Arriskua bik uztea izan daiteke, baina hartu beharra dago, zeren talde horiek hobeak dira. Zergatik hobeak? Aukera gehiago dagoelako parte hartzeko eta elkar ezagutzeko. Talde handietan askotan bi edo hiru talde egiten dira. Horrek eragin dezake taldea desegitea (3 alde batera, 3 bestera).*  
Fernan Ruiz

**Garrantzitsua da taldekideek egingo dutena adostea, guztion gustuei erantzuna emateko.**

*Justu gosalduta eta gero, taberna batera! Agian nahiago nuen paseo bat egin edo "benga, goazen ibiltzera", baina ez zen posible "es que kafetxo bat hartu nahi dut".*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Euzabaida Taldea)

**Taldekideek jarrera abegikorra izan behar dute hasi berriekiko.**

*Bakarrik datorrena (berria) beso zabalik hartzeko jarrera. Egon behar da, "una intención de acoger". Zu bakarrik apuntatzen bazara eta aurkitzen baduzu nahiko talde itxita pfff! esaten duzu honaino heldu gara.*  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Euzabaida Taldea)

**Oinarrizko arautegia parte hartzaileentzat komenigarria litzateke.**

*Dekalogo bat, berbalaguna zer den eta zer ez zehaztuko duena. Ez arautzailea, baizik eta amablea.*  
Iker Martinez de Lagos

## 8. Bidelagunaren garrantzia.

**Arrakastarako gakoa neurri handi batean bidelaguna da.**

*Dinamizatzaile bat egon behar da, edo bestela bai gertatzen dela erdaraz hitz egiten dela. Laguntzailea egon behar dela taldean.*  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Euzabaida Taldea)

**Bidelagunak erakartzeko pedagogia egin beharko litzateke, eta pizgarriak eskaini.**

*Hobe adierazi beharko litzateke zergatik den inportantea sareak zabaltzea, eta zer garrantzi eduki dezakeen euskaldun bat laguntzea, euskararen sarea zabaltzeko, trinkotzeko.*  
Rozio Luces

*Boluntarioak aktibatzeke beste tresnak erabili daitezke. Unibertsitateak kredituak ematen ditu denerako. Abaltzisketako ikaslea eta Sestaokoa elkartu daitezke, eta. bakoitzari eman 5 kreditu kanpusean astean ordu batez euskaraz aritzeagatik, kontrolatuta noski. Motibazio pragmatikoa bidelagunak erakartzeko erabili, alegia.*  
Edorta Lopez

*Txartelak deskontuak izateko.  
Edorta Lopez*

**Bidelalaguna saritzea aspektu materialaz harago.**

*Euskaldun zahar horiek saritu behar dira. Jendea jarri beharra dago normalizazio prozesuaren muinean. Hizkuntza komunitatean mugimendu hori sustatu behar da: normalizazioaren giltza zu zara. Figura hori gizarteratu, errekonozitu eta baloratu beharra dago.  
Diego Egizabal*

**9. Ebaluazioa.**

**Egitasmoak hobetzeko ebaluazioa tresna egokiak beharko lirateke.**

*Utzi dutenek ez dute balorazio galdetegia betetzen, eta hor galtzen dugu informazio asko. Haiei galdetu beharko genieke arrazoia: denbora falta, oposizioa gainditzea, taldea gustuko ez izatea, etab.  
Rozio Luces*

*Sarri ez dugu jakiten motibo nagusia zein den taldea uzteko, eta hori ere kontabilizatu egin daiteke. Ez da galdetzen (zergatik utzi duzu?). Bada galdetzeko kontu bat, eta neurtzekoa.  
Fernan Ruiz*

## 8.3 HOBETZEKO BESTE PROPOSAMEN BATZUK



### 10. Topaguneak sortzea.

**Bilgune edo espazio berezi bat sortzea aproposa litzateke sakabanaketa gainditzeko eta harreman sarea aberasteko.**

*Leku bereberean posible bada geratzea, leku bat liburutegi txiki batekin, eta tailer bat badago itxi... Ekintza guztiak leku bereberean egitea... Entre todos coincidimos más y se hace más relación, porque nos relacionamos cada uno en un sitio no conoces los otros grupos... pero si quedas todas las semanas, no todas, pero igual de vez en cuando quedas en algún sitio más físico...*  
(Bidelari ohiak, Bizkaiko Euzabaida Taldea)

### 11. Ikasturte bukaera eta ikasturte hasiera.

**Ikasturtea bukatzeko unea garrantzitsua da, orduan erabaki baitaiteke jarraipena. Bukaera festa hurrengo ikasturteko hitzordua finkatzeko abagunea izan daiteke.**

*Ekimenari hasiera eta bukaera eman, eta bukaera izan daiteke festa batekin, bertsolari, trikitilari edo kontzertu bat. Ondo pasa dut, baina ekimen honek ja utziko nau prest irailean berriz ere izena emateko. Hasiera eta bukaera, eta bukaera hori izatea geratzeko.*  
(Bidelagun ohiak, Arabako Euzabaida Taldea)

### 12. Mintza Eguna.

**Euskal Herriko berbalagunen topaketa egitea proposatu da (antza Mintza Eguna ez da aski ezaguna), eta, antolakuntza bateratua izatea.**

*Mintza egunean guztion ekarpenak oso inportanteak dira, baina orain arte Mintza eguneko antolakuntzan ez dugu parte hartu, gu gonbidatuta joaten gara.*  
Edorta Lopez

### 13. Gazteak erakartzea.

**Gazteei zer nahi duten galdetu beharko litzaieke.**

*Inkestak egin eta galdetu ea zer nahi duten. Zein izango ziren beren gustuko gauzak, ekitaldiak.*  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Euzabaida Taldea)

**Gazteentzako aproposagoak dira talde handiagoak, bikoteak baino. Edozein gisatara, ona litzateke talde txiki eta handixeagoen artean erabakitzeko aukera izatea.**

*Ni horrelakoa naizelako edo heldutasun puntu horregatik, baina beste formatu batean, gelditu beharrean bat batekin, taldeka gelditzeko edo... Behintzat lehenengo zera hori egiteko errazagoa.*  
(Gazte elebidunak, Gipuzkoako Euzabaida Taldea)

**Gazteak erakartzeko bereziki aisialdiarekin eta formakuntzarekin zerikusia duten jarduerak antolatu behar dira. Eurentzat debalde izateak bermatuko du parte hartzea.**

*Euskaraz dakitenak, ikasten ari direnak, badute koadrilarekin euskaraz hitz egiteko aukera nahi badute. Orduan ekintza batekin lotuta egotea erakargarriagoa da.*  
(Elebidun hartzaile gazteak, Nafarroako Euzabaida Taldea)

**14. Komunikazioaren teknologia berrien garrantzia.**

**Soziabilitate modu berriei erreparatu behar zaie.**

*Interneten, Tuenti bezalako sare sozialetan daude gazteak, edo Facebook-en.  
Harreman sareak eta harremanak izateko moduak aldatu dira. Ez dira ari  
desagertzen, eta zenbait arlotan indartzen ari dira. Horretara egokitzen ez dugu  
oraindik asmatu.  
Iker Martinez de Lagos*

*Ez dugu lortu sare sozial bat eratzea mintzapraktikaren inguruan, eta hori lortu  
beharko genuke.  
Iker Martinez de Lagos*

**15. Gurasoentzako haurtzaindegi zerbitzua.**

**Haurtzaindegi zerbitzua eskainita guraso gehiago hurbilduko da  
mintzapraktikara.**

# [a] aztiker

Jendarte-ikerketak aplikatuak

Martin Ugalde Kultur Parkea, Gudarien Etorbidea z/g

20140 ANDOAIN [GIPUZKOA]

943 - 59 30 06

[idezkaritza@aztiker.com](mailto:idezkaritza@aztiker.com)



KULTURA SAIA  
Hitzuntza Politikaneko Sailburuordetza  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística